

# Goienkaria

ASTELEHENEKO

2009ko maiatzaren 18a > Astelehena > VII. urtea > 233. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Oposiziotik erantzukizunez lan egiten jarraituko dugu, gobernu baldintzatuz"

Jose Luis Garitano  
EAJ > 08



G2a

Nora Urkia moda diseinugilea, Bilbon saritua > 23

BERGARA

Uztailerako ipinita egongo dira futbol zelaiko aldagelak > 17

EKONOMIA

Hirugarren Munduari laguntzeko, makinetan 'elkartasun kafea' > 06

KIROLA

MU saskibaloitako taldeak Lehen Maila Nazionalari eutsi dio > 24

PRESOK > MANIFESTAZIOA ETA EKITALDIA

## Preso eta iheslari politikoaren senideak, hunkituta, Arrasaten

**JON AGIRRE** Aramaioarrak kartzelan egin dituen 28 urteak, ekitaldiaren abiapuntu

**ESKAERA** Sakabanaketa eta bizi arteko kartzela zigorrarekin amaitzea eskatu dute

**SALAKETA** Elkartasunaren kontrako errepresioa areagotu egin dela salatu dute > 04

ZERBITZUAK > SEGURTASUNA

### Lapurretak saihesteko jarraibideak dendariei

Lapurretak ugaltu direlako kezkatuta daude dendariak > 05



GORA! Jabier Etxeberria Fito gora eta behera erabili zuten UDAko jokalariek partidu ostean. UDAko delegatuak urte askoan daroa elkartean.

JOSETXO ARANTZABAL

### Aretxabaleta hirugarren mailara, Tolosan garaipena lortu eta gero

Preferente mailako talderik indartsuena dela erakutsi zuen Aretxabaletak zapatuan Tolosan, bigarren sailkatua-

ren etxean bat eta bi nagusitu eta hirugarren mailarako txartela lortu zuen-eta. Pozez ospatu zuten futbolariak. > 22-23

#### AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05  
Ekonomia > 06  
Auzoak > 07  
Elkarrizketa > 08  
Iritzia > 10  
Herriak > 11-20  
Kirola > 21-28  
Kultura > 29-32  
Sailkatuak > 34-35  
Telebista-irratia > 37  
Berri-zakua > 38-39  
Azkena > 40

BERGARA > MUSIKA ESKOLA

### Udaberriko kontzertu ikusgarria

Bergarako Musika Eskolak, 25. urteurreneko kontzertu jendetsu eta ikusgarria eskaini zien herritarrei zapatuan. Herriko musika talde eta abesbatza guztiek hartu zuten parte. Urteurreneko abestia estreinatu zuten. > 30-31



Irudian, Musika Eskolako Haurren Abesbatza, zapatuko emanaldian.

JULIO CALLEJA



### Mundumirako pack-a. Nahi?

Zoaz 7. orrialdera

EKONOMIA &gt; PENTSIOK

# Pentsiodunek zigorrik gabeko pentsioak aldarrikatuko dituzte

**OSO-OSORIK** 65 urtetik aurrera pentsioak %100 kobratzea eskatuko dute Bilboko manifestazioan

**ALARGUNAK** Gaur egun pentsioaren %52 kobratzen dute alargunek, eta %70era igo nahi dituzte berehala

**ORDEZKARITZA** Pentsiodunen gaiak lantzen diren eztabaida mahaietan parte hartzeko eskaria egin dute

## LURRALDEBUSeko istorioak

**LURRALDEBUS**

José Juan, 19 urte

"Oposizioak egitetik dator. Ez du gau osoan lorik egin eta orain lanera joan beharra du."

Jatorria: Lasarte-Oria  
Norakoa: Donostia Amara

Angel, 57 urte

"Bilera batera doa. Jose Juanen adinekoa den eta beti festarik festa dabilen seme bat du."

Jatorria: Tolosa  
Norakoa: Donostia Amara

[www.lurraldebusekoistorioak.com](http://www.lurraldebusekoistorioak.com)



**GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera >

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Erretiro aurreratua hartutakoek, pentsiodunek eta alargunek ahanztura egoeran daudela salatzeke bilkurak egin dituzte EAE-ko hiriburuetan. Gobernu Zentraleko egoitzen eta Gizarte Segurantzako Donostiako bulegoaren aurrean. Datorren eguaztenean, maiatzaren 20an, manifestazioa egingo dute Bilbon, euren eskubideak aldarrikatzeko eta pentsioetan ezartzen dizkieten zigorrak bidezkoak ez direla salatzeke.

Azken hori da, hain zuzen ere, euren eskari nagusienetarikoa bat. "Aldarrikatuko duguna da aurrez erretiratzeak zigorrik ez izatea, ordua bada-eta horretarako. Arazoa hor dagoela esatearekin bakarrik ez da ezer lortzen; onartu eta penalizazioak kendu behar dira", dio Felipe Antonio Igartuak, Appalde Debagoieneko aurre-erretiratu eta pentsiodunen elkarteko presidentek.

**ZIGORRAK PENTSIOTAN**

Regino Valle elkarteko zuzendaritzako kideak eman digu zigorraren berri: "Gehienok kotizatzen egon gara 35-40 urtez eta 65 urtera iritsitakoan ez ligukete zigorrik ezarri behar. Ez dugu %100 eskatzen, baina bai zigorra kentzea. 65 urtera iritsitakoan, legearen arabera, 35 urte kotizatu baditut zergatik %60 baino ez didate ematen? Orain badago jendea %65 jasotzen duena, eta guk %60ekin jarraitzen dugu. Dago-kiguna ordain diezaguten eskatzen dugu, gure soldata baino %40 gutxiago jasotzen dugu-eta".

Erretiro aurreratua hartutakoek eskala ezberdinak dituzte. Appalden, badira %60 kobratzen dutenak nahiz eta 45 urte kotizatu. 40 urte kotizatutako pentsiodunak ere badira 1.000 eurotik behera kobratzen dutenak. Bestalde, badira zigorra %8koa izan beharrean %7koa eta %6koa dutenak. Izan ere, orain lege bat dago ezarrita, eta dio 40 urtez kotizatuz gero %6 dela kentzen dena.

Administrazioak onartzen du murrizketa Konstituzioaren aurkakoa dela, legeak esaten duela 35 urte kotizatu dituenari soldatara %100 dagokiola.

Regino Vallek Bergarako enpresa batean egiten zuen lan. "Enpresa itxi egin zuten, ez nintzen ni joan, baina egon liteke 35 urte baino gutxiago kotizatu duenik eta gutxiago kobratuko luke edo bere egoera aztertuko litzateke. Nik, lan-bizitza 43 urtekoa izan eta zigorra jasotzen dut, ez dago eskubiderik. Salaketa ipinia dugu, baina ez du aurrera egiten".



Erretiro aurreratua hartutakoek, pentsiodunek eta alargunek aurrez ere egin dituzte manifestazioak Bilbon euren eskariak aldarrikatuz.

APPALDE

#### ERRETIROA, EUREK NAHI BARIK

Felipe Antonio Igartuak esan digu manifestazioan eskatuko dutela borondatearen aurka erretiroa hartu dutenek %100 kobratzea 65 urtetik aurrera. "Uler-tzen dugu zigorra 60 urterekin edo gutxiagorekin lana utzi eta langabeziara doanarendako, baina langabezia eskubidea bakarrik dauka derrigortuta utzi duenak, ez bere borondatez utzi duenak. Ez gabilta langabezia kobratzea eskatzen, gure borondatez kontra lana utzi dugulako egiten dihardugu eskaria. Inork ez du nahi izaten 65 urte baino lehen lana uzterik, eta borondate hori daukanari beharbada ipini egin behar zaio zigorra, baina ez zaigu lege bera ipini behar gogoz kontra lana utzi dugunoi eta euren borondatez utzi dutenei".

#### "DIDU HORI ERRAZ JOATEN DA"

2007an onartu zen lege bat, 2002ko urtarrila baino lehen euren borondatearen aurka erretiroa hartu zutenek %70 kobratzeko. Hobekuntza egon arren, pentsiodunendako ez da nahikoa. 2007an ere egin zieten diru gehigarri bat 60 eta 64 urte bitartekoendako. "Lege aldaketa horrekin zuloa estaltzea zen euren asmoa eta esan ziguten Gizarte Segurantzaren saiatuko zirela gauzak hobetzen, baina oraingoz ez dugu hobekuntza nabarmenik ikusi. Hala ere, gu saiatuko gara, nahiz eta bidean asko jausi. Madrilen, Parlamentuan onartuta dago, baina orain gauzatzea falta da", dio Igartuak.

Felipe Antonio Igartua 59 urterekin kaleratu zuten eta 70 beteko ditu orain. "Askok uste du adin horrekin lana utzi eta indeminazioarekin ondo bizi litekeela, baina ez da hala, diru hori ere erraz joaten da. Aurrez erretiratzea pagotxa balitz, seguru naiz gerenteak eta enpresetako goi karguak erretiratuko liratekeela lehenak, gu baino lehenago gainera, baina ez dute horrela egiten eta horrek erakusten du dena".

#### PENSIIOA EKARPENAREN ARABERA

Eurei aplikatzen dieten legea da lana euren borondatez utzi dutenen berbera. "Lanean aspertu, diru arazorik izan ez eta familia gobernatzeko gai direnez, lana

uzten dutenen pare ipintzen gaituzte, eta gure kasua ez da berdina, gu gure borondatearen aurka kaleratu gaituzte".

Administrazioan esan diete pentsioak egindako ekarpenaren arabera ordaindu behar direla. "Bada, guri, kendu ordez eman egin beharko ligukete dirua. 35 urte kotizatuta %100 kobratzeko eskubidea badago eta guk 40 edo gehiago kotizatu baditugu, hortik atera kontuak", dio Igartuak.

Regino Vallelek zera azpimarratzen du: "Gure ondorengoek lan erregulazio espedienteen bidez edo akordioaren bitartez hartu dute aurre-erretiroa, hori 2002. urtetik hona gutxi gorabehera; hortaz, egoera ez da bera".

#### ORDEZKARITZA EZTABAIDETAN

Euren arazoa eztabaidatzen den tokietan, Toledoko Itunaren Mahaian, esaterako, ordezkari-tza izatea ere aldarrikatuko dute Bilbon. "Espainia mailan, Toledoko Itunean, asko gara erretiratu eta pentsiodunak gure egoeran geratu ginenak. Hortaz, eskatu nahi dugu gure ordezkariak izatea konstituzio-kontrakotasun horren gaineko eztabaidak egiten direnean. Lege horiek guztiak Toledoko Itunean egin ziren, eta, sindikatuen eta patronalaren ordezkariak dauden neurrian, gureak ere egotea nahi dugu", esan digu Regino Vallelek.

#### MANIFESTAZIORAKO DEIA

Appaldetik dei egin nahi dute eguaztenean Billboko manifestazioan parte hartzeko eta euren aldarrikapenekin bat egiteko. 11:30ean Jesusen Bihotza plazan abiatu eta Areatzarainoko ibilbidea egingo dute (Arenala). "Jendea esan nahi nioke gaur ez dagoen arren agian bihar hura egon daitekeela gu orain gauden egoeran; hortaz, gurekin bat egitera animatu nahi nituzke", dio Regino Vallelek.

Felipe Antonio Igartuak jakinarazi digu Donostian, Bilbon eta Gasteizen aurrez egin dituztela elkarretaratzeak eta oraingoan ere herritarren laguntza behar dutela: "Administrazioan nahiago lukete inor ez balitz joango manifestaziora, baina guri ez zaigu hori komeni; bestela, aurregiratuko digute eta guk ez dugula ezer egin".

## Emakume alargunen pentsioa %70era igotzeko eskaria egingo dute

500 euro inguruko pentsioa kobratzen dute Euskadiko emakume alargunen %90ek; batez besteko soldataren %60 baino gutxiago. Emakumeen alarguntza pentsioen hobekuntza aldarrikatzea da eguazteneko manifestazioaren beste helburu bat. Emakume alargunek ezkontideen errentaren %52 jasotzen dute, eta kontuan hartuta emakume alargunen %80k etxetik kanpo ez dutela lanik egiten, pentsioa euren diru sarrerara bakarria da. Hortaz, eskaria da pentsioak ezkonlagunaren errentaren %70era igotzea.

#### ALARGUNEN LAGUNTZA BEHARRA

Regino Vallelek dio inor gutxi laguntzen diela alargunei: "Lortu dugu %45 kobratzetik %52 kobratzera pasatzea eta lortu nahi dugu %70era iristea berehala. Alargunek eta euren burua gure egoera berean ikusi dutenek gurekin bat egingo balute, pisu handiagoa izango genuke".

Felipe Antonio Igartuaren esanetan, "badira %90 eskatu dutenak ere, daukaten familiaren arabera. Esaterako, bi ume dituen alargunak horiek koskortu bitartean gehiago behar luke, eta kasu bakoitza aztertu behar da eta egoeraren arabera ordaindu, baina gutxienez %70".

#### > APPALDE

Debagoieneko aurre-erretiratu eta pentsiodunen elkarteetan 111 bazkide dira gaur egun. Presidentearen esanetan, "orain arte adineko jendeak ematen zuen izena, baina gazteagoek ez; badirudi ez dutela arazorik ikusten".

#### > PENSIODUNAK

Elkarteetan izena ez eman arren, estimazioen arabera 500.000 pentsiodun dira Euskal Autonomia Erkidegoan.

#### > GUTXIENEO PENSIIOA

Aurten 621 eurotan dago, legez, baina 614 kobratzen dira. "Gobernua nahikoa dela pentsatzen duten horiei esango nieke eurek egin dezatela proba diru horrekin bizi izaten".

Parlamentuan lege proposamenak eta ez-legezkoak ere sartu dituzte, eta, bozketetan onartu arren, prozesuak oraindik ez du aurrera egin. Igartuaren esanetan, "egun batean lortuko da zerbait, nahiz eta bidean asko geratu. Ez diot koefiziente erreduktore guztia kenduko digutenik, baina %8koa duenak txikiagoa izatea lortuko balitz, gutxienez... Koefiziente neutroa, %4 guztiondako lortzea, esaterako".

Jaso behar luketen diru kopurua galdu duten arren, esperantzarik ez dute galdu eta aldarrikapenekin aurrera egingo dute.

PRESOAK &gt; MANIFESTAZIOA ETA EKITALDIA ARRASATEN

# Preso eta iheslari politikoek aldeko ekitaldiak hunkitu egin ditu senideak


Sakabanaketa, bizi osoko kartzela zigorra eta bakartzearekin bukatzea eskatu dute

Elkartasuna adierazten dietenen kontrako jazarpena areagotu egin dela salatu dute

GOIATZ ARANA &gt; BERGARA

Jon Agirre aramaioarrak kartzelan daramatzen 28 urteak abiapuntu hartuta eta Portaloira Topaguneak deituta, euskal preso politikoek eskubideak aldarrikatu zituzten zapatuan, Arrasaten. *Heriotza zigorrik ez! Biziar-teko zigorrik ez! Euskal presoak Euskal Herrira* lelodun pankartarekin herriko kaleak zeharkatu eta Amaia antzokira jo zuten, ekitaldiari hasiera emateko.

Lagun eta senitartekoez aramaioarrarekin bizi izandakoak gogoratu zituzten, baita hura espetxean den 28 urteotan euren bizitzetan zertzuk gertatu diren kontatu ere. Carabanchel, Alcalá de Meco, Ocaña, Herrera de La Mancha, Sevilla, Tenerife, Valdemoro..., 1981eko maiatzaren 11n Guardia Zibilak atxilotu zutenetik kartzelaz kartzela egin duen ibilbidea irudikatuzko, Espainiako mapan gora eta behera eraman zuten zinta gorri bat. Sakabanaketa politika, isolamendua eta



Preso eta iheslarien "eskubide urraketari" amnistia gailendu zitzaion zapatuko ekitaldian, Arrasateko Amaian.

GOIATZ ARANA

jipoiak jasan behar izan dituela salatu zuten; baita zigorraren hiru laurdenak beteta izan eta osasun egoera larrian egon arren, kartzelan jarraitu behar izatea ere. Baina Agirrek guzti horri duintasunez eta nor den ahaztu gabe aurre egin diola gaineratu zuten. "Euskal Preso Politikoek Kolektiboa inoiz baino gehiago ari da jasaten gorroto politikaren ondorioak, baina gure herrietako plaza, ikastetxe, mendietan... ilunpea egunero argitzen dugu, ikasi dugulako hormak apurtzeko dinamitak baino indar handiagoa dutela maitasun keinuek eta eguneroko lanak", azaldu zuten.

EKITALDIA

## Sarrionandiaren hitzak, gogoan

Ikuskizun kutsuko ekitaldia izan zen zapatukoa, "hunkigarria" bertan egon zen askorentzat. Ikusentzunezkoak, dantza, poesia... eta Joseba Sarrionandiaren poesia bat, tartean: "Presoa zelda bazterrean, bakarrik mintzatzen bezala, baina ez, armiarma bati galdetzen dio: noiz arte? armiarma, berehala, zintzilikatu eta haria luzatuz jaisten da. Eta badirudi hari luze hori dela armiarmaren erantzuna".

## "ESPAINIAR GUANTANAMO"

Portaloira Topagunearen hitzetan, PSOEek apustu garbia egin du Euskal Preso Politikoek Kolektiboa suntsitzeko: "Horrek ez du Guantanamo beste izenik, eta Jon Agirreraren irudiak oso ondo erakusten du espainiar Guantnamoren neurria zein den". Baina "jazarpena" ez da espetxetara mugatzen, euren esanetan: "Presoekiko elkartasuna terrorismoztat jo, epaitu eta zigortu egin dute, baina guk elkartasun gehiagorekin erantzungo dugu".

Babesa eta berotasuna helarazi zieten Debagoieneko preso eta iheslari politikoek senideei.

LAN ISTRIPUA

## Behargin batek min hartu du Bergaran

Kanpoko igerilekua egiteko lanetan gertatu zen ezbeharra, zapatuan

J.ZABALA/G.ARANA &gt; BERGARA

Zapatu goizeko 09:30ean gertatu zen istripua. Bergaran kanpoko igerilekua egiteko lanetan ziharduen langile bati ihes egin zion esku artean zerabilen makinak. Makinako burdin zati batek sudurrean jo zuen eta anbulantzia eraman zuten, zauri arinekin. Beste burdin zati batek, berriz, barruko igerilekuak banatzen dituen leiho baten kontra talka egin eta apurtu egin zuen. Beira zati batzuk, barruko igerilekura erori ziren eta, ondorioz, itxi egin zuten, segurtasun arrazoiengatik.

DOMEKAN, ZABALIK

Hasierako asmoa zen asteburu osoan itxita edukitzea, baina zapatuan egin beharreko garbiketa lan guztiak amaituta, atzo, domeka, zabaldu egin zuten, berriz ere.

Agorrosin Ekintza Gune-ko arduradunekin harremanetan jarrita, adierazi digute astean, ahalik eta azkarren egingo dituztela konponketa lanak.

M 21 &gt; GREBA DEIALDIA

## Bergarako hainbat herritarrek bat egin dute greba deialdiarekin

Egungo egoera ekonomiko, sozial eta politikoa ezgonkorrek direla esan eta maiatzaren 21ean greba egitea beharrezkoa dela adierazi dute

GOIATZ ARANA &gt; BERGARA

Dendariak, nekazariak, gazteak, pentsiodunak... askotariko esparru sozialetako ordezkariak batu ziren bariku iluntzean, herriko plazan, "munduan eta Euskal Herrian indarrean den sistema neoliberal eta kapitalistarekin, kezkatuta". Gutxi batzuk herrialde osoek besteko aberastasunak dituztela salatu zuten eta Bergaran bertan ere ezberdintasunak badirela, gaineratu: iazko urte-tik hona langabezia tasa %57 igo da, soilik biztanleriaren %0,7 bizi da nekazaritza edo abeltzain-

tzatik eta herriko hainbat saltoki txiki ixteko arriskuan daude. "Krisiaren kontrako neurrien" aurka azaldu ziren, horien bitartez kapitalismoa berriz fundatu gura delako, euren esanetan. Guzti horri erantzuteko, greba orokorrerako deiarekin bat egin eta antolatutako mobilizazioetan parte hartzera deitu zituzten herritarrek: 20an, 19:30ean, mobilizazioa egingo dute, plazatik aterata; eta 21ean, 09:30ean, asanblada eta kontzentrazioa, plazan, eta 17:30ean, auto karabana, Agorrosindik aterata.



Maiatzaren 21ean greba egitearen aldeko gizarte eragileak, deialdiaren kartelak eskuetan dituztela.

JOSETXO ARANTZABAL

MARKEL OLANO, KONTRA

Gipuzkoako ahaldu nagusia, bere aldetik, greba eskubidearen alde, baina eguenerako antolatutakoaren kontra azaldu da. Bere esanetan, gure herriak ez du grebarik behar, krisi ekonomikotik ateratzeko bideak baizik. Grebaren harira, alderdi politikoko batzuk hartutako erabakiei buruz, Markel Olanok esan du arinkeriak jokatzeko ari direla.

ESANAK

"Gipuzkoako Foru Aldundiko goi arduradunak lanera joango gara 21ean, kemen eta adore handiagoz, ahal bada"

Markel Olano &gt; Ahaldu nagusia

"Eurek sortutako ekonomia-sistemaren eraginez jasaten ari garen krisialdia ordaindu dezatela eragileek eurek"

Mikel Eguren &gt; Irakaslea



Herritarrak, erosketak aldean dituztela, Arrasateko Olarte kalean.

IKER BARANDIARAN

ZERBITZUAK > SEGURTASUNA

# Lapurretak saihesteko jarraibideak emango dizkiete dendariei

Segurtasun neurrien gainean azapenak emango dizkiete eta lapurreten aurrean zelan jokatu argituko diete dendariei

IKER BARANDIARAN > ARRASATE  
Ibarreko merkatarien elkarteek eskatuta, Debagoieneko Mankomunitateko Garapen agentziak *Segurtasuna merkatari-tza eta zerbitzu sektorean* jardunaldiak antolatu ditu eguaztenerako, hilaren 20rako. Arrasaten egingo dute,

Kulturateko areto nagusian, 20:15ean; hizlaria Eusko Jaurlaritzako segurtasun pribatuaren unitateko arduraduna izango da. Ibarreko dendari eta zerbitzu-etako langileei zuzenduta dago.

## LAPURRETA ASKO

Merkatariak kezkatuta daude inoiz baino lapurreta gehiago izan direlako azkenaldian: "Zelanbaiteko inpunitatea dagoela dirudi; lapurreta herriko erdigunetan, egunez, egiten dituzte; eta kasu gehienetan ez dituzte zigorrak jasotzen. Horren aurrean zelan jokatu jakin gura dugu", esan digu Arrasateko Ibai Arteko presidente Arantza Arantzabalek.

Berbaldian beste herrietako esperientziak, salaketak zelan egin, aseguruak, alarmak, herriaren zaintza, segurtasun neurriak eta beste izango dituzte berba-gai.

## ESANAK

**"Merkatariok oso kezkatuta gaude lapurretekin, eta zalantza handiak ditugu segurtasun eta zaintzaren gainean"**

Arantza Arantzabal > Ibai Arte

AZPIEGITURAK > OINEZKOAK

# Bergara eta Antzuola arteko bidegorriaren lanak, aurrera

Desjabetzeak eta lizitazioak egin ostean, 2010ean hasi gura dituzte lanok

I.B. > BERGARA  
Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Jasangarriaren arloak Antzuola eta Bergara lotuko dituen bidegorriaren hirugarren tramua egitea onartu du aste honetan egindako bilkuran.

Lan horiek 2010ean hasi gura dituzte eta hiru bat hilabeteko iraupena izango dute. Horrez gain, Aldundiak lan horietarako aurreikusitako aurrekontua 683.000 eurokoa izango da.

## LURREN DESJABETZEAK

Lanak hasi aurretik, baina, Aldundiak Jaurlaritzari eskatuko dio aipatutako lanak urgentziazkotzat hartzeko. Behin izendapen hori lortuta, Diputazioak aukera izango du lanek eragin-garritu dituzten lur eta ondasunak

okupatzeko. Hortaz, Aldundiak lur desjabetzeak egin beharko ditu; eta horretarako hango lur-jabeekin batu beharko da.

## 865 METROKO LUZERA

Egitea onartu duten tramua 865 metroko luzera dauka eta guztia Bergarako lurretan kokatuta dago: bidegorriak Deskarga erreka birritan gurutzatuko du zubi batzuen bitartez.

Bidegorria oinezkoek zein txirrindulariek, biek, erabili ahal izango dute.

## etxeko leihotik



Ubane Madera > arrasate@goiena.com

## Hauteskundeetan, langabeak lanean

Tokatu zait ekainaren 7ko hauteskundeetan mahaian egotea lanean. Imajinatuko duzuen moduan, bat ere graziarik ez dit egin han egon beharrak. Batetik, alderdi politiko, hauteskunde eta orokorrean politikarekin nahiko nazkatuta nagoelako azkenaldian. Eta bestetik, jakina, domeka batean egun osoan egon behar izango dudalako lanean, 08:00etatik batek daki noiz arte.

Bale. Dirua ematen dute lan hori egitea tokatzen zaie-nei (momentuz ez dakit zenbat, baina 50-60 bat euro izango direla kontatu didate). Baina aste osoan lanean emanda nik nahiago domeka libre.

Entenditzen dut, baita ere, halako lanak ez direla inoren gustuko, eta norbaitek egin behar dituela. Hori ere bale.

Horrela bada, baina, proposamen bat: eska ditzatela boluntarioak. Edozein hauteskundetarako egingo nuke nik proposamen hori; baina krisi garaian gaude honetan oraindik gehiago. Ez dago jende mordo ba EREekin, langabezia edo soldata kobratu barik? Ba langabeen artean edo lan egin gura dutenen artean zozkatuko beharko lituzkete hauteskundeetan lan egin behar dutenen postuak. Uste dut modu horretan denok irabaziko genukeela.

Eta uste dut, era berean, denok daukagula galtzekoak hauteskundeetara begira eratzten hasi diren alderdi politikoetako zerrendak inpugnatzen hasten badira.

**"Boluntarioak eskatu beharko lituzkete hauteskundeetan lan egiteko"**

> **Isilik.** Bestelako hauteskundeekin konparatuz, isilik dabilta alderdi politikoak Europako hauteskundeei begira. Aurrekanpaina ezkutu samarra egiteaz gainera, kanpaina bera ere ahul samarra izango dela ematen du.

> **"Garrantzia" txikia.** Politikariak dira lehenak kritikatzeko Europako hauteskundeei hautesleek ematen dieten oihartzun txikia, baina eurak dira lehenak alderdikideen "erretirorako" Europa aukeratzen, saria bailitza.

INGURUMENA > ENERGIA FOTOVOLTAIKOA

## Eguzki plakatan inbertitu eta laguntzeko plana

Plaken gastua estaltzearen, dibidenduak jasoko dituzte herritarrek

Horren bitartez, herritarrek azpiegitura horiek duten kostua estaltzen lagunduko dute. Baina trukean plakek sortutako dibidenduak eskuratuko dituzte; Aldundiko adituen esanetan, %10eko errentagarritasuna izango dute *akzio* horiek.

I.B. > OÑATI

Aldundiak egitasmo bitxia eman du ezagutzera, hasieran lau herritan egingo dutena: Oñatin, Elgoibarren, Zegaman eta Zarautzen. Herritarrek aukera izango dute udal erakinetako plaka fotovoltaikoen parte-hartzeak eskuratzeko.

**PLAKEN 20.540 METRO KOADRO**  
Aldundiaren asmoa da aipatutako lau herrien artean guztira plaka fotovoltaikoen 20.540 metro koadro banatzea; horiek guztiek 990 kilowatio energia sortuko dituztenaren aurreikuspenak dituzte.



Harremanek denda dauka Arrasateko Hiper Eroskin.

LEIRE KORTABARRIA

Harreman Gobernuz Kanpoko Erakundeak beste ekimen bat zabaldu nahi du bailaran: kafe-makinak dituzten erakundeetan bidezko merkataritzako kafea jartzea

**LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE**  
Bidezko merkataritzari ere eragin dio krisiak, eta horrek esan nahi du produktu horiek ekoizten dituzten Hirugarren Munduko herriek kalte gaineratu hori jasaten dutela. Hori ikusita, Arrasateko Harreman GKEak *elkartasun kafea* zabaldu nahi du Debagoien osoko erakunde publiko, enpresa, komertzio eta, oro har, kafea saltzen den leku guztietan.

**ELKARTASUNA > BIDEZKO MERKATARITZA**

## Hirugarren Munduari laguntzeko, makinetan 'elkartasun kafea'

Hain zuzen ere, kafe-makinak dituzten lekuetan, bidezko merkataritzako kafea eta kakaoa zerbitzu dadin nahi dute.

Harremaneko Sole Ibabe eta Teresa Haran kideek dioten moduan, "guk ez baditugu produktu horiek... erosten, herrialde txiroetako ekoizle horiek ez dute jaten". Orain arte, lortu dute bidezko merkataritzako kafea leku batzuetan sartzeari. Fagor

Arrasate, Ikerlan, Dikar... baina zabaldu egin nahi dute. Izan ere, Euskal Herriko beste leku batzuetan oso ohikoa da konpromiso hori: Bilbon, Donostian, Gasteizen... erakunde publiko guztietan elkartasun kafea ematen dute. "Bailarako udalek badute konpromisoa, bai, baina hori indartu nahi dugu". Europan ere oso ohikoa da erakunde publikoek horrelako ekintzak egitea.

**HARREMAN DENDAN ERE BAI**

Makina horietan ipiniko luketen *elkartasun kafea* Honduraskoa eta Perukoa da. Arrasateko Hiper Eroskin dagoen Harreman dendako makinan 35 zentimo kostatzen da.

Bidezko merkataritza orokorrean berpiztu nahi dute Harremanekoek, eta orain aurkezten duten ekimena hasierako pausoa izan daitekeela uste dute.

**EROSKI > 2008KO EMAITZAK**

## Eroskiren salmentak %18 igo dira, baina elkarteentzako kontu kontsolidatuak galerak ditu

Taldea osatzen duten elkarteentzako kontu kontsolidatuek 97 milioiko emaitza negatiboa izateak ez du zerikusirik jardun komertzialarekin, dio Eroskik

**GOIENKARIA > ARRASATE**  
Eroski Taldeak 208 milioi euroko irabaziak izan zituen 2008an, taldearen datuen arabera. Salmentak %18 igo ziren, eta irekitako dendek 2.200 lanpostu sortu zituzten. Caprabo Eroskin integratzeak eta denda berriak

irekitzearen gastuek, baina, kalte egin diete lortutako emaitza positiboari.

Eroskik 9.013 milioi euro fakturatu zituen iaz, 2007an baino %18 gehiago, eta fakturazio horrek 370 milioi euroko EBITDA edo sortutako baliabideak

eragin zituen. 2007an baino %7 gutxiago da hori. Eroski taldearen matriza den kooperatibak, bestalde, 208 milioi euroko irabaziak izan zituen.

Emaitza horiek badute puntu iluna, ordea: Eroskin parte hartzen duten elkarteentzako kontu kon-

solidatuek 97 milioi euroko emaitza negatiboa izan dute. Eroskiren esanetan, jardun komertzialarekin harremana ez duten arrazoiengatik gertatzen da hori: eurek azaldu dutenez, kontabilitatearen arrazoi teknikoaren ondorioa da hori, 2008an izandako ezohiko gastuek eragindakoa. Hor sartuko lirake Caprabo katea erosi izana eta denda berrien irekieraren gastuak.

**2.200 LANPOSTU BERRI**

Modu batera edo bestera, Eroskik emaitza horien balorazio positiboa egiten du. Zabaldu duten agirian esaten denez, 2008ko azken hilabeteetan merkatuak izan dituen zailtasunak kontuan hartuta, erakutsi dute egungo egoera ekonomikoan ere, elikagaien banaketaren negozioa sendoa dela.

**KRISIA**

## Elayn soldatak jaisteari uko ELAK

Zuzendaritzak proposatzen zuen %15eko soldata jaitsiera urte batez

**GOIENKARIA > ANTZUOLA**

Elayko zuzendaritzak egindako proposamenari –neurri nagusietako bat zen soldatak %15 jaitsia urte batez, eta %40ko Enplegu Erregulazio Espedientea ezartzea– uko egitea erabaki du ELA sindikatuak, enpresa horretan ordezkaritza duen hiru sindikatuak batek. Hala erabaki zuen ELAK eguenean egindako batzar baten. Elayn ordezkatuta dauden beste bi sindikatuak –LABek eta UGTk– baiezkota emana zioten proposamen horri.

ELAren esanetan, "egoera honetan, soldatak jaitsia ez da konponbidea, eta horregatik eman diogu ezetza proposamen horri". Gaineratu dute soldatak jaisteko inongo negoziatuz ez dutela parte hartuko.

**IRTENBIDE BARIK**

Horrenbestez, irtenbide barik jarraitzen du Antzuolako enpresaren egoerak. Apiril bukaeran, langileek batzarra egin zuten, eta gutxiarik, baina baiezkota eman zioten soldatak hiru urtez %15 jaisteko proposamenari; baina alde sei botokoa besterik ez zenez, sindikatuak erabaki zuten proposamenari uko egitea. Zuzendaritzaren azkeneko proposamenak hiru urtetik urte batera murriztu zuen soldatak jaisteko epea.

2008an gainera, 164 denda berri ireki zituen Eroskik, denera 2.200 lanpostu sortuz. Egundako Eroskiren sare komertziala 2.420 dendak osatzen dute, eta ia 53.000 lagun ari dira horietan lanean.

Caprabo Eroskiren sarera integratzea ere arrakastaz egin dutela adierazi dute arduradunek. Denera, 500 izan dira integratutako Capraboren dendak.

**2009RAKO ASMOAK**

2009ra begira, eta kontsumoaren jaitsieraren aurrean, Eroskik neurriak hartuko ditu eskatzaile gutxiago eta kompetentzia gehiago dauden merkatuan lehiaitzeko. Inbertsioak gutxiago izango dira, eta sarearen zabalkundea ere, lasaiagoa izango da. Eroskiren esanetan, helburua orain arteko jardura eta egoera finkatzea izango da.

auzorik auzo

**URIBARRI** > Arrasateko auzoa da Uribarri; Urdaixetan hasi eta Muxibarrerainoko tartea hartzen du auzoak. Azkenaldian industria gune asko egin dituzte bertan eta ondorioz nekazal kutsua galtzen dabiren auzoa da Uribarri.



Uribarriko elizaren aurrealdean Bergaretxe auzo-alkatea.

A.E.

Jone Bergaretxe > Uribarriko auzo-alkatea

## "Abenduan eguraldi txarra egiten duenez, abuztura pasa zituzten auzoko jaiak"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE  
Gorostiza baserrikoa da Jone Bergaretxe, Uribarriko auzo-alkatea. Azken urteak eman ditu lan horretan; ondorioz, auzoa ondo ezagutzen du. Horren adibide da 2007an idatzi zuen liburua: *Uribarri. Auzo baten historia*. Harekin izan gara auzoaren egoera aztertzen.

**Azken urteetan nabarmen egin du behera baserri kopuruak Uribarrin. Zein da egoera?**

Gaur egun 20 baserri inguru geratuko dira zutik. Adibidez, 1960an 60 baserri edo kale baserri zeuden auzoan. Hortaz, hutsik geratzen ari dela esan daiteke.

Garaia Berrikuntza Guneak zati handia kendu dio auzoari, baina aurrerapena dela esaten dute...

**Hainbat elementu daude auzoan hondatuta geratu direnak. Auzotarrek baduzue horiek errekeratuzeko asmorik?**

Bai, aurrerapen horiekin guztiekin baztertuta geratu dira auzoko hainbat elementu adierazgarri: adibidez, Barrenatxo errota edo Telleriako labea. Azken horren sistemak Gipuzkoan bakarrenetarikoa izan behar du.

Gustatuko litzaziguke Barrenatxo errota, Telleriako labea eta baita Mendiazpi zubia ere Garaia gunean kokatzea. Horrela, herritarrek bisitatzeke aukera izango lukete.

**Proiektu horretan, bide batez, landareak ere errekeratu gura dituzue.**

Polita izango litzateke ingurune guztian bertako landareak eta zuhaitzak sartzea. Modu horretan, 40 zuhaitz inguru jarriko genituzke.

**Zer ikus daiteke auzoan?**

Santutxo ermita gotikoa da, 1600. urte ingurukoa. Bestalde, Uribarriko eliza dago; arku erro-

manikoa dauka. Poliki-poliki eraiki zuten; dorrea, adibidez, 1880. urtekoa da.

**Noiz ospatzen dituzue auzoko jaiak?**

San Bartolome jaiak abuztuan ospatzen ditugu. Hiru egunez baserri giroko jaiak antolatzen ditugu: umeentzat lehengo jokoak egiten ditugu, Gorriti ekartzen dugu, lehenengo mailako bertsolariak... Auzo-bazkaria ere egiten dugu.

**Baina abenduaren 18an ere ospatzen duzue Ama Birjina- ren eguna.**

Bai, 1760. arte Ama Birjina- ren eguna izaten zen auzoko jaiak. Baina, abenduan eguraldi txarra egiten duenez, bideak elurrez beteak egoten ziren eta jendea ezin izaten zen elizara joan. Hortaz, udako santua aukeratu eta data aldatzea erabaki zuten. Gaur egun, oraindik, emakumeak elkartzen gara abenduaren 18an.

**Zeintzuk izan dira auzoak eman dituen pertsonaiak?**

Clara Ezkurra beata Erguinen jaio zen. Baita Pedro Villarrreal Berriz, Monterrongo lehenengo kondea. Ingeniari hidraulikoa zen hura.

Aramaio eta Deba arteko errekan dauden presak hark diseinatuak dira. Esposizio bat eskaini zioten Bilbon.

BERTAKO LANDAREAK

**'Betikolore' taldea sortu du auzoko emakume taldeak**

2007. urte inguruan auzoko emakumeek talde bat sortu zuten, bertako landareak errekeratu eta kontserbatzeko asmoz. Auzo lokalean elkartzen dira, eta han haziak ereiten dituzte; gero, landareak jendeari erakusteko. "Taldea oraindik ez da eratu elkarte moduan, baina asmoa hori da; modu horretan, dirulaguntzak jasoko genituzke", dio Bergaretxek. Landare guztiak kontserbatzea zaila denez, euren proposamena hauxe da: "Baserri bakoitzean landare bat kontserbatzea". Modu horretan, 20 bat landare izango lituzkete. Taldeak webgunea dauka: [www.betikolore.org](http://www.betikolore.org).

# Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

## Harpidedunen txokoa

Maiatzeko zozketa

Sariak irabazteko

**HARPIDETU!**

Tel.: 943 08 10 50

[harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)

Kuota: 40 euro

**LIBURUAK**

Umeentzat liburu sorta.  
BIDALI AG LIBURUAK 5533 zkra



**ESKOLA PUBLIKOAREN JAIAREN PACK-A**

Eskola publikoaren jaiaren Pack-a.  
BIDALI AG OBATU 5533 zkra.



**MUNDUMIRA PACK**

Mundumirako pack-a.  
BIDALI AG MUNDUMIRA 5533 zkra.



**LIBURUA**

Bernardo Atxagaren  
"Markak" liburua.  
BIDALI AG MARKAK 5533 zkra.



**JOKOA**

"AUSKALO" jokua +8 umeentzat.  
BIDALI AG AUSKALO 5533 zkra.



## SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA



**BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK**

J.L. Abuinen eskutik

**J.L. ABUIN / PUY BIDEBURU**

25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen

Mendia jauregia  
639 02 47 14

S. Josepe, 10  
943 77 01 33

Kiroldegia  
943 77 16 77

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZA dei bakoitzeko.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, halek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)

Martxoaren 1eko hauteskunderen ondorioz, EAJko Legebiltzarkidea dugu Jose Luis Garitano

(Arrasate, 1946). Ingeñari teknikoa, Bergarako Mayc lantegian, Miguel Altuna ikastetxe-

an eta Jaurlaritzan ibilitakoa da. Hain zuzen, Lanbide Heziketako arduraduna izan zen Gastei-

zen, 1981etik 89ra. Ondoren, 19 urtez jardun zuen Adegin, Gipuzkoako enpresarien elkartean.

Jose Luis Garitano > EAJko Legebiltzarkidea

# "Oposiziotik erantzukizunez lan egiten jarraituko dugu, gobernu baldintzatuz"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Arrasateko Uribarri auzoan jaioa, 9 urterekin Bergara etorri zen Jose Luis Garitano. Donostian bizi da gaur eta orain Gasteizen lan egitea tokatu zaio, Legebiltzarrean. Joseba Egibarren ondoko aulkia du eta industria, hezkuntza eta ikerketa gaitan jardungo du. Oposiziotik bada ere, EAJren ekarpena ezinbestekoa izango dela dio Garitanok.

**Boto eta eserleku gehien atara arren, oposizioan lan egitea tokatu zaizue, arrotza gertatu zaizuen oposiziotik, ala?**

Oposiziotik erantzukizunez lan egiten jarraituko dugu, proposamenak, programak eta soluzioak aurkeztuz eta gobernuaren lana baldintzatuz. Izan ere, oposizioan egon arren, gobernuak baino parlamentari gehiago ditugu eta kontuan hartu beharko gaituzte. Gure hizkuntza, kultura, aberria eta askatasunaren alde lanean jarraituko dugu eta azken urteotan lortutakoa zainduko dugu.

**Hasieratik mesfidantzaz hartu duzue PSE-EEK eta PPk egin dako gobernu akordioa.**

Abertzaleak jokoz kanpo uzteko estrategia izan da, argi eta garbi. Euskal Herria espainiarretako asmoa besterik ez dute, gure aberriaren askatasunaren kaltetan. Egiten ari diren esperimendu hau oso zaila da ondo ateratzea, baina ez daukate enpatxurik gure abertzaletasuna baztertzeko edozer gauza egiteko. 100.000 boto jokoz kanpo utzita, gezurra eta tranpa erabili dute gobernura heltzeko eta hauteskunderen aurretik ez dute esan paktu hau itxita zutenik.

**Jendeak hirukoa zigortu nahi izan zuela uste duzu?**

Hauteskunderetara ez zen hirukoa aurkeztu. EAJk lehen 22 parlamentari zeuzkan eta orain, berriz, 30. Beraz, gure kandidatura zigortu baino, saritu izan dutela esango nuke. Boto emaleek guregan konfiantza azaldu dute, aurretik erantzukizunez lan egin izan dugulako. Eta emaitzak ikusita, argi zegoen gobernuan zein egotea nahi zuten, EAJ izan delako irabazle.

**Ibarretzek alde egitea erabaki du. Nola baloratuko zenuke haren ibilbidea? Nor izango da haren ordezkoa?**

Geuk bakarrik ez, gizarte osoak baloratu du Ibarretxeren lana.



Jose Luis Garitano.

GOIENKARIA

Nagusiki hiru izan dira haren ekarpenak: gure etorkizuna erabakitze beharra mahai gainean jartzea; bakeari lehentasuna ematea; Espainia eta Euskal Herriaren artean akordio berri bat lortzea, eta, azkenik, Euskadi erregio aurreratuenetako bat izateko oinarriak jartzea.

Ibarretzek alde egitearekin ez dago hutsunerik. EAJk bere estrategiarekin jarraitzen du Euskal Herrian, 400.000 botoren babesarekin; baita Madril eta Europaren ere. Politikan une egokiak aukeratu beharra dago, ondo neurtu behar dira gauzak eta epe motzean aukeratu dugu Lehendakariartzarako hautagai berria.

**Bereziki mingarria izan da EAJrentzat Patxi Lopez sozialista izatea lehendakari berria.**

Lopezek berak badaki tokatzen ez zaion lekuan dagoela.

Tranpak eta gezurrak erabili ditu eta oraindik ere ez dugu haren programaren berri. Adar jotzea da. Zalantza handiak dauka jendartean, baita enpresa, langile eta instituzioen artean ere, eta ez gaude denbora galtze-

PSE-EE ETA PP GOBERNUAN

**"Abertzaleon kaltetan egiten ari diren esperimendua oso zaila da ondo ateratzea"**

DEBAGOIENA

**"Krisia gaintzeko baliabideak izan arren, 2010eko udara arte estu ibiliko gara"**

ko moduan, bizi dugun egoera kontuan izanda.

**Gernikako Juntetxeko ekitaldiak zeresan ugari eman du...**

Ikaragarria izan zen Espainiako armada eta polizia, eta Guardia zibila han ikustea; lotsagarria. Historikoki, Espainiako Erregeak etorri izan dira Gernikara Euskal Herriko Lege zaharrei errespetua erakustera eta oraingoan kontrakoa zirudien. Estatuaren ale bat erabilita hartu zuen Lopezek kargua eta hor, hasieran, Euskal Herria aipatzen da eta euskal herritarrei zuzendu beharrean hiritarrei zuzentzea nahiago izan zuen. Errespetu gutxikoa eta kontraesana iruditu zitzaidan.

**Eta Arantza Quiroga Legebiltzarreko presidente.**

Lehen plenoan ez zen gauza egun on euskaraz esateko ere;

gure hizkuntza menderatzen ez duen presidentea izatea onartezina da.

**Hona etorritz, nola ikusten duzu Debagoieneko egoera?**

Oraingo astean zabalduko dute Eibar-Gasteiz autobidea osorik eta hurrengo erronkak hauek lirake: ekonomiaren azpiegiturak modernizatzea eta dibertsifikatzea; Debagoieneko ospitale berria; Beasain-Durango errepeidea eta Abiadura Handiko Trena.

Ekonomia arloan, harreman zuzena daukat enpresa askorekin, Debagoienekoekin ere bai. Nahiz eta krisia gaintzeko baliabideak eduki eta enpresa txikiak eta ertainak ondo prestatuta egon, 2010eko bigarren seihilekora arte, estu ibiliko direla esaten didate eta batzuek itxi egin beharko dutela.



# Furia



## Gogoratzen?

Zatoz **kutxara**.  
Une egokia duzu zeure  
**Kutxa Aurreikuspen Planaz**  
pentsatzeko.

zer nahi duzu bihar?

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

 **kutxa**

## kale inkesta

## Zer iritzi daukazu eguenerako sindikatuek deitu duten greba orokorraren gainean?

**Pedro Maria Zubillaga**  
Erretiratua  
Arrasate

Sentimendu kontra-  
rriak dauzkat deialdi  
horrenganako: alde bate-  
tik, zentzuzkoa iruditzen  
zait sindikatuen eta lan-  
gileen haserre; bestalde,  
ez dut uste grebak ezer  
konponduko duenik;  
alferrik izango da.

**Bego Errasti**  
Langilea  
Arrasate

Greba egitearen aldekoa  
naiz. Gainera, leloarekin  
bat egiten dut: *Eurena  
eurek ordain dezatela*.  
Krisia langileen gaine-  
an utzi da, eta langileok  
ez daukagu hori jasan  
beharrrik. Hala ere, kon-  
ponbide zaila dauka.

**J. Antonio Gomez Segura**  
Langilea  
Arrasate

Grebaren aldekoa naiz.  
Langileengan jartzen  
dira krisiaren erantzuki-  
zuzkiak, eta hori ez  
da bidezkoa. Horregatik,  
uste dut protesta jende-  
tsua eta gogorra egin  
behar dela. Hala ere,  
egun bat gutxiegi da.

**Kenia Padilla**  
Langabea  
Arrasate

Ez nago lanean eta, hor-  
taz, krisiak zuzenean era-  
giten dit. Greba egitea  
beharrezkoa dela uste  
dut, enpresa handiek ez  
dute-eta inoiz galtzen.  
Txikiak eta langileak  
dira kaltetuak. Egoera  
gero eta okerragoa da.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

## BERGARA

## &gt; Masterreka kaleko espaloietan

Bergarako irakurle batek deitu digu Masterreka kaleko espaloien egoera "negargarriaren" gaineko kezua azaltzeko. Dio Masterreka kalean, "batez ere zerbaki bikoitietan", oso deserosoa dela espaloia. "Deserosoa eta estua" toki batzuetan. Gainera, dio "ez dauka inolako baldosarik, zementua besterik ez. Udalera ez du txikitarik gastatu urteetan Masterrekan" dio. Eta gehitzen du: Bideberriko lanak egiten dituztenean, "askoz ere arriskutsuagoa" izango dela, trafikoa handitu egingo delako.

## ANTZUOLA

## &gt; Antzuolatik Bergarara arteko kaminoa berriztatuta

Goierri aldetik Debagoienara beharrera egunero etortzen den irakurle batek ohartarazi digu Antzuolatik Bergarara arteko erre-  
pidea "oso txukun" laga dutela. Zorua konpondu dute eta kamio-  
na eraberrituta dago. Makina bat zulotan sartua naiz autoare-  
kin ia gorpila zulatzeraino, dio. "Orain eroso egiten dut bidaia".

## BERGARA

## &gt; Plazako azoka txikiaren osteko zikinkeria

Bergarako kaleetan geundela herritar batek ohartarazi digu zapatu goizetan San Martin plazan egiten den azokan, kaleko sal-  
tzaileen postuen horretan, kaxa eta plastikoz beteta lagatzen dute-  
la kalea, behin postuak kendutakoan. Eta eskatu nahi die honda-  
rrak batzeko edo zaborra batzeko ontzietara batzeko.

## ustek uste

Goiatz Arana

Txikitatik,  
artzain

San Isidro eguneko ganadu  
feria egin zuten zapatuan  
Antzuolan. Ganadu feria  
edo... badakizue, halako egunetan,  
animalien eta baserriko produk-  
tuen aitzakian, bestelako makina  
bat gauza ere ipintzen da salgai;  
Antzuolan eta non nahi.

Antzuolan ezohiko kasu bat  
ezagutu dut, ordea: sei ardi-Ursu-  
la, Arroxa, Krabelin, Kriselda,  
Sebastian eta Penelope- eta artzain  
bat. Berak hazitakoak omen dira  
seiak. Goizean goiz, egunero, egi-  
ten ei die bisita; ez lanera joan  
aurretik, ordea, eskolara joan  
aurretik baizik! Zenbat urte izan-  
go ditu, bada, Antzuolako artzain  
txikiak, hamar-hamabi? Nik uste  
nuen horrelakoak ez zirela ia gera-  
tzen, baina asteburu honetan iku-  
si dut baietz, eta poza eman dit.  
Entzun egin behar zenuten base-  
rritar jantzitako mutil gaztea bere  
artalde kozkorrari buruz hizketan.  
Entzun eta ikustekoa. Bai horixe!

## zorroztailea



Markos Balentziaga

## Murgiltze-planak

"Mayor Oreja harro agertu da  
birraitonak seme-alabei debekatu  
zielako etxean euskaraz egitea eta  
"mandioan gorde beharrean, espai-  
niera menderatzeko ahalegina"  
egin zuelako. Orejak nahiko luke  
Europako erakundeetan bakarrik  
bizpahiru hizkuntza erabiltzea".

Noticias de Gipuzkoa  
> 2009-05-15

Jaime Mayor Orejak badaki ahoa zabaltzen, bai horixe, eta hori  
español dotore-dotorian egiten dau gañera, gauza biribil-biri-  
billak esateko. Oraingo honetan jakituria pedagogikuaren biz-  
kar gañera igo dau eta handik, hankalatraba jarritta, munduari  
argi egin dotsa.

Eta zer esan dau ba J. Mayorrek talaia horretatik? Hara: Iba-  
rrangeluko artxi-aittattak (ala Noe-ren kofiatuaz ziharduan?) eus-  
keraz egittia debekau zebala etxian eta horri eskerrak españolez  
egiten ederto baten ikasi zebela aittattak eta enparauak; eta gero,  
gerokuak, jakiña.

Batian eta bestian kritikak harrotu dittue J. Mayorren ber-  
bok; baña zuzen begiratuta, horixe ez da ba hizkuntzak ikasteko  
"immersiñua" edo murgiltzia deitzen doguna? Ahor, mayortarren  
aurrerapen pedagogiko eta praktikua!

Eskola-ikastoletako murgiltze-  
kontuek hainbeste zeresan eragi-  
tten daben garai honetan, J. Mayo-  
rrenian aspaldittik dauke konpon-  
duta gorabeheria. Nora begira dago  
eskola-jendia Mayorri asesoria  
eskatu barik?

Batenbatek sasoi hartako etxe-  
giruan, Ibarrangelua euskaldu-  
nian, española era horretan etxe-  
ratziari (aurreku eta guzti izan ete  
zan?) kirten samarra iritziko dotsa,  
akasorik akasoenian...

Ba emoten dabenez, kirten  
horrek luze-luze eta zihero ihartu  
barik segitzen dau mayortarren  
artian. Ondorio luzeko murgiltzia  
izan zan, eta zorionekua, Jaimeren  
berbatan.

Hau da hau, mundua! Edo hobe-  
to esanda: hau da hau familia!  
Eta familixan dihardogunez, gure  
artian, zergatik ez dotse J. Mayo-  
rrek hizkuntzak ikasteko errezeta delicatessen horixe bera ezar-  
tzen alderdikide dittuan Quirogari, Basagoitiri, Oyarzábali eta  
baita orain Euskadiko politikan harro-harro dabizten beste  
batzuei?

**"Zuzen begiratuta,  
horixe ez da ba  
hizkuntzak ikasteko  
"immersiñua" edo  
murgiltzia deitzen  
doguna"**

**"Zergatik ez dotse  
J. Mayorrek  
hizkuntzak ikasteko  
errezeta  
delicatessen horixe  
bera ezartzen  
Quirogari..."**

## Goienkaria

Argiraraztailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Eneko Azkarate Erredakzioa Maider Arregi, Jasone Zabala, Goiatz Arana Oinarrizko diseinua Goio Arana Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA  
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goiena.comORDEZKARITZAK  
ARRASATE 20500 Otarora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: arrasate@goiena.comARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.comPublizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



ASTELEHENEKO GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak  
diruz lagundutako aldizkariaGipuzkoako  
Foru AldundiaEUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaEusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak

Arrasate > 16 Bergara > 17 Oñati > 18 Aretxabaleta > 19 Eskoriatza > 19 Antzuola > 20 Aramaio > 20 Elgeta > 20 Leintz Gatzaga > 20



> **ARRASATE**  
Poker karta-joko zale batzuek elkarte sortu dute, pokerraren "irudia garbitzeko" > 15



> **BERGARA**  
Uztailerako ipinita egongo dira Agorrosin eta Ipintzarako aldagela berriak > 17



> **OÑATI**  
Zaborra batzeko Udalaren tasa %21 igoko dute, Mankomunitateak hala eskatuta > 18

BERGARA > ETXEBIZITZAK

## Ozaetan egiten ari diren 27 etxe tasatuek badute dagoeneko jabea

### 91 ESKATZAILE

Ozaetako etxeetarako 91 pertsonak eman zuten izena

### 27 ETXE

Guztira 32 etxebizitza egingo dituzte, baina 27 zozketatu dira bakarrik

### BI URTE BARRU

Etxebizitzok, bi urte barrurako ematea espero dute

JASONE ZABALA > BERGARA

Bergarako Ozaeta auzoan eraikitzen diharduten babes ofizialeko etxebizitzak joan den egubakoitzean zozketatu zituzten. Osoko bilkura aretoa lepo bete zen zozketarako; bertan zauden Agurne Barruso Bergarako alkatea, notarioa eta Juan Inazio Galdos Bergarako Udaleko abokatua; hark azaldu zuen zozketaren prozesua.

Aretoan zeudenetatik pertsona bat aukeratu zuten kutxatiletatik izena ateratzeko; kutxatila batean, zozketan parte hartuko zuten pertsonen izenak zeuden, eta bestean zozketatzen ziren etxebizitzena; ordu erdi iraun zuen zozketak. Guztira, 32 etxebizitza eraikitzen ari dira, baina, egubakoi-

tzean 27 zozketatu zituzten. Izan ere, gainerako bostak, Zubiaurren duela hiruzpalau urte eraitsi zuten etxe bateko bizilagunak kokatzeko erabiliko dituzte. Zozketan 91 eskatzaile egon dira. Esleitu diren 27 horietatik bi ezgaituendako zeuden gordeta, baina horietarako eskari bakarra jaso zuten, bakarra banatu zuten.

### ARETOA BETETA

Hiru logelako hamar etxebizitza zeuden eta bi logelako hamabost. Hiru logeletako etxebizitzetarako lau pertsonak emana zuten izena eta beste sei etxebizitzak bi logelako etxebizitzak aukeratu zituzten artean zozketatu ziren.

Bittor etxegilea ari da etxebizitzok eraikitzen eta Bergarako Udala arduratuko da zozketa eta gainerako kudeaketaz. Eraikitzen ari diren etxea, 5.190 metro koadro inguruko orubean dago kokatuta eta etxebizitzaren prezioa 105.000 euro eta 142.000 euro bitartekoa da. Atari bakarra du eta behe solairua eta beste hiru solairu izango ditu. Bi soto ere baditu garajeendako eta trastelekuak ere bai.

Hori bai, kontuan izan behar da zozketaren emaitza ez dela izango behin betikoa. Onuradunen datuak konprobatu egiten dituzte lehenengo; izan ere, hala-koetan askok atzera ohi du; tokatu zaien zerranda ofiziala asteon aterako dutela esan zuten Udaleko arduradunek. Hori horrela, etxerik tokatu ez zaien pasako dira itxaron zerrendara eta bajak baldin badaude, tokatu ez zaien sartuko dituzte onuradunen zerranda-zozketan, irten



KUTXAK Bi kutxa erabili zituzten: batean, zozketan izena eman zutenak zeuden eta bestean etxebizitzaren zenbakiak.

JASONE ZABALA

diren ordenan. Etxeok gutxi gora behera bi urte barrurako ematea espero da.

### LORTU ZUTENEN POZA

Etxebizitza lortu zutenen artean egon ziren poz aurpegi ugari. Zozketan beraien izena esaten ez zutela ikusirik, poliki-poliki aretoa uzten joan zen jendea. Bestalde, etxebizitza tokatu zitzaizkien asko amaiera arte gelditu ziren aretoan; Horietako bi, Maider Urbina eta Maider Beristain izan ziren. Biak oso pozik zeudela adierazi ziguten bie tokatu zitzaizkien etxebizitza bana, eta gainera opari ezin hobe izan zen Maider Beristaindako, egubakoitzean bere urtebetetzea izan zen-eta. Maider Urbina ere pozik zegoen, berari ez ezik, bere anaiari ere tokatu egin zitzaizkion beste etxe bat.



POZIK Maider Urbina, Maider Beristain eta honen ama oso pozik.

J.Z.

DEBAGOIENEAN EGINDAKO BESTE ZOZKETA BATZUK

### Oñatin, San Martingo babes ofizialeko etxeak eta Arrasaten Zerrajerakoak

Maiatzaren 15ean zozketatu zituzten Oñatin babes ofizialeko 43 etxebizitza. San Martinekoez gain, zozketa berrietarako datak ere zehaztu zituen Oñatiko alkate Lourdes Idoigak: ekainaren 12an Ugarkalde auzoko 5. eta 6. zenbakietan 40 etxe zozketatuko dituzte; eta uztailan beste 12 etxebizitza Kasablanka iparrean. Bi horietan Etxebideko zerranda bera erabiliko dute. Gainera, irail eta urri aldera, beste 116 etxebizitza zozketatuko dituzte. Arrasateko, bestalde, Zerrajera gunean bukatzen diharduten babes ofizialeko beste etxebizitza sorta bat La Caixa-rena da. 148 etxebizitza, guztiak ere, errentan emateko eta martxoan zozketatuak.

ARETXABALETA &gt; PIRRIKX ETA PORROTX

## Pailazo ezagunen zaleek herriko plaza bete zuten

'Piratak' ikuskizuna eskaini zuten, Otala Zelai egunari ongietorria egiteko

gozatzeko. Bazirudien plazak gainezka egingo zuela: neska-mutikoak lurrian eserita jarri ziren, erdian, eta haien bueltan multzo zabala osatu zuten gura-soek.

### EGURALDI ONA LAGUN

Kultura Sailak antolatu zuen ikuskizuna eta egingo zuen egurraldiaren beldur zen. Azkenean, giro eguzkitsua izan zen, ordea, eta etxeko txikiek gozatu ederra hartu ahal izan zuten.

GOIATZ ARANA &gt; ARETXABALETA

Pirritx eta Porrotx pailazo ezagunak Aretxabaletan izan ziren bariku arratsaldean, *Piratak* ikuskizunarekin, eta jarraitzaile mordo bat zen emanaldiaz



Argazkilariak ere agurtu zituen Porrotx pailazoak.

OIHANE AGIRRE



JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATE &gt; AZOKA BEREZIA

## Baserriko produktuen salmenta ondo joan da

Zapatuan egin zuten Arrasateko Seber Altube plazan, baserriko produktuen lehen azoka berezia. Herriko zortzi bat baserriarrek jarri zuten postua eta gustura geratu ziren, jende asko ibili ez bazen ere, joandakoak erostera joan zirelako. Baserrian ez dago produktu askorik momentuotan, baina eramandako ia dena saltzea lortu zuten.

BERGARA &gt; GAZTE TOPAKETAK

## Jolas egin, herri kirolean lehiatu eta bertan prestatutako paella jan zuten



Herriko gazteek eta Tolosako musikariek elkarrekin bazkaldu zuten.

GOIATZ ARANA

Herriko gazteak erdiguneko pizgarri izan ziren zapatuan. Giro polita jarri zuten

GOIATZ ARANA &gt; BERGARA

Ondo joan ziren zapatuan egingako Gazte Topaketak. 40 bat neska-mutilek parte hartu zuten. Indarrak neurtu zituzten herri kirolean eta sukaldean zer moduz moldatzen diren erakutsi zuten, eurek prestatutako paella jan zuten-eta *The Jones Brothers* txarangak jo zuen musika.

ARETXABALETA &gt; EUSKARAREN EGUNA

## Zapatuko ospakizunekin bukaera borobila eman diote Euskararen Asteari

Loramendik Euskararen Egunak emandakoaren gaineko balorazio oso positiboa egin du

GOIATZ ARANA &gt; ARETXABALETA

Zapatuan, Euskararen Eguna ospatu zuten Aretxabaletan eta, horrekin, amaiera eman zitzaion joan den asteko martitzenean abiarazitako egitarauari. Egurraldia lagun izan zuten zapatuan eta, hori horrela, antolatutako ekitaldi guztiak eraman ahal izan zituzten aurrera, ez nolana, gainera: izandako partehartze zabala azpimarratu dute Loramendi Euskara Elkartetik.

Ia 100 lagun batu ziren herri bazkaritarako eta, ostean, herriko onenak aukeratzeko probei ekin zieten: ahulki jokoan, erratz jaurtiketa eta antzerako beste zeregin batzuetan lehiatu ziren esku hartzera animatu zirenak, eta barre mordo egin zuten haur, gazte nahiz helduek horien erakustaldiekin.

Arratsaldean, Oskorriekin kantuan jardun zuten, plazan; eta, iluntzean, ohiturari jarraituz, Larrin-dantzaren txanda izan zen, ia etxekoak diren Bilboko gaitarien laguntzarekin.

EGUNETAKO EGITARAUUA

Zapatuko ekitaldien gaineko balantze ezin hobea egin dute, hortaz, antolatzaileek, baina Euskararen Astea, bere osotasunean, azpimarratu nahi izan dute: aipamen berezia egin diote martitzenean saioa egindako Arelarre antzerki taldeari. Gaitasun handia dutela eta erakustaldi aparta egin zutela esan digute.



Herri bazkaria, eguerdian.

J.A



Aretxabaletarrek kantuan egin zuten, Oskorriekin.

J.A

**J. ELORZA**  
behi haragirik hoberena  
PREZIO ONENEAN

BERTAKO BASERRIETAN HAZITAKO  
KALITATEZKO BEHI HARAGIA

"gure harategian  
merkatuko hoberena prezio  
onenean topatuko duzu"

**BERME OSOKO TXAHAL HARAGIA PREZIORIK ONENEAN**

- GIOKELA markako txahal haragiaren salmentarako baimendutako hategia gara.
- Elosuko Agerre baserriko txahal haragia saltzen dugu.

Haragi xamurra, naturala eta osasuntsua zure mahaian jartzeko.  
**GIOKELA**, geurea!

J. Elorza Harategia - Juan Bengoa 1 - Tel.: 943 79 75 80 - Arrasate



Antzuolako azokan bertako produktuak erosi eta dastatzeko aukera ezin hobea izan zuten bertaratutakoek. ENEKO AZKARATE



Musakolako jaietan Urrezko astokiloek jendea erakarri dute. J.A.



Kasablankako mahai-futbol txapelketa. M.A

SAN ISIDROAK > AZOKAK ETA FESTAK DEBAGOIENEAN

# Baserritarren zaindaria, jai egun handia ibarrean

San Isidro jaiak Antzuolan, Arrasaten, Oñatin eta Eskoriatzan ospatu dituzte egunotan baserritarrek

**MAIDER ARREGI > ARRASATE**  
Ganadu eta barazki azokez gozatzeko aukera paregabea izan da egunotan Debagoieneko herri askotan. Euskal produktuen azokak, Eskoriatzara, Antzuolara eta Arrasatera jende ugari erakarri du. Auzoetako jaiak ere ospatu dituzte bai Arrasaten eta baita Oñatin ere. Arrasateko Musakolako jaietan jende mor-

doa ibili da. *Urrezko astokiloek* kurioso asko erakarri zuten. Aipatzekoa ere, auzoko pertsonaia xelebreekin egindako moda desfilea. Oñatiko Kasablankako jaietan ere eguraldi ederra lagun, auzokide askok hartu dute parte festetan. Mahai-futbol txapelketa eta gezi jaurtiketa ikastaroak arrakasta handia izan dute auzoko gaztetxoaren artean.

ANTZUOLA ETA ARETXABALETA > BIDEZKO MERKATARITZA

# Bidezko merkataritzak izan duen harrerarekin gustura antolatzaileak



Aretxabaletan, Harremanek jarritako saltokiak arrakasta izan zuten. MIRARI ALTUBE

Zapatuan Aretxabaletan eta Antzuolan jarri zituzten bidezko merkataritzako azokak

**M.A. > ARETXABALETA**  
Harreman eta Anelkarreko kideak pozik azaldu dira bidezko merkataritzak zapatuan izandako harrerarekin. Inigo Trueba Harremaneko kideak, azaldu duen moduan, "balorazioa positiboa da eta iazkoarekin alderatuta salmentak hobeak izan dira Aretxabaletan eta Antzuolan".

BERGARA > EGUBAKOITZETAKO ERROMERIAK

# Munibe plaza dantzan barikuetan

Gazte Alai dantza taldeak eta Laja II eta Narbaiza trikitilariak giro bikaina jarri zuten

**M.A. > BERGARA**  
Bergarako Gazte Alai taldeak dantza erakustaldi polita egin zuten barikuan Munibe plazan.

Ondoren, Laja II.ena eta Narbaiza trikitilariak dantza giro ezin hobea jarri zuten.

Maiatzaren 23an izango da azkeneko erromeria. 20:30ean, afaria egongo da erromeria sortari amaiera emateko eta afal

ondoren erromeria hasiko da, Izer, Alabier eta Lutxurdio trikitilarien eskutik.

**AFARIRAKO TXARTELAK SAGAI**  
Bergarako kultura etxean eta Pol-Pol tabernan daude azkeneko erromeriarako sarrerak salgai 12 eurotan. Euria eginez gero, erromeria eta afaria Semi-narioko patioan egingo dira.



Gazte Alai taldeak dantza erakustaldi polita egin zuten. JOSETXO ARANTZABAL

ARETXABALETA > OTALA ZELAI

# Paella koloretsu eta ikusgarriak nagusi

Guztira, 19 lagunek parte hartu zuten Ojala Zelaiko paella lehiaketa arrakastatsuan

**M.A. > ARETXABALETA**  
Atzo, domeka ospatu zen Ojala Zelaiko Eguna Aretxabaletan. Eguraldi paregabea lagun, ehunka lagun batu zen bertan egun pasa ederra egiteko asmoz. Antolatzaileak gustura, bai paella lehiaketak izandako harrerarengatik, eta baita Herri Krosaren arrakastarengatik ere.

**PAELLA EDERRAK**  
Zapore eta kolore askotariko paellak egin zituzten 19 parte hartzaileek. Bi taldetan banatu zuten, epaileen lana arintzeko. A taldean, Fernando Retege izan zen nagusi. B taldean, berriz, Koldo Zubillagaren paella irabazi zuen. Biek 100 euroko saria eskuratu zuten.



Paella ikusgarriak egin zituzten parte hartzaileek. JOSETXO ARANTZABAL



Pertsona bat, igogailura sartzeko Bizkaia etorbideetik daukan sarreraren kanpoko aldean.

U.M.

## ZERBITZUAK &gt; IGOGAILU PUBLIKOAK

# Muxibarko igogailu publikoa erabilgarri dago

Oraingoz, 24 orduko zerbitzua eskaintzen du Bizkaia etorbideetik Gorostizako terrazaraino

## UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Denboralditxo batean probak egiten ibili ostean, dagoeneko guztion eskura dago Arrasateko aurreneko igogailu publikoa: Bizkaia etorbidekoa (Muxibarko igogailua).

## ORAINGOZ, 24 ORDUAN

Bestela esanda, Bizkaia etorbideetik Gorostiza auzoraino igogailuan igotzeko aukera dago orain. Igogailu berria publikoa da; beraz, edozeinek erabil dezake, ez bakarrik inguruko auzotarrak. Eta igogailura iritsi aurretik dagoen atea sarraila duen arren, ez dago giltzarekin itxita.

Horrez gainera, oraingoz, 24 orduko zerbitzua ematen du. Hala jakinarazi dute Zerbitzu Saitetik: "Ikusi egin beharko dugu gero zelan funtzionatzen duen, eta gero, akaso, aztertu beharko dugu ordutegiren bat ipini beharreda, baina oraingoz, 24 orduan dabil", gaineratu dute.

Zortzi lagun kabitzen dira Arrasateko lehen igogailu publikoan; kilotan, 630 kilo.

## BEHETIK GORA, ZUZEN

Igogailua Bizkaia etorbideko garaje berrien barrutik doa, zero-tik bederatzigarren solairura zuzenean; hau da, ez da bidean

geratzen. Beraz, garajeen eraikina dituen bestelako solairuetara joateko ezin da igogailu publikoa erabili; horretarako, garajeek eurek duten igogailu partikularra erabili behar da.

## SOLAIRUA GEHITZEKO ASMOA

Edozelan ere, komeni da gogora ekartzea Bizkaia etorbideko igogailu publikoari beste solairu bat gehitzeko asmoa daukala Arrasateko Udalak. Igogailua Larragaineraino iristea da Udalaren asmoa. Egokitzapen obra hori egin ahal izateko azterketa tekniko egiten dabilta orain, eta, Obra Saitetik jakinarazitakoaren arabera, laster entregatuko dute txostena udaletxean. Muxibarko garajeak egin dituen enpresa berak egin du txosten hori.

## Hizkuntzen aldeko hitzarmena

Hiru-eleduntzea. Hori da Mondragon Taldeko Arizmendi Ikastolak eta Mondragon Lingua hizkuntza akademiak landu gura dutena Arrasaten. Horretarako hitzarmena sinatu dute; "historikoa", euren esanetan, "Debagoienan hiru-eleduntzea sustapenerako esparruak ezartzeko". Hala, "gizartearen sentsibilizazio handiagoa" lortu gura dute "hiru-eleduntzearen" erronkan.



GOIENKARIA

## MAIATZAREN 21EKO GREBA &gt; MOBILIZAZIOAK

## Grebaren harira protestak izango dira gaurtik eguenera

Gaur, astelehena, elkarretaratzea egingo dute, 19:00etan, Seber Altube plazan

## U.M. &gt; ARRASATE

Gaurtik eguenera hainbat protesta egingo dituzte Arrasaten, eguenera grebaren alde. Hain justu, gaur, astelehena, elkarretaratzea egingo dute Seberren eta gero grebaren gaineko kartelak ipintzeko dei egin dute.

Etzi, maiatzaren 20an, berriz, kalejira zaratatsua aterako da Musakolako kiroldegitik; San Andres auzorainoko bidea egingo dute.

## PIKETEAK ETA MANIFESTAZIOA

Grebaren egunari dagokionez, berriz, goizean goizetik enpresen sarreretan pikete informatiboak izango direla iragarri dute (05:30). 11:00etan, berriz, Donostiako manifestaziora joa-

teko autoak aterako dira Arrasatek, eta bukatzeko, 18:30ean manifestazioa egingo dute Arrasaten.

## EZKER KOLOREKO BABESA

Egunotako protesta ekitaldi horiekin eta, oro har, grebarekin bat egin dute honako sindikatu, alderdi eta bestelako enpresen Arrasateko ordezkariak: LAB, ESC, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuak, Ezker Atertzalea, Aralar, Zutik eta Alternatiba alderdi politikoek eta Euskal Herrian Euskaraz, Bilgune Feminista, AGAKO, AHT Gelditu Elkarlana, Ikasle Atertzaleak, Gazte Independentistak eta Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren ordezkariak.



Greba babestu duten sindikatu, alderdi eta elkartetako ordezkariak, plazan. U.M.

## oharrak

## ERRETIRATUAK

## &gt; Platja D'Arorako lekuak

Abaroa egoitzatik abisatu dute Platja D'Arora (Girona) joateko txartela erosi dutenek bigarren zatia ordaindu eta txartela hartu behar dutela egoitzako bulegoan. Eta iragarri dute leku libreak badaudela.

Bestalde, urteko kuota (6,50 euro) ordaintzeko epea luzatu egin dute, maiatzaren 29ra arte.

## EMAKUMEAK

## &gt; Ekin Emakumeak Elkartearen batzarra, gaur

Ekin Emakumeak elkarte bera, elkartearen lana zein kideak ezagutzera emateko batetik, eta lanerako boluntarioak erakartzeko, bestetik, batzarra deitu dute gaurko astelehena. 18:30ean egingo dute batzarra, elkarteak Pablo Uranga kalean duen egoitzan.

## ETORKINAK

## &gt; Arrasateko Immigrazio Plana

Immigrazio Planaren barruan bigarren batzarra egiteko deialdia egin dute bihar, martitzena. 18:30ean Kulturateko Loramendi aretoan.

Etorkinei begira egin eta lan du beharreko *Etorrera, harre-ra eta sare sozialak*, horixe da biharke batzarrean aztertuko dutena. Interesa duen edozein joan ahal da.

## HERRI ESKOLA

## &gt; Herri Eskolako jaia

Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkarteak ikasturte amaierako jaia prestatu du maiatzaren 20rako, eguaztena. 17:00etan hasiko dira ekitaldiak, puzgarriekin; gero, 17:30etik 19:30era Txatxilipurdirekin jolasak, tailerrak eta disko jaia egingo dute. Eta iragarri dute, baita ere, Euskal Eskola Publikoaren XVIII. jaiako materiala izango dela salgai.

## IKASTOLA

## &gt; Erizaintzako jardunaldiak

Erizain laguntzailendako jardunaldiak antolatuta ditu Arizmendi Ikastolak, maiatzaren 20rako. Hala, eguaztenean, 09:30ean hasi eta 14:00ak arte bost hitzaldi izango dira; tartean San Juan de Dios eta Eskualdeko Ospitaleko profesionalak. 40 lagunek parte hartuko dute.

Juan Carlos Santana, 'Katala' > Arrasate Poker elkarteko kidea

# "Pokerraren irudia garbitzea eta jendeak kirol moduan hartzea da gure helburua"



Katala, kolore-eskailera errealekin, elkartearen etorkizuneko egoitzan.

J.B.

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

"Pokerra ez da etxea, emaztea eta sosa guztiak galtzen den jokoarekin irudikatu behar", esan digu Juan Carlos Santana *Katala*-k, Arrasate Poker elkarteko kidea. Zargalde kaleko Arrogio taberna ohian zabaldu gura dute egoitza, igarobide guztiak ondo joango balira, irail edo uztaileko. Etorkizuneko egoitza hartu gaitu, nola ez, poker mahai baten bueltan.

**Orain urtebete hasi zineten proiektuarekin. Nola?**

Pokerra asko gustatzen zitzaien joko moduan, baina orduan aukera bakarra kasinoetara joatea zen. Kasinoetan garai hartan hilean behin egiten ziren txapelketak eta oso garestiak izaten ziren; gure baliabideetatik kanpo. Beraz, gure erara jokatzeko elkarte sortzea erabaki genuen.

**Zer lortu duzue urtebetean?**

Egia esan, ezer gutxi, asko borrokatu dugun arren. Aholkularitza eta abokatuekin izan gara, eta baita Udalarekin ere. Udalak kultura jolas elkarte moduan jarduteko aholkatu digu eta hala egingo dugu, poker kluba erakundetzea gura dugulako.

**Eta nola doa elkartearen erakundetze prozesua?**

Eusko Jaurlaritzari baimena ematea eskatzen diogu, baina jakina da halako kontuek luzerako ematen dutela. Gainera, pokerraren inguruan legea hutsunez beteta dagoenez, ez dakigu nola irtengo den dena. Guk, finean, poker zaleak bildu eta pokerra

herri mailan sustatzea gura dugu, edozein egunetan egoitza ixtera etorriko diren beldurrik izan gabe. Izan ere, Sevillan eta Kantabriar, esaterako, zenbait lokal itxi dituzte eta sekulako isunak jarri. Hala ere, lokal horiek dirua irabazteko asmoz zabaldu ziren, modu ilegalean. Eta hori da, hain justu, guk egingo ez duguna.

**Irabazi asmorik gabe eta legearen barruan, hortaz.**

Hala da. Dena legezkoa izatea gura dugu. Adin txikikoek, esaterako, ezin izango dute jokatu.

Pokerra sustatzea da gure helburua. Hots, pokerraren irudia garbitu eta jendeak kirol moduan hartzea, xakea bailitzan, adibidez. Badakigu eta Arrasaten oso jokalaririk onak daudela. Poker klubak benetan jokalaririk onak direnak babestuko litzuzke txapelketa handietan parte har dezaten.

**Bazkideez osatutako elkarteak izango da. Zenbat zarete orain?**

Dozena bat lagun ibili ginen proiektua martxan jartzen. Elkartearen berri ematen hasi ginene-

tik [orain gutxi] 47 eskakizun jaso ditugu, eta egoitzan gehienez 30 lagunek jokatu dezakete aldi berean, hiru mahairendako lekua baitago. Izena ematea zabalik dago, helbide honetan: [www.arrasate-poker@hotmail.com](mailto:www.arrasate-poker@hotmail.com). Elkartearen guztion artean erotea da asmoa, oinarritzko arau batzuk errespetatuz. Gastuak bazkide guztien artean ordainduko lirateke; egin ditugun kalkuluen arabera, hilean 20-30 euro inguru.

**Noiz zabaltzeko asmoa duzue?**

Lokala orain bertan zabaltzeko moduan dago, baina baimena behar dugu. Hala ere, baikorrak gara eta espero dugu irailean edo urrian zabaltzea.

**Pokerrak gogor astindu du Euskal Herria, eta Arrasate ez da salbuespena. Zer uste duzue pokerraren boom horretaz?**

Telebistan poker saioak jaio dira bat-batean, eta hor interes ekonomikoak daude. Izan ere, saio horiek guztiak poker webguneek egindakoak dira, dirua irabaztea helburu dutenak.

Baina, aldi berean, ondo dator kigru, poker zaletasuna ere bultzatu dutelako. Arrasaten hainbat taberna eta gazte lokalatan pokerraren jokatzeko delako soberran dakigu. Guk poker zale horiek gure elkartearen batzea gura dugu.

**Zer deritzozu Internet bidezko poker partidak jokatzeari?**

Ondo dago, modu kontrolatu batean egiten bada. Hala ere, oso arriskutsua da eta ia kontrolatu gabe, dirutza gal daiteke.

**"Pokerraren inguruan legea hutsunez beteta dago eta ez dakigu nola irtengo den dena"**

**"Taberna eta gazte lokalatan jokatzeko delako soberran dakigu. Guk poker zale horiek batzea gura dugu"**

## > PINTURA Bihar hasiko da Kulturateko pintura ikastaroa

Pintura zaletasuna ukaezina den zerbait da Arrasaten. Bada, martitzenetik igandera pintura ikastaroa emango da Kulturateko klaustroan. Bihar hasiko da, eta klaseak arratsaldean emango dira. Orduz zehatza honakoa da: 17:30etik 20:30era.

## > ZINEMA 'Lejos de la tierra quemada' filma gaur Amaia antzokian

Gaur zinema izango da protagonista Amaia antzokian. Guillermo Arriagak zuzendutako *Lejos de la tierra quemada* film interesgarri bezain gogorra botako dute. Emaldiak 20:30ean izango da.

## Celestino Uriarte gogoan, haren jaiotzaren mendeurrenean

Celestino Uriarte Bedia arrasatearra, Dragones batailoilaren bultzatzailea omendu zuten joan den egunean Laubide plazan, borrokalari komunista jaio zela 100 urte bete ziren egunean. Omenaldi berezia Zutik alderdiak antolatu zuen.

18:00etan hasi zen ekitaldian, Uriartez gain, gainonerako Dragoiak batailoiko kideak ere gogoan izan zituzten. Julia Monjek, Zutik alderdiaren izenean, testu bat irakurri zuen, eta ondoren Juan Ramon Garaik hartu zuen hitza, bertsoetan egiteko.



ARANTZAZU EZKIBEL

Bibi Andueza &gt; Bubisher elkarteko kidea

# "Ardura da udan ume sahararra etxean hartzea, baina gauza on asko ere ematen dizkizu"

MONIKA BELASTEGI &gt; BERGARA

Aurtengoarekin hiru izango dira Bubisher elkarteak, sahararren aldeko elkarteak, udan umeak ekartzeko kanpaina abiarazten duena. Abiarazi berri dute, gainera; aurreko astean egin zuten batzar informatiboa, umeok hartzeko jarraitu beharreko prozeduraren berri herriarrei emateko, besteak beste. Bibi Andueza da elkarteko kideetako bat eta lerrootan, prozedura horren berri emateaz gain, ume sahararrek Aljerian, Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuan bizi duten egoeraren berri ere eman digu.

**Aurten ere abiarazi duzue udan ume sahararrak etxean hartzeko kanpaina.**

Urte asko duen kanpaina da, Bubisherrendako hirugarrena, eta helburua da uztaile eta abuztuaren, 7 eta 12 urte arteko ume sahararrek ere oporrak dituztela aprobetxatuta eta han bero handia egiten duenez, bada, umeak hona ekartzea gauza ezberdina ezagutzeko, beste kultura batzuekin hartu-eman izateko, osasun azterketa egiteko, beste elikagai batzuk jan eta apur bat sendotzeko...

Hori guztia, alde batetik; eta

**"Sahararrek 32 urte daramate erbestean, egoera gero eta larriagoan, gero eta janari eta sendagai gutxiago iristen zaielako"**

**"Umea etxean hartu nahi duenak dei dezake 607 41 76 07 zenbakira, eta informatuko dugu"**

bestetik, gogora ekartzeko eta ez ahazteko herri sahararrak bizi duen egoera. Beti esaten da umeok direla haien arazoaren enbaxadore. Umeak hona ekartzea beti da aitzakia sahararrek bizi duten egoeraz berba egiteko.

**Izan ere, 32 urte dira erbestean, Aljerian errefuxiatuen kanpalekuan daudela.**

Bai, halaxe da. Eta beti entzuten den arren egoera larriandaudela, bada, egia da, eta gero eta larriagoan, gainera; izan ere, laguntzak, oro har, gutxitzen doaz, eta eurei ere geroago eta

janari gutxiago eta geroago eta sendagai gutxiago iristen zaizkie.

**Noiz etorriko dira umeak?**

Data zehatzik ez dugu oraindik, hegaldien datarik oraindik ez dagoelako, baina seguruenik izango da uztailearen 10aren inguruan, eta irailaren 10ean joango dira.

**Zer suposatzen du halako umea etxean hartzea?**

Esfortzua da familiarendako. Planak aldatu egiten dira, apur bat. Dena den, ezberdina da seme-alabak dituen familia izan ala ez. Izan ere, etxean umeak izanez gero errazagoa da, umeen ordu-tegiak, jakiak, denbora nola erabili... badakitelako gurasoek eta norberaren umeak eta sahararrak, bada, berdina dira. Dena den, seme-alabak dituzten familiendako ere bada beste ardura bat; esaterako, osasun azterketak egitera eroan behar delako umea. Bestalde, ezberdina da, baita ere, umea lehenengoz etxean hartu edo aurreko urtetik ezagutzen gero. Umea berria bada, lehen hamabostaldia konplikatuena da, umea familiara egin behar delako, familia umerak, hizkuntza apur bat ikasi behar du...

**Dena den, behin hartzen duenak errepikatu egiten du?**

Bai, normalean bai. Eta lehen aipatu dut ardura dela kanpoko umea etxean hartzea, baina gauza on asko ematen ditu. Esaterako, beste kultura bat ezagutzeko aukera ematen dizu eta nik uste halako umea etxean hartzen duenak egiten duela bihotzez, sentitu egiten duela umeok lagundu behar dituela, eta horrek bete egiten zaitu. Oso esperientzia polita da.

Bestalde, Tindufera joan eta umearen familia ezagutzeko aukera ere izaten dute umea etxean hartu dutenek. Bi irteera egoten dira: Aste Santuan bata, eta abenduko zubian bestea. Eta nahi duenak joateko aukera du; hori, beti, baldin eta ze puntura arte inplikatu nahi duzun. Joaten direnek oso gustura pasatzen dute.

**Umea etxean hartzeko zer egin behar da?**

Baldintza bakarra da sinatzea ez-adopzioko dokumentu bat. Gainerakoan, gogoia eta borondate ona besterik ez da behar. Bestetik, oso kontuan hartu behar da umea etxean hartuz gero osasun azterketak egitea oso garrantzitsua dela. Oporrak dira, baina izan daitezela umeendako baliagarriak. Interesa duenak dei dezake 670 41 76 07 telefono zenbakira, eta emango diogu informazio gehiago.



Bibi Andueza.

GOIENKARIA

HEZKUNTZA &gt; LANBIDE HEZIKETA

## Miguel Altunako ikasleak enpresa simulatuaren azokan

Eskolan sortu duten Garbi SLS enpresa simulatuaren erakusmahaia jarri zuten

M.B. &gt; BERGARA

Maiatzaren 7an Erandioko Ategorri Tartanga ikastetxean egin zen Euskal Herriko Enpresa Simulatuen lehenengo azokan hartu zuten parte Miguel Altuna institutuko Administrazio eta Finantzak ikasketetako goi mailako ikasleak.

Bergarako ikasleek Garbi SLS deitzen den ikuztegi edo gerbitegi industrialaren erakusmahaia jarri zuten enpresa simulatuaren azokan. Bergarakoekin batera, Euskal Herriko beste bederatzik ikastetxek ere hartu zuten parte.

Inaugurazio ekitaldiaren ondoren, enpresa bakoitzak bere aurkezpena egin zuen areto nagusian. Miguel Altunari dagokionez, Garbi SLSko bi ikasleek enpresaren nondik norakoak azaldu zituzten, komertzializatzen dituen produktu eta zerbitzu eskaintza zabalaren berri emanaz.

Heziketa zikloak irauten duen bi urteetan ikasleek jarduten dute benetako enpresa baten administrazio lanak simulatzen. Eta azoka aukera paregabea izan zen errealitate bihurtzeko. Ikasleek positibotzat jo dute esperientzia.



Garbi SLS enpresa simulatuako ikasleak, azokako erakusmahaian.

GOIENKARIA

txaloak eta txistuak



ENKO AZKARATE

## Agorrosinen ibiltzen direnendado komunak itxita



Agorrosin futbol zelaiko komunak direla eta, irakurle baten kexa jaso dugu. Haren arabera, duela aste batzuk komunak itxi egin zituzten, kontuan hartzeke jende asko ibiltzen dela aste barruan atletismo pistan paseatzen. Udaleko Kirol Zerbitzuetik komunak berriro zabalduko zituztela agindu zioten, baina itxita jarraitzen dute, Agorrosinera joaten direnen kalterako.





Gaurtik aurrera (astelehena), jokalariek ezin izango dituzte Ipintzako aldagelok erabili, bota egin behar dituzte eta.

JOSETXO ARANTZABAL

AZPIEGITURAK > KIROL INSTALAZIOAK

# Uztailerako ipinita egongo dira Agorrosin eta Ipintzarako aldagelak

**Nuevo Sistema Modular enpresari esleitu dizkiote lanak; aldagela zaharrak asteen botako dituzte**

kiote, behin-behingoz -15 egunetan bihurtuko da behin betiko erabaki-. 290.075 eurotan egin dute esleipena -305.000 eurotan atera zituzten lanok enkantera-, eta uztaile bukaerarako ipinita egongo direla aurreratu du Martin Etxeberriak, Kirol zinegotziak.

endako beste bat (arbitroendako), biltegi bat, bulego bat eta komun publikoa. Eta bigarren solairuan egongo dira: taldeendako bi aldagela, epaileendako beste bat, lehen sorospenerako eta argiteria sistemarako bat eta komun publikoa.

Moduluak egingo dituen enpresak tailerlean bertan egokituko ditu eta ekartzen dituztenean muntatu bakarrik egin beharko dira moduluak.

Aldagelok kokatuko diren orubea ere prestatu egin behar da. Hala, Nuevo Sistema Modularrek moduluak prestatzen dituen bitartean, Udalak zolata egingo du, hau da orubea aldagelak jartzeko prestatu.

## ALDAGELA ZAHARRAK

Ipintzako aldagela zaharren kasuan, bota egingo dituzte. Hain justu, gaur, astelehena hasiko dira eraikina botatzeko prestakizun lanetan, Martin Etxeberria zinegotziak jakinarazi duenez. Eraispin lanak aste honen amaiera aldera edo datorren astearen hasieran izango direla ere gehitu du.

Futbol taldeei dagokionez, denboraldia bukatzeke dago, bi partidu falta dira. Hori horrela, Etxeberriak azaldu du aldagela berriak izan arte taldeek erabiliko dituzte Agorrosin Ekintza Gunekoak.

## MODULUKAKO SISTEMA

Aldagelak moduluekin osatuko dituzte; hain justu, 2,40x4,60 neurriko 19 erabiliko dituzte, eta, elkarrekin lotuz, bi solairu osatuko dituzte.

Beheko solairuan egongo dira taldeendako lau aldagela, epaile-

## HARMAILEN ONDOAN

Ipintza futbol zelaiaren jarriko dituzte aldagelok, Agorrosingo zelaiaren harmailetatik gertu. Ipintza Agorrosin baino altuago dagoenez, Agorrosindik aldagelara igotzeko eskailerak egingo dituzte.

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Udalak asteen esleitu ditu Agorrosin eta Ipintza futbol zelaietarako aldagela berriak. Madril, Gipuzkoa eta Nafarroako lau enpresa aurkeztu dira lehiaketara eta Nafarroako Nuevo Sistema Modular enpresari esleitu diz-

## Domina ekarri du Mirian Pascualek

Kirol egokituko Dordoka taldeko kideak Logroñon izan ziren aurreko aste bukaeran, Espainiako atletismo txapelketan. Hain justu, Mirian Pascual bergararrak eta Sonia Medina ermuarrak hartu zuten parte txapelketan, biak ala biak pisu jaurtiketan. Pascual bigarren izan zen 3,40ko markarekin eta Medina laugarren, 2,71koarekin. Datoren aste bukaeran, hilaren 22an, 23an eta 24an, Espainiako eslalom txapelketa jokatu da eta Aritz Bikuña bergararrak parte hartuko du, Leonen.



GOIENKARIA

> HEZKUNTZA

## Udalako Ingurumen Eskolako saria jaso dute Aranzadikoek

Arrasateko Udala auzoan dagoen Ingurumen Eskolako saria jaso dute Aranzadi ikastolako ikasleek. Zaborraren gaineko formazioa jaso dute 6. mailako ikasleek Ingurumen Eskolaren eskutik, eta, gai horren inguruan mural lehiaketa zegoela aprobetxatuta, bada aurkeztu egin ziren, taldeka, eta baita 2. saria jaso ere. Saria eskuratu duten ikasleak hauek dira: Itziar Retes, Aitor Gorosabel eta Itziar Berasategi.

Bestalde, Aldundiak antolatutako Kosmodisea sariketan DBHko 3. mailako ikasleak irabazleak izan dira *Gu alkate XXI. mendeko hiria egituratzen* lanarekin.

> HEZKUNTZA

## Euskal kulturari eskainitako astea Mariaren Lagundian

Mariaren Lagundia ikastolan Euskal Astea egin dute asteen, askotariko ekintzekin. Hala nola film ikuskizunak, hainbat tailer, pintxo lehiaketa, euskal rallya... Beheko argazkian, Haur Hezkuntzako ikasleak dantza tailerlean.



Neska-mutikoak Mariaren Lagundian.

## oharrak

OSPAKIZUNA

### > Meza nagusia egongo da egue-nean San Migelen

San Migel auzoan jaiak ospatuko dituzte. Hala, egue-nean meza nagusia egongo da izen bereko ermitan. 11:00etan izango da meza, eta gero, salda eta txorizoa banatuko dute. Gainera, ermita ere inauguratuko dute, berri-berri dago-eta. Domekan, hilak 24, bestalde, meza egongo da, 11:00etan.

ATE IREKIAK

### > Miguel Altunante irekien jardunaldia egingo dute

Zapatuan, hilak 23, izango da, 11:00etan hasita. Euskaraz eta gazteleraz aurkezpena egin eta gero, Fabrikazio Mekani-koa, Elektrizitate Elektroni-koa eta Administrazio arloko erdi eta goi mailako heziketa zikloak irakasteko dituzten baliabideak erakutsiko dituzte, beste gauza batzuen artean.

IRTEERA

### > San Joxepekoek mendi irteera egingo dute hilaren 28an

Irunen egingo dute eta izenematea hilaren 25era arte da. Bestetik, irailean Leonera bidaiaria egiteko izena eman duten bazkideei jakinarazi nahi diete bidaiaren lehen zatia ordaindu behar dutela hilaren 20a baino lehen, La Caixan.

UDALEKUA

### > Jardunekin Lesakako udalekuetara joateko izenematea zabalik hilaren 27ra arte

Udalekuak ekainaren 26tik uztailearen 2ra arte izango dira. 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoendako da eta prezioa, 160 euro. Gehienez 30 lagunendako lekua dago eta bete beharreko gutxieneko plazak, berriz, 15 dira. Izena emateko jo Jardunen bulegora edo deitu 943 76 36 61 zenbakira.

UDALA &gt; ZERGA

Igoera apirileko osoko bilkuran onartu zuten eta uztaileko fakturatik aurrera aplikatuko dute

Bestalde, lur azpiko aparkalekuak erabiltzeagatik bi tarifa berri onartu ditu udalbatzak

MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

Zabor bilketa tasa garestitzea onartu zuen udalbatzak apirileko osoko bilkuran, EAJren eta Oñati Ezkerretik koalizioaren

# Zabor bilketa tasa %20,1 igoko dute uztailetik aurrera

aldeko botoekin. Hain zuzen ere, Debagoieneko Mankomunitateak egindako igoera proposamena onartu zuten udal ordezkariak. Igoera hori uztaileko fakturan sartuko da indarrean eta ibarreko herri guztietan aplikatuko dute (udalbatza bakoitzak hartutako erabakia izan da).

Igoera eurotan jarrita, hiru hilean behin etxean jasoko dugun faktura berria 23,86 euro ingurukoa izango da -orain arte 19,92 euro ordaintzen genuen -.

IGOERAREN ARRAZOIAK

Igoera aplikatzearen arrazoia bakarra da: gure eskualdean batutako hondakinen transferentzia eta zabortegirainoko garraioa Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak egingo duela uztailetik aurrera. Kostu horri aurre egiteko zabor tasak igotzeko beharra aurreikusitako Mankomunitateko Ingurumen Departamentuak, eta udalbatza guztiei igoera onartzeko proposamena egin zuten.

LUR AZPIKO APARKALEKUAK

Bestalde, apirileko osokoan, kiroldegiko eta Kalegoieneko lur azpiko aparkalekuetarako bi tarifa berri onartzea erabaki zuten.

Alde batetik, eta hainbat herritarrek egindako eskaerei erantzunez, 09:00etatik 21:00etara arte autoa aparkatu gura dutenentako 52 euroko tarifa berria onartu zuten -21:00etatik 09:00etara aparkatzen dutenen prezio bera ordainduko dute-. Beste alde batetik, lur azpiko aparka-

lekua gau eta egun erabili gura dutenentako 90 euroko bonua onartu zuten.

2008ko azaroan hasi ziren Kalegoieneko eta kiroldegiko lur azpiko aparkalekuak erabiltzeagatik kobratzen.

Lehenengo ordu erdia doan da; hortaz, autoa bi orduz parkingean uzten dutenek, ordu eta erdi ordainduko dute irteeran; hain zuzen, minutuko 0,0133 euro. Bosgarren ordutik aurrera, minutua garestiagoa da: 0,0167 euro.



ZUAZOLA-LARRAÑA INSTITUTUA

## Zuazolako ikasleek bigarren saria jaso zuten Donostian

*Klik eta klik* lehiaketaren VI. edizioko sari banaketa ekitaldia Donostiako Bataplan diskotekan egin zuten. Zuazola-Larraña institutuko DBHko hirugarren mailako ikasleek bigarren saria jaso zuten. Hain zuzen ere, iPod shuffle musika-aparailu bana jaso zuten. Donostiako Aita Larramendi eta Urnietako

Salesiar ikastetxeetako ikasleek jaso zituzten, hurrenez hurren, lehenengo eta bigarren sariak. *El Conquistador del fin del mundo* saioko aurkezle Julian Iantzik egin zituen aurkezle lanak. Bataplaneko giroa berotzeko, Joseina Etxeberria, Gaztea Irratiko esatariak musika ipini zuen, gazteen zoramenerako.

Txandakako sistema jarraituz, gehienez sei hilabeteko kontratua egingo diete, herrian mantenu lanak egiteko

LANA &gt; ENPLEGU PLANA

## Langabeak kontratatuzeko lan-poltsa egingo du Udalak

M.B. &gt; OÑATI

Krisi ekonomikoaren ondoren herriko langabezia tasa bikoiztu egin da. Horri irtenbidea emateko, langabeak kontratatuzeko lan-poltsa osatzea erabaki dute udal arduradunek.

Lan-poltsan parte hartu gura dutenek gaur eman behar dute izena udal bulegoetan 14:00etara

arte. Era berean, [www.oinati.net](http://www.oinati.net) webgunean eskura ditzakete eskaera-orriak.

Betebeharreko baldintzak lau dira: Oñatin erroldatua egotea 2006ko urtarrilaren 1a ezkerreko; 18 urte beteta izatea; langabea izatea eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean; eta egoera ekonomiko larrian egotea.

KONTUAN HARTUKO DITUZTENAK

Zerrendak osatzeko orduan kontuan hartuko dituzte, besteak beste, langabezian emandako denbora; diru-sarrerak; esperientzia; lan merkatuan sartzeko zailtasunak eta euskara maila. Lan-kontratuak gehienez sei hilabetekoak izango dira, eta, zerrendako ordena errespetatuz,

txandakako sistema bidez egingo dituzte, ahalik eta jende gehiagorengana iristeko.

Lan-poltsan dauden pertsonen herriko mantenuan sortzen diren lanak egingo dituzte. Horren harira, Ibarrako aldagelak konponduko dituzte lan-poltsa osatu ondoren kontratatuko dituzten lehen langileek.

## oharrak

HITZALDIA

> **Interneti buruzko hitzaldia Elkar Hezin**

*Internet zuretzat* delako ikastaroa egingo due Elkar Hezin gaur eta etzi. Eusko Jaurlaritzak sustatutako saioak Santa Marina eraikineko Egelan egingo dituzte.

HITZALDIA

> **Komunen egokitzapenei buruzko hitzaldia Pake Lekun**

Mugitzeko arazoak dituzten pertsonen etxetako komunitan egokitzapenak nola egin daitezkeen azalduko du Areak elkarteko Jabi Odriozolak. Hitzaldia bihar egingo dute erretiratuen elkartean, 17:00etan.

HITZALDIA

> **Droga mendekotasunari buruzko hitzaldia ikastolan**

AGIPAD elkarteko kideek egingo dute hitzaldia eguazteenan, ikastolako aretoan, 18:30ean.

INFORMATIKA

> **Udalekuetako izenemateagaur bukatzen da**

Uztaileko udaleku irekietan parte hartu gura dutenentako izenematea gaur bukatzen da. Euskadiko Kutxan 60 euro sartu beharko dituzte.

DEIALDIA

> **82ko kintoek afaria egingo dute ekainean**

1963. urtean jaiotakoek afaria egingo dute ekainaren 27an Etxeberria jatetxean. Interesatuak 10 euroko bermea ordaindu beharko dute, 666 44 41 20 telefonora deituz edo Plazazola argazki-dentatik pasatuz.

DEIALDIA

> **Izenematea zabalik musika eskolan**

Hilaren 28ra arte eman daiteke izena Jose de Azpiazu musika eskolan, 943 78 31 74 telefonora deituz.

ESKORIATZA > EKONOMIA

## Udalak bat egin du maiatzaren 21erako deitu duten grebarekin

Udalbatzak adierazpen instituzionala onartu zuen, horren harira, eguneko bilkuran

hartzeko gonbita egin die herritar guztiei. Horren harira, joan den egunean egindako osoko bilkuran adierazpen instituzionala onartu zuen udalbatzak. Adierazpen horrek Udala Gobernuko, EB-Berdeen eta EAko zinegotzien aldeko botoa jaso zuen; EAJ eta PSEk kontra bozkatu zuten eta Elizateetako ordezkaria abstenitu egin zen.

Horretan, udalbatzak "benetako aldaketa soziala" aldarrikatzen du, bere ustetan, Euskal Herriari bere izaera eta erabakitzeko eskubidea ukatzen dion mar-

ko juridiko eta politikoa gainditzea "ezinbestekoa" delako: "Aldaketa politikoa bitartez soilik gure etorkizun ekonomiko eta sozio-laborala berma daiteke".

### BEHARRAK

Horretaz gain, aldaketak kalitatezko enpleguaren bitartez pertsona guztiei bizitza proiektu duina eta independentea garatzeko aukera ematen diela gaineratu du. Horren harira, lana beste modu batean antolatu, lanaldia murriztu, enplegua banatu, lan-

bizitza eta pertsonala egoki uzartu eta, enplegurik ezean, soldata sozial duina bermatu beharra dagoela azpimarratu du. Eguenean adostutako adierazpen instituzionalak, gainera, zerbitzu publikoen funtsezko hobekuntza eta haien kontrol soziala aldarrikatzen du.

Azkenik, udal erakundeendako mezua ere badu: hain zuzen, zerga-politika "aurrerakoa eta bidezkoa" bultzatzea eta finantza-iturriak zein kalitatezko zerbitzu publikoak garatzen elkarlanean aritu daitezela eskatu du.

### KONTRAKOEN IRITZIA

Esan bezala, PSEko Inaki Pierruges kontra azaldu zen. Haren esanetan, "Barregarria da Udala sindikatua balitz bezala portatzea. Gainera, greba politikoa da; alor nazionalista erradikalenak nazionalista ez den lehen gobernuaren kontrakoa". EAJ ere ez zegoen ados adierazpen horrekin. Aitor Urrutiak Juan Jose Ibarretzek aldarrikatutako giza garapen iraunkorraren alde egin zuen.

ESKORIATZA

## Bergarako jaietan, autobusa

M.B. > ESKORIATZA

Bergarako jaietara joan gura duten eskoriatzarrek garraio publikoa erabiltzeko aukera izango dute. Maiatzaren 29tik 30erako gauean, barikutik zapatura, hara joateko eta Bergararik bueltan etortzeko autobus zerbitzu berezia izango dute.

Eskoriatzatik Bergarara orduo ibiliko dira autobusak, 00:00etatik 06:00etara bitartean. Bergararik etxera itzuli gura dutenek 00:30ean dute lehen autobusa. Kasu horretan ere, orduo izango dira, 06:30ak arte. Zapatu gauean, berriz, maiatzaren 30etik 31rako gauean ohiko gaueko zerbitzua egongo da.

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak maiatzaren 21erako Euskal Herriko sindikatu nagusiek deitutako greba orokorrekin bat egitea eta egun horretan zein etorkizunean antolatu daitezkeen ekimenetan parte



Gaur Etxeko istripuen prebentzioa berbaldua dago; besteak beste, sukaldean zelan ibili azalduko dute han.

GOIENKARIA

ARETXABALETA > KULTURA

## Berbaldiak eta erakusketak nagusi Arkupeko egitarauan

Gaur erretiratuendako hitzaldia dago; etxean istripuak ekiditeaz jardungo dute

Gainera, Arkupeko ikasleek egindako eskulanak ikusgai jarriko dituzte gaur

M.B. > ARETXABALETA

Datozen egunotan askotariko kultura ekimenak daude aurreikusita Arkupe kultura etxean. Lehena gaur, astelehena, bertan izango da. Azken asteotako ohi-turarekin jarraituz, erretiratu zuzendutako berbaldua egongo da Zاراia aretoan, 16:00etan. Oraingoan, etxean istripuak ekiditeko hartu behar diren neurrien gainean jardungo du Spril erakunde ordezkari batek.

Egun berean, astelehena, erakusketa berria zabalduko dute. Mauro Calvoren *Toda una vida siendo niños* erakusketaren ondotik, Arkupeko ikasleek ikastarotetan egindako arte lanak egongo

dira ikusgai maiatzaren 31ra arte. Interesa dutenek 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara izango dute aretoa zabalik. Zapatuetan, berriz, goizean bakarrik bisitatu ahalko da.

### MUNDUMIRA

Horretaz aparte, eguaztenean, hilak 20, Mundumira jaialdiaren harira abian jarritako film laburren bigarren erakusketa egongo da erakusgai, 19:30ean. Azkenik, ez ahaztu bihar, martitzena, eskola kirolaren gaineko hitzaldia eskainiko dutela Zاراia aretoan. Horretan, kirol hastapenaren inguruko ikuspegiak eta eredu eztabaidatuko da.

> ARETXABALETA

## Loramendik emakumeen arteko frontenis txapelketa antolatu du aurten lehen aldiz

Loramendi Euskara Elkarteak txapelketa berria jarri du martxan: emakumeen arteko frontenis txapelketa, hain zuzen. Eta dagoeneko zabalik dago lehiaketa horretan izena emateko epea; maiatzaren 21a baino lehen eman beharko dute Loramendiko telefono zenbakian -943 77 09 70- edo elkarteak udaletxe zaharrean duen egoitzan. Txapelketa ekainean egingo dute.

Loramendikoak pozik daude aretxabaletarren artean esandako txapelketak lortu duen interesarekin: "Oso arrakastatsua izaten ari da. Azken urteotan mutilendako pala txapelketa antolatu dugu eta emakumeekin antzeko zerbait egitea pentsatu dugu. Asmatu dugu. Izenematea zabaldu aurretik bikote bat baino gehiago etorri izan da gurera".

> ARETXABALETA

## Udalak kirol etxe berriko lanak egiten jarraituko duen enpresa kontratatzeke deialdia egin du

Aretxabaleako Udalak kirol etxea berriaren obra zuzendaritza kontratatzeke deialdia egingo du. Enpresa horrek lanen jarraipena egingo du. Irargaria joan den martitzenean argitaratu zuten Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Horretan, aurrekontua 220.000 euro izango dela jakinarazten da, besteak beste.

Interesa dutenek udaletxeko idazkaritzan aurkeztu behar dute dokumentazio guztia, maiatzaren 27a baino lehen. Aurkeztutako eskaintzen irekiera ekainaren 1ean egingo dute udaletxean bertan, 17:00etan.

Bestalde, jakina denez, dagoeneko herriko kirol etxe berria eraikitzeke lanak egiteko esleipena gertu dago. Maiatzaren 28an amaitzen da proposamenak aurkezteko epea.

**Hirusta Zateketa**

Ilargi plaza 4  
943 79 06 57  
ARETXABALETA

**IRIARTE**

Umeen denda  
Helduen lentzeria

Durana 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABALETA

ANTZUOLA &gt; ARGAZKI LEHIAKETA

# Antzuolako txokoen irudirik originalenek jaso dituzte sariak argazki lehiaketan

Juanje Amasorrain eta Mari Paz Ugalde epaimahaiko kideek landutako argazkiak aukeratu dituzte, beste irudiek herriko txokoak bere horretan baino ez zituztelako erakusten



Irabazleak, zapatuan, Olaran etxean egin zen sari banaketan.

JOSETXO ARANZABAL

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA**  
Antzuolako Txokoak II. argazki lehiaketak baditu irabazleak. Aste bukaeran banatu dituzte sariak eta lanak Olaran etxean egon dira ikusgai. Guztira 36 lan aurkeztu dira eta maila bakoitzean bina sari banatu dituzte.

**ARGAZKIETAN MUGIMENDURIK EZ**  
Epaimahaia Juanje Amasorrainek eta Mari Paz Ugaldek osatu dute. Haien esanetan, batzuek

txokoen argazkiak aurkeztu dituzte, beste barik; hortaz, sari-tu dituzte argazkirik originalenak, enkoadre egokidunak,

momentu berezia aukeratu dute-nak... landutakoak, azken batean. Bestalde, argazkietan mugimendu falta sumatu dute. Gaine-

## Saridunak

### Lehen maila (6-14 urte)

1. Mairi Olabarria  
*Burdin iturri magikoa*
2. Lierni Errasti  
*Harria eta ura*

### Bigarren maila (15-25 urte)

1. Ana Peñalba  
*Gaua*
2. Ander Iturbe  
*Kortaberri erreka*

### Hirugarren maila (26tik gora)

1. Iñigo Alonso  
*Eliza eta Olaran etxea*
  2. Jose Caceres  
*Denboraren aztarnak*
- Aipamen berezia  
Juanjo Etxezarreta

ra, bigarren mailan oso lan gutxi aurkeztu direnez, pentsatu dute datorren urtean beste mailakatzeko bat egitea.

ANTZUOLA &gt; TRIKITIXA EGUNEKO ZOZKETA

## Davila eta Ibarluzea saridunak Trikitixa Eguneko zozketan

Nekazaritza etxe batean aste bukaera eta sei txuleta eta hiru botila ardo eman dituzte sari moduan

**I. A. > ANTZUOLA**  
Debagoieneko Trikitixa Eguna-ren aitzakian zozketa egin zuten Antzuolan, eta irabazleek jadanik jaso dituzte sariak.

Lehenengo saria 12.123 zenbakiaren jabeari, Arrasateko Inma Davilari egokitu zaio. Bi lagunendako aste bukaera nekazaritza etxe batean jaso du, eta, hain zuzen, asteburu honetan joatekoa zen sariaz gozatzena.

Bigarren saria (20.803 zenbakia), berriz, Oñatiko Aloña Ibarluzearendako izan da. Hark sei txuleta eta hiru botila ardo jaso zituen, eta Ibarluzeak koadrilakoekin jan eta edan ditu dagoneko elkarte batean.



Inma Davila.

GOIENKARIA



Aloña Ibarluzea.

GOIENKARIA

ARAMAIO &gt; ZUIAKO KOADRILA

## Zuiako aldizkariaren izena erabakitze lehiaketa abian

Zuiako Koadrilak aldizkaria kaleratuko du laster eta izena erabakitze lehiaketa antolatu dute; izenemate epea maiatzaren 29an amaitzen da

**ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO**  
Parte-hartzaile bakoitzak hiru proposamen aurkeztu ahal izango ditu; lehenago argitaratu gabek eta beste lehiaketaren batean saritu gabekoak. Edonork har dezake parte lehiaketan. Gaia librea izango da, baina izenak 5 eta 15 karaktere bitartean izan

beharko ditu. Proposamena itxiatu kartazalean aurkeztu beharko da eta kanpoaldean honako hau idatzi beharko da: *Zuiako Koadrilako aldizkariaren izen lehiaketa - A kartazala*. Kartazal horren barruan beste txikiago bat sartu beharko da eta orri batean honako datuak zehaztu beharko

dira: parte-hartzailearen izen-abizenak, NA, helbidea, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia. Aurkeztutako lan bakoitzeko aipatutako pauso horiek jarraitu beharko dira.

Lanak Zuiako Koadrilako bulegoetan aurkeztu beharko dira (Murgia): astelehenetik barikura bitartean, 08:30etik 14:30era. Izena emateko azkenengo eguna maiatzaren 29a izango da.

Sariei dagokienez, bakarra egongo da. Irabazleak 300 euro lortuko ditu. Epaimahaia, bestetik, Zuiako Koadrilako presidentek izendatuko du eta ezingo da haren erabakiaren aurka jo.

Irabazleari zuzenean komunikatuko zaio epaimahaiaren erabakia eta ekainaren 29tik aurrera Zuiako Koadrilaren webgunean argitaratuko da.

### ESKUALDEAREN KOHESIOA

Aldizkaria uda inguruan argitaratzea da asmoa eta helburu nagusia da eskualde mailako kohesioa lortzea eta Zuiako Koadrilaren garapena bultzatzea. Bailara mailako albisteak argitaratuko dituzte, baina helburua da herri guztietako informazioa jasotzea. "Arratzu-Ubarrundiako herritarrek, esaterako, Aramaioko albiste berri izan nahi dugu; izan ere, ikusten dugu urrutit dauden herrien artean loturak sortzea ezinbestekoa dela", azaldu dute aldizkariaren arduradunek.

Bestetik, herritarrek hasieratik aldizkariarekin inplikatzeko nahi dute eta horretarako erabaki dute izen lehiaketa antolatzeko. Asmoa da aldizkaria argitaratzen denerako herritarrek proiektuaren berri izatea.

ELGETA

## Karim magoak jaso du ikusleen saria

Kontxi Gorrotxategik eskuratu ditu Magialdira joateko bi sarrerak

I. A. &gt; ELGETA

Ikusleek euren magorik gustukoena zein izan zen aukeratzeko modua izan zuten Magia Mostran. Antolatzaileen esanetan, beste urteekin alderatuz, "mago gehienek jaso dute boto zaparrada. Batek ere ez du jaso boto gutxi, baina badira bi mago tropeletik ospa eginda ibili direnak: Gaetan Bloom eta Karim". Aldea oso txikia izan arren, Karimek jaso du publikoaren saria eta mago gustukoentzat eman dute 700 botok.

### ZOKZETAKO IRABAZLEA

Botoa eman zuten ikusleen artean Gasteizko Magialdira joateko bi sarrera zozketatu zituzten. Bi lagunendako aforria da, 150 magotik gora elkar-tzen diren ekitaldi batean. Afalostean magia erakustaldia egongo da. Kontxi Gorrotxategi izan da zorteduna eta hark gura duena gonbidatu ahal izango du Magialdira joateko.

LEINTZ GATZAGA

## Hauteskunde mahaian egotekoak hautatuta

Aitziber Gorosabel behin betiko izendatu dute gatz museoko arduradun

M. A. &gt; LEINTZ GATZAGA

Joan den martitzenean egin-dako osoko bilkuran egin zuen udalbatzak zozketa ekainaren 7an hauteskunde mahaian egon beharko duten herritar-rak hautatzeko. Bederatzi izendatu zituzten, hiru mahaian egongo direnak eta beste seiak ordezkoak. Hautatutakoren batek mahaian ez egoteko arrazoiak izanez gero, alegazioa aurkezteko epea zabalik dauka.

Osoko bilkuran, gainera, Aitziber Gorosabel behin betiko izendatu zuten gatz museoko, turismo bulegoko eta Labidea dendako arduradun.

# Kirola



> **FUTBOLA**  
Partiduaren hondarrea eta penaltiz lortu ditu UDAk garaipena eta igoera hirugarren mailara > 22



> **SASKIBALOIA**  
Luzapenean lortu du garaipena MU-k, Tolosan; Lehen nazionalen jarraituko du > 24



> **GIMNASIA ERRITMIKOA**  
Emaitza txukunak lortu dituzte Arrasatek Granadan, eta Bergarak Gipuzkoakoan > 25

KROSA > OTALA ZELAI

## Yerai Varela eta Rosi Talavera garaile, Ojala zelaiko krosaren 31. ekitaldian

### IBILBIDEA

Nagusiek 8.400 metro egin zituzten korrika: urtegiari itzuli bat

### IRABAZLEAK

Varelak ez zuen marka hobetu; Talaverak bigarren irabazi zuen

### GAZTEENAK

Aurrez, benjamin, alebin, infantil eta kadete mailakoek egin zuten lasterketa

### JASONE ZABALA > ARETXABALETA

Maila handiko korrikalariak irabazi zuten atzo Aretxabaletako Ojala Zelaiko krosaren 31. ekitaldia. Guztira, 80 korrikalari inguruk hartu zuten parte. Gizonezkoetan, Yerai Varela oñatiarrak lortu zuen garaipena, eta bigarren gelditu zen Miguel Angel Enfimari minutu bat pasatxoko alde atera zion. Emakumezkoetan, berriz, Rosi Talavera hernaniarrak lortu zuen garaipena, bigarren urtez jarraian, baina ez zuen hobetu joan zen urteko marka (31:17), orduan baino bi minutu pasatxo gehiago behar izan zituen-eta. Maila onean dagoen korrikalaria dela erakutsi zuen, beste behin, Talaverak, 48 urterekin.

Aretxabaletar azkarrenen sariak ere banatu zituzten atzokoan. Gizonezkoetan, Sergio Perez izan zen azkarrena eta emakumezkoetan, berriz, Olaia Uribebarria.

### GAZTETXOEK ERE KORRIKA

Nagusien probaren aurretik, gaztetxoek ere egin zuten korrika, ibilbide laburrago batean. 10:30etik 11:00etara, lau maila ezberdinetan aritu ziren: alebinak, kadeteak, infantilak eta benjaminak. Guztira, 150 neska-mutikok egin zuten korrika.

### sailkapena

GIZONAK	
1. Yerai Varela	27:21
2. Miguel Angel Enfima	28:15
3. Josetxo Vaqueriza	28:45

EMAKUMEAK	
1. Rosi Talavera	33:26
2. Maria Jesus Velasco	37:44
3. Paula Hidalgo	39:27

KADETEAK (MUTILAK)	
1. Andoni Perez	

KADETEAK (NESKAK)	
1. Estitxu Unanue	
2. Irati Lezeta	

INFANTILAK (MUTILAK)	
1. Julen Moron	
2. Adrian Aginagalde	
3. Xabier Zubillaga	

INFANTILAK (NESKAK)	
1. Maria Jaka	
2. Udane Cabanillas	
3. Sara Balentziaga	

BENJAMINAK (MUTILAK)	
1. Daniel Martinez	
2. Beñat Axpe	
3. Xabier Aspiazu	

BENJAMINAK (NESKAK)	
1. June Barbero	
2. Marixe Ruiz de Austri	
3. Miren Antxia	

ALEBINAK (MUTILAK)	
1. Julen Garai	
2. Markel Moron	
3. Kerman Armentia	

ALEBINAK (NESKAK)	
1. Garazi Larrea	
2. Alba Etxeandia	
3. Jone Uriarte	

\*OHARRA: Kadete mailan, mutiletan, parte-hartzaile bakarra egon zen eta nesketan, bi.



BIGARENDOZ Rosi Talavera korrikalari betanoak bigarren urtez jarraian irabazi du Ojalako krosa.

JOSETXO ARANTZABAL

### PROTAGONISTAK



Yerai Varela  
Lehen gizonezkoa

"Ibilbide erdian baino gehiago bakarrik joan naiz eta espero baino luzeagoa egin zait. Haizea ere kontra neukan eta gogorra egin zait. Pozik nago egindako lanarekin".



Rosi Talavera  
Lehen emakumea

"Denboraldia oso luze doa eta krisi txiki bat pasatzen ari naiz azken txanpa honetan. Gustuko dudana ibilbidea da Urkuluko urtegia inguratzen duena eta ahalegina egin dut bertan egoteko".



Asier Muxika  
Antolatzailea

"Parte-hartze handia egon da, eta oso gustura gaude. Proba prestatzeko antolatzaileek egiten duten lana handia izaten da, eta eskertzen da jendeak parte-hartzea".

FUTBOLA &gt; UDA HIRUGARREN MAILARA

# "Alaitu, alaitu, UDA txapeldun!" a aretxabaletarrek berriz ere 22 urte

Puntu bakarra nahikoa zuten Gordobilen mutilek igoera lortzeko, baina hiru puntuak lortu zituzten

Azkeneko bi partiduak ibarrekoen aurka jokatuko ditu UDAk, Mondragon eta Oñatiren aurka

TOLOSA

1-2

ARETXABALETA

JASONE ZABALA &gt; TOLOSA

Egun garrantzitsua eta alaia izan zen zapatuko UDA taldearendako. Zale asko joan zen Aretxabaletatik Tolosako Berazubi futbol zelaira. Batzuk, UDA elkarteak antolatutako autobusean eta beste asko norbere autoan. UDA hirugarren mailara igotzen ikusteko asmoa eta ilusioa zuten bertara

joandako guztiek; jokalariek ez zien hutsik egin eta txapeldun izateko behar zuten puntuak lortu zuten eta baita beste bi gehiago ere, partidu gogor batean.

**PARTIDUA IRABAZTERA**

UDA hasieratik irten zen zelaira partidua irabazteko asmoarekin, husnako berdinketarekin konformatu gabe. Baina, bai Tolosako jokalariek eta baita UDAk ere urduritasunarekin hasi zuten partidua. Askok zuten jokoa. UDAk berdinketarekin nahikoa zuen hirugarren mailara igotzeko eta Tolosak, bigarren sailkatuak, garaipena esperantzari eusteko. Hala, lehen aukera Gor-



Epaileak azken txistua jo zuenean, zaleek jokalariekin batera ospatu zuten hirugarren mailara igoera.



Imanolek sartu zuen aretxabaletarren bigarren gola, penaltiz.

J.A.

dobilen mutilendako izan zen eta 12. minutuan Espinosak aukera bikaina izan zuen ate aurrean. Zelai erdian ez zuen inork agintzen, Tolosari hanketan erre egingen zion baloiak. UDA saiatu zen ezker eta eskumako hegaletatik, erdiraketen bitartez. Igartuak, ezker hegaletik erdiraketa bat egin zuen, baina Espinosa ez zen iritsi gutxigatik (24. minutuan).

Beste jokaldi eztabaidagarri batzuk ere izan ziren, esaterako, UDAREN aldeko penalti argia, epaileak eman ez zuena; baina, orokorrean, aukera gutxi izan zen lehen zatian.

**BIGARREN ZATIAN NAGUSI**

Bigarren zatia oso ondo hasi zuten aretxabaletarrek eta Oinatz

Agirre aurrelariak gol oso garrantzitsua sartu zuen 6. minutuan. Tolosa urduri jarri zen eta golaren bila joan zen, baina ez zuen joko onik egin. Hori apro-

betxatu zuen UDAk kontraerasoak egiteko, partidua behin betiko erabakita uzteko. Baina Tolosak bere alde izan zuen falta jaurtiketa batean, Unda atezainak ez



Berazubiko zelaia kolore txuri eta urdinez jantzi zen zapatuan.

J.A.

## PROTAGONISTAK



**Martin Garai**  
Zalea

"Zoragarria izan da 22 urte pasata, UDA hirugarren mailan ikustea. Aretxabaletatik jende asko etorri da taldea animatzera; gogor borrokatu eta asko sufritu ostean, berriz hirugarren mailan".



**Oinatz Agirre**  
Jokalaria

"Ikaragarria da lortu duguna. Hasieratik saiatu gara gola sartzen, baina lortu dugu; ez da garaipen erraza izan, baina zaleen bultzadak lagundu digu hirugarren mailara igotzen".



**Eriko Gartzia**  
Jokalaria

"Oraindik ez dut sinisten, baina lortu dugu. Zelaian bildu den jendeagatik honek merezi du. Gogo handiak geneukan mailaz igotzeko. 15 urte daramatzat taldean eta ordua zen lortzeko".



**Igor Gordobil**  
Entrenatzailea

"Oraindik sinistu ezinda nago. Taldeak denboraldi osoan lan handia egin du eta talde batu bat osatzen dugu. Jende askok urte askoan egindako lanaren fruitua izan da".



**Eduardo Altube**  
Presidentea

"Igoera lortu dugu eta oso pozik gaude guztiok. Baina, batez ere, eskertu nahiko nuke orain arte Jokin Antxiak egindako lana, hau bere proiektua zen-eta. 23 urteren ostean, hirugarren mailan gaude".

# bestu dute eren ostean



JOSETXO ARANTZABAL

partidua amaitzeko eta UDAko zaleek Tolosak gola sartu arren, gertuago ikusten zuten helburua, eta animuak ez zitzaizkien falta izan azken txanpan. Hala ere, UDA urduri, sufritzen hasi zen zelai erdian eta Tolosak nola edo hala bigarren gola egin nahi zuen. Gainera, bigarren zatian zelaian sartu zen Orueta, kalera bota zuen epaileak bi txartel hori erakutsi ondoren. Horrela, Gordobilen mutilek 10 jokalarirekin jokatu zuten azken minutua eta epaileak gehitu zituen beste lau minutuak.

## LASAITASUNAREN GOLA

UDAk, azken minutuetan, aurrera jo zuen golaren bila eta baita lortu ere. Erasoko jokaldi batean, area txikian Tolosako jokalaririk ostikoa eman zion Aretxabaletako jokalaririk bati baloia tartean ez zela 92. minutuan. Epaileak UDaren aldeko penaltia adierazi zuen eta Tolosako atzelaria kalera bota zuen.

Bigarren zatian zelaia sartu zen Imanolek sartu zuen penaltia, garaipenaren gola; garaipena eta igoera. Zaleek pozarren ospatu zuten gola eta ez zen ezer gehiagorako denborarik izan. UDA hirugarren mailara.

zuen baloia ondo urrundu eta tolosarrek aprobetxatu zuten berdinketaren gola sartzeko. Inaki Ugartemendiak, 24. minutuan. Beste 20 minutu gelditzen ziren



Isildu ere egin barik animatu zuten taldea zaleek.

J.A.



Gazteen eta nagusien bultzada izan zuen taldeak partidu osoan.

J.A.

## FUTBOLA > PREFERENTE MAILA

# Trintxerperen lehen golak kaltea egin zion Aloñari

Bosgarren minutuan sartu zuten gola Trintxerpekoek eta oñatiarrak ezinean ibili ziren hortik aurrera

ALOÑA MENDI

1-3

TRINTXERPE

J.Z. > BERGARA

Kanpoan jokatzeko dituen partiduetan etxekoetan baino hobeto dabilela argi utzi zuen Aloñak, atzo.

Trintxerpekoak bosgarren minutuan aurreratu ziren, kornerrak jaurtiketa baten bitartez. Zubiaren mutilak zelaian tokia hartu ezinik ibili ziren, motel

jokatu zuten; hala eta guztiz ere, Asier Ugartek berdinketaren gola lortu zuen, 41. minutuan.

Bigarren zatian, aurrean ez zuen asmatu Aloña Mendik eta Trintxerpek alde izan zituen kontraerasoetan asmatu egin zuen eta beste bi gol lortu zituen. Horrela amaitu zen partidua.

## KADETE NESKAK TXAPELDUN

Futbol zortziko kadete neskek, berriz, kopako partidu garrantzitsua jokatu zuten atzo, Ordiziaren aurka. Irabazten zuten kopa lortuko zuen, eta kopa hori Oñatin gelditu zen. Aloña aurretik jarri zen markagailuan 2 eta 0; lehen gola Amaia Guridik lortu zuen eta bigarrena, Maitane Igartuak. Baina ordiziarrek bina berdintzea lortu zuten.

Azken txanpan Igartua kapitainak sartutako golak erabakita utzi zuen lehia; hortaz, oñatiarrak dira futbol zortziko kadete mailako aurtengo txapel-dunak.

## FUTBOLA > PREFERENTE MAILA

# Mailari eusteko helburua lortzeko bidean da Mondra

Falta askoko partidua izan zen puntuen premian diren bi taldeen artean; Muruak sartu zuen partiduko gol bakarra

MONDRA

1-0

EUSKALDUNA

J.Z. > BERGARA

Garaipen garrantzitsua lortu zuen Andoni Azkargortak zuzentzen duen taldeak zapatuan, Mojategin. Gol bakarratik izan bazen ere, denboraldia amaitzeko falta diren bi partiduak lasaiago jokatuko dituzte arrasatearrek. "Nahiz eta beheko aldean dauden tal-

deen emaitzek lagundu egin diguten, oraindik punturen bat lortu beharko dugu matematikoki mailari eusteko", adierazi digu Azkargorta entrenatzaileak. Partidua ez zen ona izan, baina bi taldeak beheko zulotik ateratzeko garaipenaren bila irten ziren zelaia.

## LEHEN ZATIAN, GOLA

Lehen zatian ondo jokatu zuten arrasatearrek, eta aukeraren bat edo beste sortu zuten; horrela, 20. minutuan, Jon Muruaren gol bati esker aurreratu ziren eta Andoni Azkargortaren mutilek kontrolatu zuten jokoa.

Bigarren zatian, berriz, jokoa pixka bat nahastu egin zen, eta partidua askotan gelditu behar izan zuen epaileak, faltak zirela-eta. Euskalduna baloi luzeekin arriskua sortzen saiatu zen, baina gol aukerak ere ez ziren asko izan bigarren zati horretan.

Azkenean, arnasa pixka bat hartzeko hiru puntu garrantzitsu, etxekoendako.

## emaitzak eta sailkapenak

### PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Aretxabaleta	70	32
2. Tolosa	58	32
3. Pasaia	58	32
4. Hernani	58	32
5. Real Union	56	32
6. Aloña Mendi	56	32
7. Trintxerpe	52	32
8. Berio	51	32
9. Hondarribia	49	32
10. Idiazabal	43	32
11. Mondra	35	32
12. Ondarroako Aurrera	35	32
13. UPV-EHU Vasconia	33	32
14. Euskalduna	32	32
15. Mundarro	31	32
16. Anaitasuna	28	32
17. Zumaiaiko	24	32
18. Amaikak Bat	17	32

### Emaitzak

Hondarribia-Anaitasuna	0-1
Real Union-Ondarroako Aurrera	3-0
EHU Vasconia-Amaikak Bat	1-0
Pasaia-Zumaiaiko	1-1
Berio-Hernani	1-1
Aloña Mendi-Trintxerpe	1-3
Mondra-Euskalduna	1-0
Tolosa-Aretxabaleta	1-2
Mundarro-Idiazabal	1-1

### Hurrengoak

Ondarroako Aurrera-Hondarribia
Amaikak Bat-Real Union
Zumaiaiko-EHU vasconia
Hernani-Pasaia
Trintxerpe-Berio
Euskalduna-Aloña Mendi
Aretxabaleta-Mondra
Idiazabal-Tolosa
Mundarro-Anaitasuna

### BESTELAKOAK

#### LEHEN ERREGIONALA

BTLS-Mutriku	1-2
Antzuola-Bergara	3-1
Aretxabaleta-Mondra	0-1

#### BIGARREN ERREGIONALA, IGOERA

Bergara-Martutene	4-2
-------------------	-----

#### GAZTE MAILAKO EUSKAL KOPA

Aretxabaleta-Barakaldo	1-1
------------------------	-----

#### OHOREZKO GAZTE, KOPA ETA JAITSIERA

Idiazabal-Aloña Mendi	1-6
-----------------------	-----

#### LEHEN MAILAKO GAZTEAK, IGOERA

Amara Berri-Mondra	1-5
--------------------	-----

#### OHOREZKO MAILA KADETEAK, IGOERA

Aretxabaleta Ariz.-Kostkas	1-4
Ordizia-Bergara	1-0

#### OHOREZKO KADETE, KOPA ETA JAITSIERA

Arraste-Eibar B	1-3
Añorga-Aloña Mendi	3-4

#### KADETEEN 1. MAILA, IGOERA

Aretxabaleta-Behobia	3-2
----------------------	-----

#### EMAKUMEZKOEN IGOERA FASEA

Mondra-Gasteiz Cup	4-2
--------------------	-----

#### EMAKUMEAK F-8, KOPA

Aloña Mendi-Ordizia	3-2
---------------------	-----

#### INFANTIL TXIKI, KOPA

Touring-Aretxabaleta	1-1
----------------------	-----

#### INFANTIL TXIKI, TXAPELDUN. FASEA

Reala-Arrasate	7-0
----------------	-----

SASKIBALOA &gt; LEHENENGO MAILA, JAITSIERA FASEA

# MUK mailari eustea lortu du, Tolosan irabazita

86-86 emaitzarekin bukatu zuten bigarren zatia, eta luzapenean erabaki zen neurketa, Muren alde

BIDE BIDE IBIZA

## 92-98

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

GOIATZ ARANA &gt; TOLOSA

Lehenengo Maila Nazionalen jarraituko duen edo ez jakiteko, sufritzea egokitu zaio MURI, azken minutura arte zain egon beharra. Baina, azkenean, bete du helburua: eutsi egin dio mailari. Zapatuan Tolosako Bide Bide Ibizen kontra jokatuako partiduan erabaki zen hori, baina orduan ere zuri-moreek ez zuten berehalakoa arnasa lasai hartu, berdinke ta apurtzeko luzapena jokatu behar izan zuten-eta.

Tolosara joandako jarraitzaileek ezin zuten sinistu ikusten zebiltzana egia izan zitekeenik. MUKo jokalariek oso hasiera eskasa eman zioten partiduari, maila hori duen talde batek beharko lukeen indarra izatetik


urrun. Defentsan motel eta erasoan irizpide barik jokatu zituzten lehen minutuak. Intentsitate apur bat irabazi zuten ondoren, baina tolosarrak partiduan erabat sartuta zeuden, eta 36-18 emaitzarekin bukatu zuten lehen laurdena. Motel hasi zuten bigarrena ere baina, pixkaka, defentsan eta errebotean gogortuz, hobera egin zuten erasoan eta baita markagailuan ere (19-20). Hirugarren laurdena gorabeheratsua izan zen talde biezkat, eta nahikoa berdinduta amaitu zuten: 16 puntu tolosarrentzat

DATUA

# 8

GARAIPEN, JAITSIERA FASEAN

Mailari eusteko, jaitsiera faseko hamar partidutatik zortzi irabaztea ezinbestekoa zen MUREntzat, lehen fasean jokatuako 18tatik soilik bi irabazi zituzten-eta.



BORROKA Jokalariak, baloia harrapatzeko lehian.

JOSETXO ARANTZABAL

eta 15 arrasatearrentzat. Azken laurdenean piztu egin ziren zuri-moreak, eta ordura arte ez bezalako jokoa egin zuten, talde bien arteko aldea txikituz. 15-33 emaitzarekin bukatu zuten laurden hori; 86-86koarekin, partidua; eta luzapena jokatu zuten. Lehen minutuetan, 1 eta 8 jarri ziren aurretik zuri-moreak, partidua irabazteko aukerekin, lehen aldiz. Tolosakoek ez zuten ezer

galtzeko, ontzat eman zuten ordu arte egindako lana eta, MURI partidua gidatzen utzi zioten, garaipena eskuratzeko bidea zabalik utziz (92-98).

ORAIN, OPORRAK

Datorren denboraldian, beraz, Debagoienak Lehenengo Maila Nazionalako talde bat izaten jarraituko du: MU. Orain, hori bai, atsedean hartuko du.

Jabier Zurbano >  
MUKo entrenatzailea

## "Lan zaila izan dugu denboraldi honetan; taldea oso gaztea da"

G.A. &gt; TOLOSA

Biharamun apur batekin zegoen atzo MUKo entrenatzailea: Lehenengo Maila Nazionalen jarraituko dutela ospatu zuten bezperan, Musakolako San Isidro jaietan.

Zer moduz joan da partidua?

Zaila izan da. Urduri atera gara eta konfiantza gehiegirik, Tolosak galtzeko ezer ez zuela-eta.

Eta denboraldia?

Gogorra, hori ere. Talde gaztea eta esperientziarik gabea izan dugu-eta, gogor saiatu garen arren, emaitzak ez ditugu alde izan.

Zein da hurrengo helburua?

Behin taldea sendotuta, datorren denboraldian partidua irabazten eta igoera fasean sartzen saiatuko gara.

Orain, oporrak?

Bai, bi astez, jokalariei bizio txarretara bueltatzen utziko diet.



GOIENKARIA



GOIENKARIA

## Makalu: bigarrenen ere huts egin dute

Iñurrategi, Vallejo eta Zabalzak zapatu goizean ekin zioten Makalura igotzeko bigarren saiakerari, baina arratsaldean buelta eman behar izan zuten berriz ere, eguraldiak hartara behartuta. Oinarrizko kanpalekuan daude orain eta, geratzen zaien azken astean, berriz saiatuko dira, eguraldiak uzten badie. Itxaropena ez dute galdu.

SASKIBALOA &gt; LAUKO FINALA

# Aloña Liga Autonomikoan egongo da denboraldi berrian

Oñatiarrek Donostiako La Salleren kontra irabazi zuten atzo lauko finala, bezperan Ordizia menderatuta

LA SALLE

## 87-91

ALOÑA MENDI

GOIATZ ARANA &gt; BERGARA

Ordizian jokatu da Liga Autonomikora igotzeko lauko finala, asteburuan. Aloña Mendik etxe-

ko taldearen kontra jokatu zuen finalerdia, zapatuan. Aurkari gogorra zen, baina oñatiarrek mendean hartu zuten (82-85). Ordizia aurretik joan zen ia beti markagailuan, baina gutxigatik. Hirugarren laurdena izan zen txarrena oñatiarrentzat, baina

ESANAK

"Xabier Igartua entrenatzailea da irabazle nagusia; sekulako lana egin du taldea aurrera ateratzeko"

Jagoba Gamarra &gt; Jokalaria

errebotean hobetuz eta aukera onenak aprobetxatuz, irabaztea lortu zuten.

Atzo jokatu zuten finala, La Salleren kontra. Hirugarren laurdenean izan zuten aurkariarekiko abantailarik handiena (13 puntu), baina falten eraginez pibotetan zituzten arazoetaz baliatuta, aldea murriztuz joan zen La Salle. Azken laurdenean, gauzak itsusi jarri ziren, baina hiruko saskiratzeei esker, Aloña garaile izan zen (87-91). Mikel Biain bikain aritu da bi egunetan eta zaleen babesa izugarria izan da.

HELBURUAK BETETA

Bukatu berri den denboraldian, Aloñak lortu du Oñatin saskibaloia berpiztea, joko ona egitea eta Liga Autonomikora igotzea.





Mikel Larrañaga bergararra, baloia jaurtitzeko gertu.

JOSETXO ARANTZABAL

PILOTA

## Azkoitiaren aurka galdu du kanpoan Bergarak

Bergarrek bi eta bat galdu dute, baina uste dute aurrera egin dezaketela

E.A. > BERGARA

Bi eta bat galdu zuen Bergarak Azkoitiaren aurka, Herrien Arteko Pilota Txapelketako joanekoan. Lehia gogorra izan zen; oso neurketa parekatuak jokatu zituzten. Lau orduz jardun zuten.

Azkoitiarrak aurea hartu dute, baina sei tantotako errenta txikia daukate. Horregatik, aurrera egiteko itxaropena dauka Bergarak: "zaila izango da, baina aurrera egin dezakegu" dio Reyes Azkoitia BKE Pilota saileko arduradunak. Jubeniletan nagusitu ziren bergararrak, 22 eta 19, eta kadete (22-16) eta seniorretan galdu egin zuten (22-19).

Itzulerako partiduak oraingo egubakoitzean jokatuko dituzte 20:00etatik aurrera, Bergarako Udal Pilotalekuan.

GIMNASIA > ESPAINIA ETA GIPUZKOAKO TXAPELKETAK

## Laugarren geratu dira Dragoiak, Granadan

Gipuzkoako Txapelketan, emaitza onak lortu dituzte bergarrek eta arrasatearrek

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Emaitza txukunak lortu dituzte ibarreko gimnastek Gipuzkoako eta Espainiako txapelketatan. Granadan jokatu da asteburuan Espainiako Txapelketa eta Arrasateko Dragoiek laugarren postua lortu dute. "Ez genuen espero eta oso pozik gaude. Lehen urtea da goazena Espainiako txapelketara eta ustekabe atsegina izan da" dio Edurne Elkorok.

Bestalde, Bergaran jokatu-tako Gipuzkoako Txapelketan, ondo ibili dira Bergarako Ariznoakoak eta Arraseko Dragoiak. Taldeka, lehen postua lortu dute bergarrek, Kadete B eta Jubenil B mailetan, eta bigarrenena, Alebin, Kadete A eta Jubenil B mailetan. Banaka, Kadete B mailan, Jennifer Pineda bergararra txapeldun eta Nerea Otxoa arrasatearra bigarren izan dira.

ESKUBALOIA > GIPUZKOAKO KOPA

## Azken segundoan irabazi du Arrasatek, Aldanondori esker

BERGARA K.E.

34-35

ARRASATE

Partidua oso lehiatua eta berdindua izan da, baina gorabeherekin. Hala, lehen zatian, mondragoetarrak izan dira nagusi, nahiz eta atsedendian oso emaitza parekatua lortu: 16-17. Baina, 4-8 aurretik zen Arrasate, lehen hamar minutuak igarotakoan.

Bigarren zatian, bergararrak nagusitu dira eta bost goleko aldeagatik irabazten joan dira, baina, bukaerarako, hutsean laga dute errenta eta azken segundoetan erabaki da partidua, Arrasatekoen alde. Halere, biak sailkatu dira lauko finalerako. Ordizian jokatuko dute datorren asteburuan.

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Gol bakar baten aldearekin eta partiduaren hondarrean lortu du garaipena Arrasatek, Bergararen aurka. Amaitzeko 7 segundoko falta zirela hautsi du berdinketa Aldanondok (13 gol), Arrasaten diharduen bergararrak.




Jennifer Pineda eta Nerea Otxoa podiumean, zapatuan, Bergaran.

TXOMIN CABO

Mundumira

munduko kulturen festa



maiatzak 22, 23 eta 24

Eskoriatza - DEBAGOIENA

Munduko musika (Macaco, 17 Hippies, Romina Goshtasbi, Korrontzi, Zura, MLomp, Amama Luisa Brass Band, Artea, Madera de Choro, Bloque 53, Candonbe, La Fanfare P4, Rude Kanka + Iban Nikolai, Neila Benbey, Deschave), Mendi eta Bidaia Azoka, Erakusketak, Ikus-entzunezkoak, mendi irteerak, BTT Zeharkaldia, Kale animazioa...

**Debagoieneko herri guztietatik autobusak.  
Egunez eta gauzez autobus zerbitzu bereziak.  
Erabili garraio publikoa!**

Informazio gehiago:

www.pesa.net  
902 10 12 10

www.turismodebagoiena.com  
943 79 64 63 • 943 71 89 11

www.mundumirafesta.com



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

TURISMOA

Araitz Etxabe &gt; Mondrako kapitaina

# "Liga irabaztea azkeneko urteetan neskek egin dugun lanaren saria da"

ARANTZAZU EZKIBEL &gt; ARRASATE

Mondrako neskek Gipuzkoako liga irabazi zuten joan den zapatuan Sorluzeren aurka (2-1). Horrek aukera ematen die arrasatearrei Arabako eta Bizkaiko irabazleek aurka jokatu eta, irabaziz gero, maila nazionalera igotzeko. Araitz Etxabe kapitainarekin izan gara.

**Lehenik eta behin, zorionak!**  
Eskerrik asko!

**Nola gogoratzen duzu Sorluzeren aurkako finala?**

Guk argi geneukan zer egin behar genuen. Lehenengo minututik presioa sartzen hasi ginen; asmoa kontraerasoan gola egitea zen. Lehenengo gola 13. minutuan egin genuen kontraeraso baten ondoren. Atsedena baino lehenago berdindu egin zuten, baina indarrez geunden eta erakutsi genuen gauza ginela irabazteko.

**Garaipenarekin esan daiteke denboraldia borobildu duzuela?**

Bai. Azkeneko bi urteak oso onak izan dira. Aurten, esaterako, bi partidua bakarrik galdu ditugu. Hortaz, urte guztian egindako lanaren saria dela esan daiteke.

**Eta, bide batez, iazko arantza kentzea lortu duzue garaipenarekin?**

Bai, hori da. Iaz kopako finalera iritsi ginen, baina azkenean ez genuen irabazi. Aurten, ostera, igoera fasean sartu gara eta Gipuzkoako txapelketa lortu dugu. Oso pozik gaude egin dugun lanarekin. Azkeneko bi urteak oso onak izan dira eta garaipen honek gure lana borobiltzeko balio izan du.

Gainera, iaz entrenatzaile aldaketa izan genuen; hortaz, koparen bat lortzeko gogoz geunden. Iaz aukera izan genuen, baina ez genuen lortu, eta aurten arantza kendu dugu.

**Modu bereziren baten ospatu duzue?**

Aurreko aste bukaeran afaria egin genuen; baina partidua aurretik ez genuen ospakizun berezirik pentsatu; hortaz, ez genuen aparteko ezer egin.

**Orain, Bizkaia eta Arabako txapelketa aurka lehiatu beharko duzue.**

Bai, Bizkaiko eta Arabako aurka ligaxka jokatu behar dugu. Orain arte hiruko txapelketa moduan jokatu izan da, baina azken urteetan aldatu egin dute sistema.

Ligaxka hori irabazten duen taldea liga nazionalera igoko



Araitz Etxabe Gipuzkoako liga irabazi ostean, ospatzen, kopa eskuetan duela.

litzateke. Hortaz, oso garrantzitsua da hasieratik gogor hastea.

**Gipuzkoako ligaren eta liga nazionalaren artean alde handia dago?**

Nazional mailan esperientzia behar da, eta jokatzeko modua ere

**"Emakumezkoen futbola mutilenekin alderatuta beste futbol mota bat da, baina polita da era berean"**

ezberdina da; azkarragoa da. Nik uste dut igotzea lortzen badugu gure esku dagoen guztia egingo dugula goian mantentzeko. Badakigu zaila izango dela, eta, gainera, jende beharra izango dugu; izan ere, aurten 13 jokalarirekin ibili gara.

**Aurten, Mondrako mutilak ez dabilta oso fin. Zuek izan zarete aurtengo denboraldian alaitasuna jarri duzuenak?**

Mutilak oso denboraldi kaxarra egiten dabilta, eta uste dut poztasun apur bat jarri dugun bakarrak neskak izan garela. Gainera, orain, zuzendaritza aldaketa dela eta nahastuta dago guztia. Kirol mailan, behintzat, erakutsi dugu mutilak bakarrik ez daudela, neskak ere gauza garela liga irabazteko.

**Nola ikusten duzu emakumearen egoera futboleant? Asko aldatu da azkeneko urteetan?**

Gero eta hobeto dagoela uste dut. Ez dakit moda kontua den, baina azkeneko urteetan hobera egin du. Izan daiteke Real eta Athletic Superligan daudelako. Komunikabideetan agertzen dira, eta horrek eragiten du.

**Zuk 12 urte daramazu futboleant. Aldaketarik igarri duzu?**

Ikusleei dagokienez, esan behar da jendea ez dela partidua ikustera etortzen. Baina finaleira jende asko etorri zen eta hori poztekoa da. Zaleen babesa izugarria izan zen final egunean, inoiz izan dugun handiena.

**Nesken futbol partidurik ikusi ez duena nola animatuko zenuke?**

Nire lagunak inoiz ez dira etorri gure partidua ikustera. Finala ikustera etorri ziren, eta oso gustura geratu zirela esan behar da. Futboleant egiten dugula konturatu ziren, eta orain, hurrengo lehia noiz izango den galdezka daude.

Mutilekin alderatuta beste futbol mota bat da, baina polita da era berean. Ezberdintasuna da mutilek azkar mugitzen dutela baloia eta indar handiagoa dutela. Izan ere, gu ez gara paseak alderik alde egiteko gauza, adibidez, baina futboleant egiten dugu.

**Azkeneko bi urteak oso onak izan direla azpimarratu duzu. Non egon da aldaketaren gakoa, zure ustez?**

Nik uste dut taldea osatu dugula. Azkeneko urteetan jokalariek berdina ibili gara, eta gainera, gazte batzuk ere sartu dira. Hortaz, bata bestearen osagarri izan gara. Talde gogorra egin dugu.

**Eta, zein da taldearen alde indartsua?**

Atezaina, adibidez, oso ona da. Oraindik gaztea da -16 urte dauka-, baina asko balio duela erakutsi du. Aurrealdean, Maitane Roa *pitxitxia* da. Ez dauka golak sartzeko arazorik.

ESKORIATZA

# Arrainak uretan moduan ibili dira gaztetxoak igerilekuan

**UR JOLASAK** Hirugarren eta laugarren mailako neska-mutikoek ur jolasak egin dituzte Eskoriatzako kiroldegian

**BI TXANDA** Txanda bitan banatuta, maila bakoitzeko haurrek ordubetez gozatu dute puzgarri eta bestelakoekin

**HAUR GUTXIAGO** Begiraleek espero zutena baino gaztetxo gutxiago agertu dira Eskoriatzako igerilekura

**JOKIN BEREZIARTUA** > ESKORIATZA

Igeriketa jolasen txanda izan zen zapatu goizean Eskoriatzako kiroldegian. Eguraldiak kanpoko igerilekuetan egiteko gonbita egiten zuen, baina tamalez oraindik ez daude gertu. Izan ere, eguraldia ezin zen hobea izan.

Barruko igerilekuetan ibili baziren ere, Eskoriatzako kiroldegira gerturatu ziren gaztetxoek primeran pasa zuten puzgarri, flota-gailu eta bestelako elementuekin jolastuz.

Bi txandatan banatu zituzten zapatu goizeko igeriketa jolasak: 10:30etik 11:30era hirugarren mailako neska mutikoak -Kurtzebarri, Almen, Gazteluondo, Arrasate Herri Eskola, San Martin Herri Eskola eta Otxandio- eta 11:30etik 12:30era, berriz, laugarren mailakoak -Almen, Santa Teresa, Gazteluondo, San Viator, Arrasate Herri Eskola eta Kurtzebarri-.

**DENOK BATERA URAREKIN ZORATUZ**

Txanda bakoitzean eskola guztietako talde ezberdinak batera ibili ziren igerilekuan. Oraingoan ez zen talde ezberdintasunik izan, uretan denok batera dibertitzea zen helburua.

Behin derrigorrezko dutxa hartu eta uretara jauzi egiteko nagitasuna kendu ostean, erotu egin ziren gaztetxoak. Puzgarri erraldoiak erakarri zituen neska-mutiko gehien, eta borroka etengabean aritu ziren ordubetez puzgarriaren gainera heldu ahal izateko. Beste batzuk, ordea, flota-gailuekin igerian egitea aukeratu zuten.



PUZGARRIA Horixe izan zen gaztetxo gehien erakarri zuena.

J.B.



EDERTO Flota-gailu eta bestelakoekin ederto ibili ziren haurrak.

J.B.



DUTXA Igerilekura sartu aurretik derrigorrezkoa da dutxan sartzea.

J.B.

GUSTURA IBILI ZARETE UR JOLASETAN?



**Nerea eta Unai**  
San Viator




**Ane eta Lore**  
Otxandio



**Markel eta Lier**  
Kurtzebarri-Arrasate Herri Eskola



**Ander eta Unai**  
San Martin Herri Eskola



**Joseba eta Aritz**  
San Viator

Eskoriatzako kiroldegiko igerilekura berandu heldu baziren ere, ederto aprobetxatu zuten denbora Nereak eta Unai. Uretan gustura sentitzen direla aitortu ziguten: "asko gustatzen zaigu uretan jauziak egitea", esan zigun Unai.

Otxandiotik etorri zen bikoteak primeran pasa zuen zapatu goiza Eskoriatzan. Uretan ibiltzea asko gustatzen zaie; argazkia ateratzeko ere ez ziren uretatik irten. Puzgarrian ibili ziren ia denbora osoa, gora eta behera.

Uretan sartzeko hasierako nagitasuna kendu ostean, gelditu barik ibili ziren Markel eta Lier. Uretan gustura ibiltzen direnez, ez zuten zapatuko aukera galdu, eta ordubete saioaren ostean neka-neka eginda amaitu zuten.

Aramaiotik etorritako bikotea jauziak egiten aritu zen ia ordu osoa, eta puzgarria probatzeko aukera ere ez zuten galdu. Igerian egitea gustatzen zaie, baina jakinarazi zigutenez, "igeri baino nahiago dugu jolastea".

Uretara sartzeko harrapatu genituen Joseba eta Aritz, derrigorrezko dutxa hartu ostean -dutxan sartzea gogorra egiten zaie-. Uretan sartzeko unea ez dute gustuko baina, diotenez, "behin uretan oso ondo pasatzen dugu".



Arantza Hernandez  
> Irakaslea

**K**aixo, lagunak: hurrengo asteetan atal honetako gaiak osasuna eta elikaduraren ingurukoak izango dira. Elikaduraren bitartez, osasuntsu bizi izatea da gaur egungo gizarteak duen helburuetako bat. Jakin badakigu elikadura desegokiak eragiten dituen gaixotasunak ugariak direla; hala nola loditasuna, hipertentsioa, osteoporosia, diabetea, bihotzeko gaixotasunak eta orotariko minbiziak. Gaurko artikuluan, elikaduraren gainean oinarritzko ezagutzak eman nahi ditugu gaixotasun horiei aurre egin ahal izateko. Egia da ezin dugula bermatu elikadura egokiak gaixotasunak saihestea, baina osasun hobea izateko nahitaezkoa da elikadura egokia jarraitzea.

#### HAINBAT DATU

Minbizi eta bihotzeko gaixotasunak dira gaixotasun ohikoena Europar heriotza gehien eragiten dituztenak, alegia. 1997an, minbizi ikertzen duen Naziar-teko Fondoak erakundeak frogatu zuen dieta aldatzarekin baka-



Barazkiak eta frutak egunero, maiz, kontsumitzea beharrezkoa da modu egokian elikatu eta osasuntsu bizi izateko.

ARIZMENDI

OSASUNA > ELIKADURA

## Elikadura, prebentzio gisa

rrik minbiziaren eragina %30-40 murriztu daitekeela.

Pedro Malta medikuaren arabera (Jimenez Diaz Fundazioko Barne Medikuntzako burua), dieta mediterranea jarraitzearekin soilik %70 murriztuko lirake bihotzeko gaixotasunak.

Osasunerako Mundu Erakundearen (OME) arabera, loditasu-

na munduan izurria izatera iritsi da. Zerbakiak beldurra ematen dute: helduen artean mila milioi baino gehiagok loditasuna jasaten du eta emakumeen artean 300 milioi lodiak dira.

Loditasuna aztertzen duen Europako erakundeak dioenez, Europako herrialdearen heren batek loditasuna pairatzen du.

55 urtetik gorako pertsonen erdiak, gutxi gorabehera, osteoporosia du, estatistika ofizialen arabera.

Europarren %25ek hipertentsioa dute; gaixotasun horrek herrialdearen erdiari baino gehiagori eragiten dio eta 70 urte bitartean dauden gehienei. 45 milioi baino gehiagok diabetea du Europa-ko Batasunean eta 2025erako 65

milioi izatera helduko omen dira. Gaixotasun horietako asko izurrite edota hiltzaile isil moduan hartzen dira, bertan ditugun arte ez baikara ohartzen larritasunak.

Elikadura desegokiak eragindako gaixotasunak ekiditeko jarduerak fisikoa egitea beharrezkoa da, baina baita elikadura orekatua izatea ere.

#### ELIKADURA OREKATUA JARRAITZEKO GOMENDIOAK

1. Elikadura gurrpileko elikagai guztiak biltzen dituen menu orekatua aukeratu.
2. Kantitate handiak saihestu, garrantzitsuagoa da kalitatea kantitatea baino.
3. Talde bakoitzeko elikagaiak ahal den neurrian aldatuz joan (fruta ezberdinak, barazkiak, arrainak...), bakoitzak ezaugarri ezberdinak ditu-eta.
4. Fruta egunero kontsumitu: bi gutxienez eta horietako bat zitrikoen familiakoa (laranja, mandarina, pomeloa, limoia...).
5. Kontsumitu egunero barazkiak eta ortuariak, gordinik nahiz egosiak.
6. Kontsumitu egunero esnekiak eta zerealak.
7. Ez gehiegi jan animalia-koipea duten jakiak (gurina, hestebeteak, opilak, haragi gorria...)
8. Ez gehiegi jan azukre asko duten jakiak (goxoak, azukrea, opilak...)
9. Ez gehiegi jan sodio asko duten jakiak (sobreko zopa, hestebeteak, snack-ak, fruitu lehorrak...)
10. Jatorduak errespetatu; jatordu guztiak egin.

Hemen aipatzen diren gomendio guztiak osasuntsu dauden pertsonen zuzenduta daude; hau da, gaixotasunik ez duten pertsonentzat dira. Egoera horretan bazaude, ez aldatu zure dieta egun batetik bestera; progresiboki egin aldaketa. Hasi aldaketa txikiekin, baina iraun dezate-l. Gaixotasunik edukiz gero, hobe da dieta aldatu aurretik medikuarekin hitz egitea.

11. Jakiak egunero zehar banatu.
  - a. %25 gosaria
  - b. %30 bazkaria
  - c. %30 afaria
  - d. %10 tartean (betiere jatordu batetik bestera lau ordu pasa direnean).
12. Janaria era egokian prestatu:
  - a. Frijituak, albardatzeak... ekidin.
  - b. Baporea, parrilla, plantxa erabili.
  - c. Ez itzazu olio desberdinak nahasi; ez berrerrabili hiru aldiz baino gehiago.
13. Oliba-olioa erabili.
14. Ura maiz edan egunero barrena: gutxienez, litro eta erdi egunero.
15. Jatorduak familiarekin hitz egiteko aprobetxatu; ez piztu telebista.
16. Gutxienez 30 minutuko jatorduak egin.
17. Erosketa egokiak egin:
  - a. Iragarkiak saihestu, ziria sartzen digute.
  - b. Etiketei begiratu.
  - c. Markaz aldatu; horrela, kontsumitzen dituzun gehigarriak ere aldatuko dituzu.

### Zela saihestu gaixotasunak elikadurarekin

#### Minbizi saihesteko arauak:

- > Barazki, fruta, lekari eta fekulak kontsumitu.
- > Loditasuna saihestu.
- > Egunero bost fruta eta barazki jan.
- > Haragi gorria eta animalia-koipea gutxitu.
- > Barbakoan eginiko okela, umatutako jakiak eta janari ketuak noizbehinka bakarrik jan.
- > Alkoholaren kontsumoa txikitu.

#### Bihotzeko gaixotasunak:

- > Beharrezko kaloria kopuruak soilik kontsumitu.
- > Fruta, barazki, arrain eta oliba-olioa maiz kontsumitu.
- > Okela, animalia-koipeak eta gatza gutxitu.

#### Osteoporosia prebenitzeko:

- > Kaltzio kopuru nahikoa irentsi.
- > Kafeina kopuru kontrolatu (kafeaz gain, koladun freskagarriak).
- > Alkoholaren kontsumoa txikitu.

Tabakoa ekiditea eta jarduera fisikoa maiztasunez egitea ere oso gomendagarria da.

#### ELIKADURAREN GURPIL BERRIA



Elikadura gurrpileko elikagaien proportzio eta maiztasuna zein den erakusten digu. Horrela izanik, sail zabalenetan dauden elikagaiak dira gehien kontsumitu behar direnak (fruta, barazki eta zerealak). Gainerakoak (koipeak, proteinak eta esnekiak) egunero kontsumitu behar ditugu, baina kantitate murriztuz.

Elikagai jakin batzuk noizbehinka soilik kontsumitu behar dira, hala nola opil industrialak, hestebeteak, gatzdun fruitu lehorrak eta gazta ondua.

Azkenik, baina berebiziko garrantzia dutenak, ura eta jarduerak fisikoa dira. Bi horiek egunero bermatu behar ditugu.

### Datorren astean...

Bihur ezazu afaria jatordurik osasuntsuena. | Litxarrerriak : koloretako pozoiak-1. | Litxarrerriak: koloretako pozoiak -2.



2.0 PROFESIONALAK

ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA



> **UDABERRIKO KONTZERTUA**  
Emanaldi koloretsu eta distiratsua, Bergarako Musika Eskolak > 30-31



> **GANBARA**  
Abesbatza oñatiarrak kontzertu berezia eman du Oñatiko San Migel parrokiako klaustroan > 32



> **EKON**  
Talde arrasatearrak sutan jarri du, emanaldi bortitzarekin, Bilboko Kafe Antzokia > 32

## "Barru barruan daroat diseinuarekiko grina"

Nora Urkia bergararrak Crea Moda lehiaketa irabazi du *Urban Safari* bildumarekin

Sei urte daramatza modaren munduan eta marka propioa izatea gustatuko litzaioke

Cibeleseko Moda Astean parte hartzen saiatuko da eta horretarako udarako egokituko du *Urban Safari* negurako egin duen arropa bilduma

MAIDER ARREGI > BERGARA

Nora Urkia bergararrak urtero Bilboko BEC-en ospatzen den *Crea Moda* lehiaketa irabazi du. Emakumezkoendako arropen sailean *Urban Safari* arropa bilduma aukeratu dute epaileek irabazle. Guztira, 56 diseinugileren lanak aurkeztu dira sail honetan. "Lehen aldia da Euskal Herriko lehiaketa batera aurkezten naizena eta oso pozik nago; ziurtasuna eta motibazioa eman dit sari onek".

Epaimahaiak, 26 urteko gaztearen sormena, koherentzia eta arroparen joskera baloratu dute. Oihaneke animalia basatietan inspiratu da Urkia. "Indarra eta

agresibitatea islatzen dute. Tamaina oso handiak eta argazki errealak erabili ditut horretarako". Kalerako aproposa da eta arropa zabala eta eroso egin du. "Kontrastea material delikatuak eman diot seta eta larrua uztartuz. Untxi ilea ere erabili dut larruaz konbinatuta. Argitasuna emateko kolore zuria eta material sintetikoa ere sartu dut".

Maila bikaina zegoen lehiaketan; hala ere, askok kalerako baino espektakulurako modelo ikusgarriak aurkeztu dituztela esan digu Urkiak. "Nik *Prêt à Porter* egiten dut, kalerako arropa". Gainera, jendea ez dela ausarta



Nora Urkia diseinugilea, josteko makinarekin eta *Urban Safari*-ko arroparekin lanean, bere tailerreko txokoan. MAIDER ARREGI

dio. "Ohitura bat kentzea asko kostatzen zaigu eta kolore ilunak eta neutroak dira nagusi gure arropetan".

**PROIEKTU BERRIAK**

Crea Modan eskuratutako 5.000 euroak proiektu berrietara bideratuko ditu. Irailean, Cibeleseko

Moda Asteko diseinugile berrien desfilean parte hartu nahi du. Horretarako, ordea, gogor egin beharko duela lan dio eta aurre selekzio bat pasatu. "Cibelesarako udarako egokituko dut *Urban Safari* bilduma". Gainera, Jose Castro diseinugilearekin Bartzelonan praktikak egiteko aukera ere eman diote.


Modaren mundua gogorra dela dio. "Oso zaila da zure marka propioa sortzea. Konpetentzia oso handia da eta enpresa handien prezioekin ezin dugu lehiatu, oso sakrifkatua da, baina odolean daramat". Moda ez duela jarraitzen esan digu. "Askok ez dute moda jarraitzen kopiatzeko beldur direlako, baina ikasteko ondo dagoela uste dut. Nire diseinuak ez ditut salgai baina aurrera begira gustatuko litzaidake nire marka egitea. Euskal Herrian diseinua ikasteko eskari handia dago eta, horregatik, datorren ikasturterako EHU jarriko dute karrera. Donostian eta Bilbon ere akademiak daude, baina, Bartzelonak, eskaintza eta aukera handiagoa ematen duela azaldu digu bergararrak.

### 'URBAN SAFARI' ARROPA BILDUMA



Larrua, ilea eta seta

Poliuretanozko *pitillo* zuriak eta setazko soinekoa daraman diseinua. Benetako argazkia du soinekoak eta kamiseta garden batekin tartekatuta dago. Mugimendu handikoa. Jaka larruzkoa eta tigreen marrak irudikatuz, alboetan untxi ilea dauka.



Soinekoa eta maleta

Flamenkoaren irudia dauka soinekoak eta maleta estiloko poltsa handia. Material ezberdinek erabili ditu, algodoia eta larrua, besteak beste. Bilduma nahiko maskulinoa da eta emakumezkoaren gorputza beste modu batera erakusten dute diseinuek.



Setazko jantzi bakarra

Jantzi bakarra setazkoa izanda ere, konponketekin eta botoi doratuekin beste ukitu informala goa dauka. Gerri altukoa da eta setazko gerrikoa dauka. Koherentzia eta jarraitutasuna, bai diseinuen koloreetan eta baita irudien eboluzioan ere.



Diseinuaren jarraitutasuna

*Body* zuria eta setazko jaka *oversize* akoltsatua. Setak, ukitu goxoa ematen dio arropari. Lan handia dauka elefantearen irudia jantziaren goi eta behealdean batzea. Diseinuaren jarraitutasuna lortu da horrela, bai aurrealdean eta baita atzealdean ere.

MUSIKA &gt; BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

# 'Bost Ierro' eta hamaika musika hots

**NON:** Bergarako Udal Pilotalekuan.**EGUNA:** Zapatua, maiatzak 16**ZENBAT JENDE:** Behea beteta.**IRAUPENA:** Bi ordu eta erdi.

ENEKO AZKARATE &gt; BERGARA

Amaiera ezin hobea eman dio Bergarako Musika Eskolak 25. urteurreneko ospakizunei. Azken epilogoia falta da, labean duten liburua hain justu ere, baina zapatuko kontzertua izan da postreko ginda gozoa. Izan ere, musika eskolako neska-mutikoen, herriko musika talde eta abesbatzak izan baitituzte lagun: Gabero, Aritzeta eta San Joxepe abesbatzak; Alai taldea; Bergarako Orfeoia, eta Bergarako Orkestra Sinfonikoa; eta baita Udal Txistulari Banda. Kontzertuaren aurretik, erronda egin dute eta herriko kaleetan barrena.

PUNTU-PUNTUAN

Ordurako, puntu-puntu, alemanen antzera, hasi zen kontzertua. Oparitxo eta guzti, gainera. Kantu-ikasleek eman ziguten ustekabe atsegina aurkezlea berbetan zebilela: jende artetik esnatokira jaisten zebiltzala, ikuslearen artean banatu zituzten loreak, abesten zihardutela. Horren ostean etorri ziren Suzuki taldekoak; sei urte darozatenak eta hasiberriak, lau zapabost urteko neska-mutikoak. Hasiera polita.

Gero etorri ziren Musika Eskolako Hasiberrien Abesbatza lehenengo eta Trikitixa Taldea ondoren: ekialdeko doinuetatik, bertakoetara, herrikoietara. Eta lehen txalo zaparrada jaso zuen trikiti eta pandero laukoteak. Gabero abesbatza etorri zen ostean; Bergarako Orfeoia harrobi izateko sortua. Beltzez eta gorbata koloretsuz neska-mutikak, Aitor Biainen zuzendaritzapean. *Oh Happy Day* ETBko lehia-

keta arrakastatsuan ikusi dugu oñatiarra Ganbara Txiki abesbatzarekin eta haien estiloan jardun zuten Gaberokoak. Gustagarria eta dinamikoa izan zen haien emanaldia.

DENAK DOTORE

Musika Eskolako Txistu taldea etorri zen ondoren, eta haien ostean Alai Taldekoak, dotore-dotore jantzita, arraun bi eta guzti; *atrezzo* ondo zainduta, itsasoko kantu-kontuak ekarri zituzten-eta. Txalo bero-beroak haiendako. Bikain! Musika Eskolako Akordeoi Orkestra etorri zen ondoren, baina aurretik, *hegazi* moko-luze batek aurkezlearen jarduna eten egin zuen. Oihan Vega kazetari, musika, aurkezle, eta *showman*-ak laburragoak egin zituen taldeetik talderako etenak.

Akordeoilariak, bi pop pieza eskaini zizkiguten, biak oso ospetsuak: *Hijo de la luna*, Ainhoa de Marcosek maisuki abestuz, eta *Mamma mia*. Aritzeta eta Musika Eskolako Haurren abesbatza etorri ziren ostean eta azken hauek *Miserableak* ikuskizunean egindako lana nabarmendu zuen Tere Arantzibia aurkezleak. Hauen ostean, Musika Eskolako Orkestra eta Bergarako Orfeoia. Kalitatez. Hauek ere, abesbatza guztiak bezala, dotore jantzita, beltzez eta gorritz. Musika Eskolako Gazte Bandaren txanda etorri zen ondoren eta hauen ostean San Joxepe Abesbatza jendaurrea. Erretiratuek lehengo erara abestu zuten, ozenki, eta txalo zaparrada ederra jaso zuten. Talde polita osatzen dute herriko erretiratuek. Kalitatean irabazi egin dute azken urteotan.

AMAIERA IKUSGARRIA

Eta hala heldu ginen amaiera. Abesbatza guztiak, Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoa-



Amaiera izan zen ikusgarriena. Orkestra Sinfonikokoak, kontzertuan parte hartu zuten guztiekin batera.



Gonzalez, Arrondo eta Valle, Agurte Barruso alkatearekin.



Txistu Taldekoak.



Eskolako Orkestra Sinfonikokoak.

rekin eta Bergarako Orkestra Sinfonikoarekin, eskaini zituzten azken bi piezak. Mikel Laboaren *Txoriak txori* lehenengo, Alain Sanchoren zuzendaritza-

pean. Eta bukatzeko, 25. urteurrenerako konposatutako abestiaren estreinaldia egin zen: *Bost Ierro*, Manu Diazek idatzi eta Alfredo Gonzalez Chirlaquek

musikatutakoa. Azken honen zuzendaritzapean eman zuten denek bat eginda, eta hori izan zen apoteosia. Ikusgarria umeak puzgarriak eskuetan zituztela, pilotalekua puzgarri handiz eta serpentinekin atondua... Azkeneko laga zituzten esker onak eta omenaldiak: 25 urte hauetan Bergarako Musika Eskolako presidentek izan direnei; oroigarri bana banatu zitzaie.

Omenaldi berezia jaso zuen, bestalde, Regino Valle, orain dela 25 urte Bergarako Kultur Ekintzak elkartearen ziharduena eta herriko abesbatza eta musika taldeekin batera Musika Eskolaren sortzaile izan zena. Sortzaile izateaz gain, urte hauetan guztietan Musika Eskolari laguntzen, isilean, egin duen lanagatik jaso zuen omenaldia. Une hunkigarri horren ostean, berriro ere eskaini zuten *Bost Ierro*, denek batera.

LIBURUA ETA AKABO

Luze joan zen kontzertua eta aurrez aurre antzematen zitzaie nekea txikienei batez ere. Baina, era berean, egindako lanarekin gustura, harro, ikusi genituen. Omendutakoei ez ezik, parte hartu zuten talde gonbidatu guztiei eman zitzaie oroigarria eta ikus-



Gabero abesbatzakoak zuzendari jarraiki.



Alai Taldekoak dotore-dotore.



Suzuki taldeko biolin jotzaile txikiak.



JULIO CALLEJA

LIBURUA > MEMORIA HISTORIKOA

## "Biktimei ahotsa emanez, beldurren eta bihurrikerien historia bat kontatu dugu"

Espainiako Gerran Zamorako herri batean gertatutakoa kontatzen duen liburua aurkeztu dute Debagoienean

E.A. > ARETXABAETA

Espainiako Gerran, gerra ostean eta Frankismo garaian, Zamorako Morales de Toro herrian gertatutakoa jasotzen du *Matando los sueños, sembrando miedos. Morales de Toro 1936...* liburua. Asteburuan aurkeztu dute Debagoienean. Jose Maria Palaciok eta Candido Gonzalezek idatzi dute liburua. Azken hau Morales de Torokoa eta bestea aretxabaletarra, baina Moralesen jatorria duena. Biak izan ziren aurkezpenetan eta, haiekin batera, Jose Ramon Intxauspe atxabaltar historiagilea.

DEBAGOIENERA LANERA

Intxauspek kontatu zuen Zamorako herririka horretan jatorria duten asko direla debagoiendarrak. Esan zuen, Morales de Torotik asko etorri zirela Deba-



Intxauspe, Palacio eta Gonzalez, Arkupen, zapatuan.

ENEKO AZKARATE

kizuna luzea izan bazen ere, antolaketa bikaina izan zuen, ia etnik barik eta taldetik talderako trantsizio azkarrekin.

Afari ederrarekin ospatu zuten Musika eskolakoen kontzertu berezia. Orain, epilogo

geratzen zaie: aurki argitaratuko duten urteurreneko liburua. Urte hauetako jarduna, Manu Diazek laburbildu du eta, besteak beste, azken asteotan Aroztegi aretoan ikusgai izan diren argazkiak jasoko ditu.

"Gerra galtzeak ekarri zuen inboluzio hiritar eta politikoa"

"Nire jatorria Morales de Toron egon arren, harro nago Aretxabaletan jaio izanagatik"

goienara lanera XX. mende hasieran, Maltzagatik Gasteizera zihoan trenbidea egitera eta baita Aretxabaletako Boroa lantegira ere. Hortik, Zamorako herri horren eta Debagoienaren arteko harremana eta liburua gurean aurkeztu izana. Isaias Carrascok, ETak iaz hil zuenak, ere Morales de Toroko jatorria zuen eta hori jasotzen da liburuaren kontrazalean.

**EUSKAL HERRIA**  
aldizkariak

aurkezten du

# Mundumira

munduko kulturen festa

maiatzak 22, 23, 24  
Eskoriatza - DEBAGOIENA

open boulder, senzala euskadi capoeira taldea, abentura, umeen jolasak, triki eskoriatzako musika eskola,...

MACACO (Catalunya)  
17 HIPPIES (Alemania)  
ROMINA GOSHTASBI (Irán)  
KORRONTZI (EH)  
ZURA (EH)

MLOMP (Senegal)  
AMAMA LUISA BRASS BAND  
ARTEA TEATRO (Aragón)  
MADERA DE CHORO (Brasil)  
BLOQUE 53 (Venezuela)

CANDOMBE (Uruguay)  
LA FANFARE P4 (Francia)  
RUDE KANKA + IBAN NIKOLAI (EH)  
NEILA BENBEY (Argelia)  
DESCHAVE (Argentina)

902 181 471  
www.mundumirafesta.com

**NON:** Oñatiko San Migel Parrokia.  
**EGUNA:** Barikua, maiatzak 14.  
**ESTILOA:** Klasikoa.  
**IRAUPENA:** Ordu eta hamar minutu.

MAIDER ARREGI > OÑATI

Mistizismoz inguraturiko testuinguruan, San Migel Parrokiako klaustroan, Oñatiko Ganbara Abesbatzak sorpresaz beteriko emanaldia eskaini zuen barikuan. Lehen aldia da abesbatzak horren akustika berezia daukan lekuan emanaldia eskaintzen duena. Esteban Urtzelai, Ganbarako Zuzendariak adierazitako moduan, "oihartzun handia dauka klaustroak, baina jendez betetzean soinuak puntu ezin hobea dauka bertan. Urduri geunden nola aterako ote zen, baina azkenean, emaitza ikusita oso gustura gelditu gara egindako lanarekin". Jendearen harrera ezin hobea izan zen eta batek baino gehiagok harriduraz miretsi zuen melodia ezberdinen akustika paregabea.

Errepertorio oso berezi eta anitza aukeratu zuten. Lekua ikusita, Urtzelaik kontatu bezala, abesti erlijiosoak aukeratu zituzten. Hala ere, folklore ezberdinetako erritmo biziak bikain uztartu zituzten abestiak. "Tokiatatik kutsu erlijiosoko abestiak abestu ditugu eta Euskal Herriko eta mundu osoko folklorea ere erakutsi nahi izan dugu".

Hala, Behe Nafarroako *Urepel doinua*-rekin eman zion hasiera Ganbarak emanaldiari. Bi abesbatzen arteko elkarriketak giroa berotu zuen. Biebel konposatzailearen *Ave Maria* abestiak txalo zaparradak eragin zituen. Primeran uztartutako ahotsek



Oñatiko Ganbara Abesbatzak lehen aldiz eskaini zuen kontzertua Oñatiko San Migel Parrokiako klaustroan. JOSETXO ARANTZABAL

MUSIKA > OÑATIKO GANBARA ABESBATZA

## Sanba erritmoekin zerura

Jesus gurutzatu zuteneko pasarte emozioz kontatu zuten.

Indartsu eta erritmo biziak eman zioten hasiera Euskal folkloreaken tarteari *Sagastipean* abestiarekin. Urteak dira jai giroa eta maitasuna kontatzen duen abestia ez zutela abesten. Hala ere, bertaratutako askok ezagutu zuten berehala.

**ABESTI BERRIAK OPARI**

Ikusleei opari polita egin zieten eta bost abesti berri entzuteko aukera izan zen. Baina, benetan klaustroa dantzan eta erritmoz bete zuten abestiak *One note samba* abestiaren Brasilgo sanba doinuak eta *Hamba Lulu*-ren doinu afrikarrak izan ziren. Bukaera *bis* bat ere egin zuten.

**AHOTTS BILA**

Barikuko emanaldian ahots berriak entzuteko aukera izan zen. Ganbara, 17 neska eta 15 mutilek osatzen dute. Horregatik mutilen ahots bila dabiltzala kontatu zigun Urtzelaik. "Nahikoa da kantatzea gustatzea eta konpromisoa izatea. Nahi duenak Ganbarako atea zabalik izango ditu".

MUSIKA > EKON TALDEAREN ITZULERA KONZERTUA

## Zurrumbilo kaotiko eta eroa

**NON:** Bilboko Kafe Antzokian.  
**EGUNA:** Eguena, maiatzak 14.  
**ESTILOA:** Metala eta elektronikoa.  
**IRAUPENA:** Ordubete eta 20 minutu.

MAIDER ARREGI > BILBO

Zaleak hilabete asko zeramatzaten zain. Ekon talde arrasatearrak urtarrilean eman zuten adizera taula gainera itzuliko zela eta ikusmina oso handia zen.

Piroteknia, argiak, eszenaritze ikusgarria..., ez ziren falta izan. Ekonekin ikuskizuna bermatua dago eta indartsu eta gogotsu hasi zuten emanaldia. Leds koloretsuak eta abesti bakoitzeko bideo programatuek giroa berotu zuten. *Set-list* borobila eskaini zutela azpimarratu dute jarraitzaile sutsuenek.

Metal gogorrak eta doinu elektronikoen Lideren ahots goxoarekin bikain uztartu ziren. Juan Sangre abeslariak esan moduan, "Bizitza osoa Ekonen arituko



Zurrumbilo kaotikoa birako Ekonen lehen kontzertua.

OIARTSO LOS ARCOS URBINA

balitz bezala abestu zuen". Zaleak erotzen eta Bilboko Antzokia gainezka. "Ikaragarria izan da. Oso gustura gaude eskainitako kontzertuarekin. Zaleek behin eta berriro abesten zuten gurekin batera, ikaragarria izan da".

**AGENDA BOROBILA**

Hurrengo hitzordua ekainaren 16an dute Atortxu Rock jaialdian. Baina, Kobetasonik jaialdian ere izango dira. Eta nola ez, etxean, Arrasaten, zuzeneko berezia eskainiko dute ekainean.

ARGAZKIGINTZA

## Gurrutxaga eta Cantero bergararrak sarituak

Guztira, 207 argazki aurkeztu dira Bergara Hiria XXV. Argazki Lehiaketara

MAIDER ARREGI > BERGARA

Koloretako lehen saria Jose Agustin Gurrutxaga bergararren *Urbiako Zelaian* lanak eskuratu du. Zuri-beltzekoa, berriz, Berangoko Javier Pedro Fernandez Ferrerasen *Luchador III* argazkiak. Aipatu ere, zuri-beltzeko kategorian, bigarren postua Jose Agustin Gurrutxagarendako izan dela *Paisaia laino artean* lanagatik.

Bergarako onenaren saria, bi kategoriatan, Benito Cantero argazkilariarendako izan da. Canteroren *Setubal* kolorezko argazkia eta zuri-beltzeko, *Peru*



'Luchador III' saritu dute. GOIENKARIA

*Sariko Pagadia* dira sarituak. Guztira, 207 argazki aurkeztu dira; 116 koloretan (32 partaide, 12 bergararrak) eta 91 zuri-beltzean (30 partaide, 10 bergararrak).

**SARI BANAKETA**

Aurkeztutako argazkietatik, 45 aukeratu dituzte erakusketa egiteko, 20 zuri beltzean eta 25 koloretan. Maiatzaren 22an, izango dira Bergara Hiria XXV. Argazki Lehiaketako argazkiak ikusgai arratsaldeko 6etatik aurrera Aroztegin. Sari banaketa, berriz, 20:00etan egingo da.

BERTSOAK > TXAPELKETA

## Eskoletako bertsolariak Eskoriatzan

**NON:** Almenen, Eskoriatzan.  
**EGUNA:** Barikua, maiatzak 15.  
**ZER:** Bertsolaritza txapelketa.  
**IRAUPENA:** Ordu eta erdi.

IRATI AGIRREAZALDEGI

> ESKORIATZA

Ikasleak iritsi ahala karpeta bana eman zieten bertsopaperak idazteko gaiarekin, maila bakoitzeko gai ezberdina. Ordubeteko tartean Almeneko geletan jardun zuten ideiak neurtuta eta errimatuta paperetan jartzen. Idatzizko lanen ondoren, bat-bateko saioaren txanda iritsi zen.

Txikiek jardun zuten lehenengo, 14 urtera artekoek eta, 15 eta 18 urte artekoek gero, Jokin Labaien arrasatearren esanetara. Gaztetxoan mailan, azpimarratzekoa da Urretxu-Zumarragako hiru talde daudela eta batean Ane Zuazubiskar arrasatearrak hartu zuela parte.

**HELDUEK MAILA BIKAINA**

Helduen mailan Alegiko Imanol Irazustabarrenak eta Iñaki Artolak eta Errezilgo Eneritz Arzallusek eta Eneritz Eizmendik abestu zuten.

Hurrengo barikuan Beasainen jokatu da azken kanporaketa eta han jakinaraziko dute zeintzuk pasako diren Donostiako finalera.



GURE TALDEAK

## Darkness by Oath



Argazkian, ezkerretik eskuinera, Asier Bilbao, Tristan Iñiguez, Gorka Otero, Diego Piñeiro eta Aritz Navarro.

JOSETXO ARANTZABAL

# "Jarraitzaile finak ditugu, gure estiloa oso ohikoa ez den arren"

Arrasateko boskoteak 'Fear yourself' izeneko bigarren diskoa kaleratu du; death metal estiloko zortzi kantu grabatu dituzte

Diskoa Idiazabalgo Sound Sorce estudioan grabatu zuten eta nahasketa, Dan Swanö musikari suediarren estudioan

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Darkness by Oath arrasatearrek bigarren diskoa kaleratu berri dute. Euskal Herriko hiriburu handietan kontzertuak ematen dabilta. Udan Alemaniako jaialdi batean parte hartzeko asmoa dute. Aritzek, Tristanek, Asierrek, Diegok eta Gor-kak kontatu dizkigute disko berriaren eta taldearen gainekoak.

**Fear yourself** izeneko diskoa kaleratu duzue. Nolako da?

Taldearen bigarren lana da. Oraindik death metal melodikoa egiten dugu, baina bigarren diskoa lehena baino landuagoa da.

Bi diskoen arteko ezberdintasun nagusiak produkzioan eta gauzatzean daude: disko berriari askoz hobea dira. Gainera, abesti berriak erakargarriagoak dira

eta entzuleak errazago harrapatuko ditu. Oso gustura gaude diskoarekin.

**Urruti samar joan zarete diskoa nahastera.**

Egia esan, bai. Grabazioa Idiazabalgo Sound Sorce estudioetan egin genuen, baina nahasketak egiteko Suediara joan ginen; hain justu ere, Dan Swanö produktorearen eta musikariaren Unisound estudioetara. Lan oso berritza egin zuen gure diskoarekin; inoiz lorik egiten ez zuela pentsatu izan genuen!

**Oso ohikoa ez den musika egiten duzue. Aurkeztu zuen burua.**

Death metal melodikoa egiten dugu. Suedia aldean 1990eko

hamarkadaren erdialdean jorratzen zenaren eragin handia du gure musikak. Hasieran, In Flames, Dark Tranquillity, At the Gates, Sacrilege eta Eucharist taldeen ildoak hartu genuen. Era berean, gaur egungo Dimension Zero eta Nightrage taldeen ukituak ditugu. Talde askoren nahasketa da, baina modu pertsonalean egiten dugu musika.

**Nolako bilakaera izan du taldeak?**

2002ko udan sortu genuen taldea. Garai hartan Alex zen gitarr-jotzailea. Orduetik hona hainbat aldaketa izan ditugu: bi gitarr-jotzaile izan ditugu, eta baxu-jotzailea ere aldatu dugu: Rubenek taldea utzi zuenean, Gorka hasi zen gurekin.

Egun, bost lagunek osatzen dugu taldea: Aritzek (ahotsa), Tristanek (gitarr-jotzailea), Gor-kak (baxu-jotzailea), Diegok (gitarr-jotzailea) eta Asierrek (bateria-jotzailea).

Zazpi urteko ibilbidea egin dugu, eta tartean demo bat eta bi disko kaleratu ditugu.

**Beste talde batzuetako kide ere bazarete. Nondik ateratzen duzue denbora?**



### Eskandinaviako intziriak gureganatuta

Numen-eko Aritz Navarrok sortutako taldeak Goteborgeko soina du ardatz: Eskandinaviako black death metal melodikoa.

At The Gates, Dissection eta Dark Tranquillity etortzen zaizkigu gogora. Ingelese abesten dute eta musikariek maila oso ona daukate. Kantuetan riffeta melodia heavyak, erritmo biziak, deatharen gordintasuna eta giro malenkoniatsuak batzen dituzte. Alemaniako Cyclone Empirek kaleratu du diskoa. Euskal Herriari grabatu dute, baina nahasketak egitera Suediara joan dira. Igarri da.

Iker Barandiaran

Ez da erraza, baina musika gustatu egiten zaigu, eta badugu denbora beste talde batzuekin ibiltzeko. Horren harira, Gor-kak death metala egiten duen Bio-terror (Sopela) taldeko kidea da; Asierrek Odd Heathenish taldean dihardu; eta Tristan bakarka ibiltzen da Doom taldearekin. Gainera, Asier death aurrerakoa egiten duen Continuo Renacer taldean dabil eta Aritz, Numen eta Disflesh taldeetan.

**Nortzuegan heldu gura duzue zuen musikarekin?**

Era guztietako metala entzuten duen jendearengana. Gure musika nahiko gogorra da, baina melodia asko du. Death metala atsegin duen jende asko dago, eta horiek kontsumitzaile eroak dira. Baina gure antzeko talde asko dago merkatuan, eta tokia egitea oso zaila da.

**Kontzerturik emango duzue?**

Bai, une honetan Euskal Herriko hiri nagusietan kontzertuak egiten dihardugu. Ondoren iparraldera joango gara, eta uztailan Alemaniako jaialdi batean parte hartuko dugu. Udako oporren ondoren Frantziara eta Alemaniara joango gara.

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Altsasu.** 110 m<sup>2</sup>, 3 logela, 2 komun, sukaldea eta ganbarara lotutako egongela. Tel.: 948 46 82 67 edo 606 07 80 75.

**Arbizu.** 94 metro karratuko. 4 logela, komuna, sukaldea, egongela eta kamarotea. Bajeratik pisura pasa daiteke. Interesatuak deitu 948 46 09 08ra.

**Aretxabaleta.** Eraikitzen ari den duplexa salgai. Bitartekorik gabe. Bruesa eraikuntzak. [www.bruesa.com](http://www.bruesa.com). Prezio negoziagarria. 626 60 11 07

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. 659 64 67 38

**Bergara.** Erdigunean. Bi logela, sukaldea, egongela, bainugela eta trasteleku. Guztiz berritua. 177.000 euro. 618 44 38 44

**Bergara.** 80 metro koadroko etxebizitza salgai Koldo Eleizalden. Hiru logela, sukaldea, jangela-egongela, bi komun, trasteleku eta garajea. Oso eguzkitsua. Aukera ona. 600 90 45 58

**Lasarte-Oria.** Pisua saltzen da Lasarte-Orian. Erdialdean, kanpora ematen duena eta berri-tua. 2 gela, sukaldea eta egongela. 260.000 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 626 50 56 89.

**Marieta (Araba).** 200 metro koadroko etxe bakarra. 5 logela, 37 metro koadroko egongela behoko suarekin. 3 komun eta sukalde bat. Garajea bi autorentako eta 856 metro koadroko lorategia (ureztatze automati-koarekin). Aukera ona. 628 45 09 62 edo 616 96 99 20

**Olazti.** Olaztiko erdigunean etxe bat saltzen da. 150.000 euro. Interesatuak 650 53 79 83 telefonora hots egin.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Bidebarrieta kalean. 2002ko eraiki-

na. Bi logela, sukaldea, bainua eta egongela. Guztira 68 metro koadro. Gainera 10 metroko terraza toloarekin etxebizitzaren atzekaldean. 20 metroko garaje itxia. 617 20 60 06

**Oñati.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. 6 urteko eraikin berria, igogailuarekin. Bi logela, sukaldea, egongela, komuna eta trasteleku, argi patioan. 652 70 12 49

**San Martin Unx.** Urbanizazio pribatuan dagoen lursaila eta bungalowa saltzen, urbanizazioan igerilekuak, saskibaloia, txokoa eta abar... Telefona: 943 11 73 43

**Uharte Arakil.** Sukaldea, hiruro logela, komuna, egongela eta 13m<sup>2</sup>-ko trasteleku. 100.000 eurotan. Interesatuak deitu 659 74 56 24 telefonora.

**Zaldibia.** Etxea salgai Zaldibian, garajearekin. 620 54 56 29 eta 676 80 44 64.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Bi logelako etxebizitza ematen da errentan Zurgalde kalean. 656 75 00 94

**Bergara.** Etxebizitza erdigunean. Etxebizitza osoa edo gela-ka. Hiru logela, bi bainugela, egongela eta sukaldea. Jantzia. Igogailuarekin. Egoera onean. [www.euskalnet.net/aguirre](http://www.euskalnet.net/aguirre) 630 60 47 75 edo 943 79 51 70

**Conil de la Frontera.** Cadiz. Apartamentua ematen da errentan udako denboraldirako. Sei pertsonentzat egokia: bi logela eta ohe sofa. 656 74 78 10

**Etxarri Aranatz.** Etxarri-Aranatzko plazan bertan 3 logela, egongela, sukaldea eta trasteleku duen etxea alokatu nahi da. Deitu 659 21 55 67 edo 679 06 62 87 telefono zenbakietara

**Gasteiz.** Etxea alokatzen da Gasteizen. 3 logela, 2 bainugela, egongela, 2 terraza eta ganbarra. Deitu 628 23 29 3 telefonoz zenbakira.

Eguneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.  
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

# 943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com  
www.goiena.net-en

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU, LOKALA SALDU/ALOKATU, GARAJEA SALDU/ALOKATU, MOTORRA SALDU.**

**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIOALEN IRAGARKIAK (MODULO)**

**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 23 € (BEZ BARNE).**

**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 31 € (BEZ BARNE).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.  
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Gasteiz.** Etxea alokatzen da Gasteizen. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela, bi terraza eta ganbarra. Dena altzaritua. 628 23 29 31.

**Lakuntza.** Lakuntzan pisu bat alokatzen da. 625 08 12 93.

**Oñati.** 90 metro koadroko etxebizitza berria ematen da errentan Santamaina plaza ondoan. Garajea eta trastelekuarekin. Jantzia. Deitu 652 71 74 33 telefonora.

**Pefiscola.** 2 edo 4 pertsonerendako apartamentua. Hondartzako lehenengo ilaran. Guztiz jantzia. Igerileku txirristekin. Deitu 948 41 00 79 edo 616 95 04 00 zenbakietara.

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Bikote arduratsua batek etxebizitza hartuko luke errentan Arrasaten. 677 75 12 90

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. Presazkoa da. 669 12 70 98

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 610 91 33 40

**Bergara.** Etxebizitza txikia errentan hartuko luke familia batek. 649 63 23 24 edo 696 38 10 07

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 618 93 59 29

**Bergara** edo inguruan etxebizitza txiki bat alokatuko nuke. 607 31 85 60

**Debagoiena.** Familia batek etxebizitza hartuko luke errentan Bergara, Antzuola, Oñati, Arrasate edo Osintxun. Deitu 645 72 92 87 telefonora.

**Donostia.** 2009/10 ikasturterako Antiguano pisu bila gabiltzan arkitektureko 2 ikasle eta 2 langile gara. Interesatuak idatzi [alokairua@gmail.com](mailto:alokairua@gmail.com) helbidera.

**Lekeitió.** Lekeitió urte osorako errentan hartzeko pisu txiki baten bila nabil, 1 edo 2 logela. Tlf. 658 70 19 53

**Oñati.** Etxe txiki edo apartamentu bat alokatuko nuke pertsona bakarrarentzat maiatzetik aurrera. 655 71 33 66.

**Bergara.** Logela ematen da errentan Bolun, sukaldea erabilteko aukerarekin. 250 euro. Interesatuak deitu telefono zenbakia honetara: 670 85 86 68

**Bergara.** Pertsona bat behar dugu etxea osatzeko Bergaran. 628 45 10 37

**Bergara.** Logela bikoitza ematen da errentan, bi lagunendako. Erdialdean. 649 63 23 24 edo 696 38 10 07

**Bergara.** Logela alokatzen da erdialdeko etxe batean. Hileko: 170 euro + gastuak. Deitu 15:00etatik 19:00etara. 696 02 68 30 edo 670 40 74 53

**Donostia.** Gela eskaintzen da, banandutako emakume bati konpainia egitearen truke. Ez da etxe lanik egin behar, soilik konpainia egin. 65 urte ditu, emakume moderno eta irekia da, eta osasuntsu dago. Emakume gazte bat nahi genuke, baina zabalik gaude: helduak, etorkinak eta abar. Harremanetarako: [sansebastian70@yahoo.es](mailto:sansebastian70@yahoo.es)

**Donostia.** Bi logela alokatzen dira bakoitza bere bainugela-ekin. Bat handia 500 euro eta bestea erdiko atikoan 400 euro. Etxea duplexa da, terraza handiarekin. Gela argitsuak. [mirariastigarraga@gmail.com](mailto:mirariastigarraga@gmail.com) edota deitu 655 70 73 94 telefonora.

**Oñati.** Gela ematen da errentan. 617 14 39 41

## 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan. Interesatuak deitu: 620 60 54 14

**Aretxabaleta.** Erdiguneko pisu berrituz batean gela bat ematen da errentan neska baten-tzat ekainetik aurrera. Deitu 616 75 41 30 zenbakira.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Deitu 662 63 76 33 telefonora.

**Arrasate.** Pertsona batendako logela ematen da errentan. 636 91 93 81

**Arrasate.** Logela ematen da errentan San Andresen, igogailu eta garajearekin. Pertsona arduratsua behar da, bertan bizi den pertsonarekin arduratu beharko du eta. Presazkoa da. 672 20 36 82

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Pertsona bakarrarentzat. 666 21 88 95

**Arrasate.** Arrasatear batek logela bat ematen du errentan. 675 71 57 03

**Arrasate.** Bi logela ematen dira errentan. 680 30 24 64

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. 200 euro (ura, kalfekzioa eta argia) hilerro. Unibertsitatetik gertu. 652 73 46 19

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Olarte kalean, sukaldea erabilteko eskubidearekin. Neska bakarrik. 618 00 08 28

**Arrasate.** Gela bat ematen da errentan. Hiru gela, saloia, komun bi eta sukaldea. Etxe argitsu. 670 04 27 41

**Bergara.** Logela hartuko nuke errentan Bergaran. 690 97 44 32

## 2/ GARAJEAK

### 204. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Garajea hartuko nuke errentan. 656 71 31 71.

**Debagoiena.** Karabana gordetzeko leku bila nabil. Deitu 646 37 76 57 telefonora

### 205. BESTELAKOAK

**Karabana gordetzeko** leku bila nabil. 646 37 76 57.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALGAI

**Nabe industrial N-lean.** Altsasu eta Olazti artean. 160 metro karratuko eta 65 metro karratuko sobrepisoarekin. Zubigabaria izateko prestatuta. 699 63 54 28.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Neska gaztea asteburuetan zein astean zehar tabernan lan egiteko gertu. 697 42 79 88

**Eskoriatza.** Emakumea behar dugu pertsona nagusi bat zaintzeko, etxean bertan bizitzatzen. Kontratuarekin. 676 61 81 41

**Tolosa.** Neska euskaldun bat behar da etxe lanak egin eta bi haur zaintzeko. Orduetara: goizeko 10:30etik, eguerdiko 13:30era. Harremanetarako telefono zenbakia: 625 70 50 59.

### 402. ESKAERA

**Antzuola.** Arropen konponketak egiten ditut. 616 45 00 20

**Aretxabaleta.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke, goizez eta arratsaldean. Esperientzia daukat. Feli. 943 53 33 92

**Aretxabaleta.** 40 urtetik gero-ko neska euskalduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean edo ospitalean. 943 79 54 21

**Arrasate.** Emakumea gertu emeak zaintzeko, orduka edo etxean lo egiteko prest. 663 65 78 43

**Arrasate.** Emakumea gertu emeak zaintzeko. Orduka edo etxean lo egiteko prest. 663 65 78 43

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi zein emeak zaintzeko eta baita etxe garbiketarako egiteko ere. Mari. 649 30 13 60

**Arrasate.** Emakume euskalduna lanerako gertu. 659 82 75 18

**Arrasate.** Emakumea gertu haurrak zaintzeko. 666 12 52 80

**Arrasate.** 40 urtetik gorako emakume euskalduna lanerako gertu: emeak zaindu, etxe-ko lanak egin. 653 70 79 38

**Arrasate.** Neska gaztea prest Debagoieneko edozein herri-

tan ileapaindegian lan egiteko. 697 42 79 88

**Arrasate.** Ite apaintzaile laguntzailea eskaintzen da ilea zotuz eta tinteak emateko. 666 20 06 03

**Bergara.** Josteko makinak konpontzeko gertu nago, eguneko edozein ordutan. 650 07 63 50 edo 652 07 63 50

**Bergara.** Edozein lan mota egiteko gertu nago. Maria Eugenia. 628 23 50 55

**Bergara.** Emakume esperientziaduna gertu dago pertsona helduen eta haurren zaintzan lan egiteko. Garbiketa lanak ere egiteko gertu dago. Norma. 630 88 54 46

**Bergara.** Neska lanerako gertu. Garbiketa lanetan edo adinekoak edo umeak zaintzen. Aste bukaeretan eta arratsaldeetan. 618 34 09 35

**Bergara.** Paperak dituen emakume arduratsua pertsona nagusiak zaindu edo etxe-ko lanak egiteko gertu. 686 99 59 41


**Bergara.** Esperientziadun emakume gertu dago garbiketa lanak egin edota haurren zein hirugarren adineko pertsonen zaintzarako. 14:00etatik aurrera. Gladis. 618 12 07 44

**Bergara.** Bergarako emakume euskalduna lanerako gertu. Umeak zaintzen, etxe-ko lanetan edo garbiketara. Goizez. 665 70 03 74

**Bergara.** Neska gaztea garbitasun lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan lo egiteko. 617 29 49 81

**Bergara.** Emakume gertu dago garbiketa eta pertsona helduen zainketa lanak egiteko. Orduka egingo luke lan, baita astebukaeretan ere. Deitu 638 54 75 93 telefonora

**Bergara.** Emakume arduratsua eta esperientziaduna nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. 639 94 48 65



**DEBA GARAIA**  
INMOBILIARIA  
Telefono Aranzadi 2  
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**

- Arte kale, 89 m<sup>2</sup>, ondo.
- Arrizuri, 97 m<sup>2</sup>, garajearekin.
- Matxiategi, 65 m<sup>2</sup>, berriua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m<sup>2</sup>, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m<sup>2</sup>, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai 81 m<sup>2</sup>, berria, eguzkitsua, garajearekin.
- Aranerrek, 87 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, oso ondo.
- San Lorenzo, 81 m<sup>2</sup>, eraikuntza berria.
- Martoko, 87 m<sup>2</sup>, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m<sup>2</sup>, ondo.
- Ibargarai, 80 m<sup>2</sup> oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m<sup>2</sup> oso ondo.
- Urdangarin pasealekua, 132 m<sup>2</sup>, berritzeko.
- Zabalotegi 80 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, berriua.
- Elorregi 70 m<sup>2</sup>, terrazekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artzamendi 80 m<sup>2</sup>, 2 terrazekin 60+30 m<sup>2</sup>, eguzkitsua.
- Matxiategi, 73 m<sup>2</sup>, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m<sup>2</sup>, terrazekin.
- Zurradero, 81 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m<sup>2</sup>, berriua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m<sup>2</sup>, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m<sup>2</sup>, berriua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan eta Martokan.**

**SORALUZE**


- Baltegieta, 83 m<sup>2</sup>, berria.
- Sagarrerrek, 58 m<sup>2</sup>, aukera ona.

**ANTZUOLA**

- Eguzki auzoa, 85 m<sup>2</sup>, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m<sup>2</sup>, erdi berriua.

**ELGETA**

- San Roke, 75 m<sup>2</sup>, ia berria.



**IBARGARAI 3 • BERGARA**  
Tel./Faxa: 943 76 97 97  
[www.inmokorosti.com](http://www.inmokorosti.com)

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**

- Matxiategi 82 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua. Ondo. Berriua.
- Zubieta 80 m<sup>2</sup>. Berriua. Ganbarearekin.
- Elusu baserria. Berriua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m<sup>2</sup>. Berriua. Gazteentzat.
- Zubiare 67 m<sup>2</sup>. Berriua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m<sup>2</sup>. Oso ondo
- Barrenkale 82 m<sup>2</sup>. Berriua.
- Aranerrek, 95 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Masterreka. 46 m<sup>2</sup>. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m<sup>2</sup>. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- San Pedro 65 m<sup>2</sup>. Ganbarearekin.
- Osintxu 64 m<sup>2</sup>. Berriua. 114.192 €.
- Zubiare 58 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.
- Aranerrek 90 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Osintxu 62 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- San Lorenzo 68 m<sup>2</sup>. Berriua.
- Zubiare 55 m<sup>2</sup>. Berriua. 114.192 €.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Antzuola:**

- Buztinuzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalede 70 m<sup>2</sup>. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berriua. 135.000 €.

**Elgeta:**

- San Roke 72 m<sup>2</sup>. Berriua.
- San Roke 80 m<sup>2</sup>. 80 m<sup>2</sup>-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m<sup>2</sup>. Berriua.

**Soraluze:**

- Atxuri 49 m<sup>2</sup>. 117.618 €.



**inmobiliaria Etxebila**  
Felipe IV etorbidea 4. DONOSTIA  
Tel.: 943 44 61 66

**ALOKAIRUAN**

**AMARA** 3 logela, sala, sukaldea, bainugela. 800€  
**GROS** Nafarroa Hiribidea. 4 logela, sala, sukaldea, 2 bainugela. 1.100€  
**LASARTE** Urbarte. 3 logela. Sala handia. Igogailua. 850€  
**HERNANI** 2 logela, sala, sukaldea, bainugela. 700€  
**SALMENTAN**

**AMARA** 2 logela, sala, sukaldea, bainugela. Igogailua. Eguzkitsua. 29.990.000  
**AMARA** 70m<sup>2</sup>. Igogailua. Terraza. 3 logela, sala, sukaldea, bainugela. Terraza. Sartzeko. 42.500.000  
**AMARA** Hasieran. 2 logela, sala, sukaldea, bainugela. Altua. 47.990.000  
**AMARA** Aitkoa. 2 logela, sala, sukaldea, bainugela. Terraza. 39.900.000  
**GROS** Sagues. Logela, sala, sukaldea, bainugela. Igogailua. 37.000.000  
**GROS** Polita. 2 logela, sala, sukaldea, bainugela. Igogailua. 53.800.000  
**ZENTROA** Easo. 3 logela, sala, sukaldea, bainugela. Igogailua. Balkoiak. 64.000.000  
**BIDEBIETA-LA PAZ.** 3 logela, sala, sukaldea, bainugela. 34.800.000  
**INTXAURRONDO** 3 logela, sala, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 29.950.000  
**ALTZA** Logela, sala, sukaldea, bainugela. Lorategia. Sartzeko. 19.990.000  
**MARTUTENE** 2 logela, sala, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. Sartzeko. 27.500.000  
**LOIOLA** 2 logela, sala, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. Berriua. 43.500.000  
**LOIOLA** 2 logela, sala, sukaldea, bainugela. Igogailua. 39.400.000  
**ASTIGARRAGA** 2 logela, sala, sukaldea, bainugela. Kalera begira. Bistak 31.300.000  
**LEZO** 3 logela, sala, sukaldea, bainugela. Berriua. Kalera begira. 32.950.000  
**PASAI DONIBANE** Berria. 2 Logela, sala, sukaldea, bainugela. Garajea. Trasteleku. Terraza. 38.900.000  
**PASAI DONIBANE** 2 logela, sala, sukaldea, bainugela. Oso polita 25.990.000  
**PABILOIAK eta GARAJEAK**  
**MARTUTENE** 115 m<sup>2</sup> gehi 90 m<sup>2</sup>-ko pabiloia. Bainugela. 23.950.000  
**AMARA** Garaje itxia, Amezketan

**Bergara.** Ingeles eta frantseseko itzulpenak egiten ditut. Ahoz zein idatziz. 654 94 87 26

**Bergara.** Emakumea gertu legoke garbiketa eta pertsona eda detuen zein haurren zaintza lanak egiteko. Arratsaldez egingo luke lan, 14:00etatik aurrera. 618 12 07 44

**Bergara.** Mutil gaztea eraikuntzan edo autoa behar den beste edozein lanetan lan egiteko gertu. Deitu 696 48 42 50 telefono zenbakira.

**Bergara.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Gidabaimenarekin. Deitu 696 48 42 50 telefono zenbakira

**Deba.** Emakume euskalduna ospitalean jendea orduka zaintzeko prest. Telefono zenbakia 665 74 18 66. Marian.

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Deitu 685 70 76 25 telefono zenbakira

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu tabernak, eskailerak edo elkarteak garbitzeko edota sukalde baten lan egiteko. Esperientziaduna. Deitu 94308 18 13 edo 635 70 07 92 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Garbiketa lanetan, tabernari edota nagusiak zaintzen aritzeko gertu nago. Autoa daukat. Egun osoz zein orduka. 636 11 23 40

**Debagoiena.** Neska euskalduna prest edozein lan egiteko. 647 87 28 31

**Debagoiena.** Mutila edozein lan egiteko gertu. 630 61 29 30

**Debagoiena.** Lan bila nabil. Garbiketa lanak egiteko, helduak edo umeak zaintzeko... Deitu 679 98 37 47 telefonora.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakume nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Erreferentziak eta legezko paperak dauzkat. Etxean bertan bizi izaten ere lan egingo nuke. Deitu 686 52 15 98 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. Deitu 649 70 51 74 telefonora.

**Debagoiena.** Sukaldean edo nagusi zein umeak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan lo egiteko gertu nago. 676 73 90 05

**Debagoiena.** Sukaldaritza, garbiketa edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 630 20 12 03

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 627 21 08 93

**Debagoiena.** Garbiketak egin edo nagusiak zainduko nituzke, orduka. 679 06 12 99

**Debagoiena.** Arrasate edo Bergara. Mutila gertu edozein lan egiteko. Nagusiak zaintzen esperientzia daukat. 685 70 76 25

**Debagoiena.** Pertsona nagusien eta haurren zaintzarako gertu egongo nintzateke, ahal bada orduka lan egin ez. Maria. 667 20 56 29

**Debagoiena.** Etxeko lanak egin edo garbitzen ariko nintzateke. Socorro Mora. 627 14 63 79 edo 943 25 07 53

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari lanetarako. Egunean bost orduz. Ordu-tegi malgua. 943 71 21 15 edo 679 58 41 92

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari, sukalde laguntzaile edo nagusiak zaintzen lan egiteko. 672 25 92 20

**Debagoiena.** Mutila gertu tabernari edo bestelako lanetan aritzeko: garbiketetan, baserrian... 634 84 11 72

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 628 93 79 39

**Debagoiena.** 25 urte ditut eta bolibiarra naiz. Lan bila nabil: eraikuntzan, lorategietan, zaindari moduan... 654 24 13 27

**Debagoiena.** Edozein lan egiteko gertu nago: garbiketak, nagusiak zaindu... Etxean bertan bizitzeko prest. Ana Luisa de los Santos. 943 25 07 53

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan lo egiten. Orduka ere lan egingo nuke. Erreferentziak dauzkat. 628 40 58 27

**Debagoiena.** Altzariak muntatzen, denetariko konponketak egiten edo bestelako edozein lanetan aritzeko prest.695 78 91 04 edo 695 78 41 14

**Debagoiena.** Bigarren mailako ofiziala lanerako gertu. Esperientzia handia. Harremaneteu deitu telefono zenbaki honetara: 610 63 17 71

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 680 67 24 96

**Debagoiena.** Emakumea gertu, haurrak zaindu, etxeak garbitu eta adineko pertsonak zaintzeko gau ez, Arrasaten, Aretxabaletan nahiz Eskoriatzan. Esperientziaduna 618 00 08 28

**Debagoiena.** Gizona gertu edozein lan egiteko. Harremanetarako: 645 72 92 87

**Debagoiena.** Emakume ardurtsua edozein lan egiteko gertu: garbiketak, nagusiak edo umeak zaindu... Etxean bertan bizi izateko prest. 638 23 37 39

**Debagoiena.** Ile apaintzaile lanetarako gertu nago. Deitu: 639 00 35 57

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egin eta ume zein helduak zaintzeko. Harremanetarako telefono zenbakia:678 24 94 24

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 667 20 56 29

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu garbiketa lanak egiteko eta umeak zaintzeko, Bergara edo Arrasaten. 600 82 84 60

**Debagoiena.** Zerbitzaria lanerako gertu. Zortzi urteko esperientzia dut. 657 02 15 96

**Debagoiena.** Bigarren mailako ofizial, ostalaritza laguntzaile edo garbiketa lanak egingo nituzke. 649 62 88 22

**Debagoiena.** Mutila edozein lanetan jarduteko gertu. 696 48 42 50

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten, edo bestela. 680 30 24 64

**Debagoiena.** Galdaragintzan esperientzia duen mutila edozein lan egiteko gertu. 664 42 96 65

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke orduka zein etxean bertan bizi izaten. 688 68 13 63

**Debagoiena.** Mutil gazte eta langilea gertu eraikuntza arloan lan egiteko. Esperientziaduna eta alikatatzaile aditua. 663 72 37 44

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. 618 34 09 35

**Debagoiena.** Mutila prest lanerako. Nekazaritzako lanak, pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. 650 96 23 08

**Debagoiena.** Mutila gertu nekazaritza eta baso-lanak egiteko edota motozerrarekin aritzeko. 660 98 67 20

**Debagoiena.** Etxe etxeko masa-je bioenergetikoak 3. adineko eta sistema nerbiosoko arazok dituzten jendearentzat, batez ere. 645 70 34 10 edo 945 44 51 46

**Debagoiena.** Margotze lanak egingo nituzke. 660 98 67 20

**Debagoiena.** Emakumea gertu legoke pertsona edadetuen zaintza lanetarako, etxe barruan zein kanpoan. 677 81 10 00

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketak egiteko edo pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Deitu 664 74 82 07 telefono zenbakira:

**Debagoiena.** Nagusiakzaintzen edo bestelako lanetan jardungo nuke. Deitu 677 17 43 75 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko, umeak edo nagusiak zaintzeko. 671 87 14 06

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke. Etxean bertan bizi izaten edo orduka egingo nuke lan. 648 84 23 82

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu edo artzain lanak egingo nituzke baserrian. 660 84 44 42

**Debagoiena.** Erizain ikasketak ditut eta nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten. Erreferentzia eta lege dokumentuak ditut. 652 25 34 97

**Debagoiena.** Garbiketa edo bestelako lanak egingo nituzke. 650 55 14 28 edo 627 10 98 43

**Debagoiena.** Arratsaldez nagusiak zaindu edo tabernako sukaldean lan egingo nuke. 636 11 23 40

**Debagoiena.** Emakumea gertu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Aretxabaleta, Eskoriaitza eta Arrasaten. 680 61 96 98

**Debagoiena.** Esperientziadun neska tabernan lan egiteko gertu. Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatzan. 650 599 391

**Debagoiena.** Pertsona helduak zainduko nituzte, egunez eta gau ez. Etxeko lanak ere egingo nituzke. Ana naiz. Deitu 600 29 05 24 telefono zenbakira

**Debagoiena.** 50 urteko emakume esperientziaduna ume zein nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko gertu. Oti. 615 75 30 75

**Debagoiena.** Emakume euskalduna edozein lanetarako gertu. 659 82 75 18

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu garbiketa orokorrak egin edo ume zein nagusiak zaintzeko. Informeko dauzkat. Euskalduna eta lanean hasteko gertu. Ainhoa. 671 35 22 60

**Debagoiena.** Gertu nago sukaldean laguntzaile moduan edo harrerako langile moduan lan egiteko, arratsaldez. Paperak behar den moduan ditut. Angeia. 618 80 21 88

**Debagoiena.** Metalurgian lan egingo nuke. Baita garbiketak egiten edo nagusiak zaintzen. Alberto. 620 12 78 46

**Debagoiena.** Neska euskalduna lan desberdinak egiteko gertu. Zerbitzari moduan esperientzia. 667 94 07 25

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Etxean lo egiteko prest nago. 638 23 37 39

**Debagoiena.** Zerbitzari, sukaldean lagundua, nagusiak zaindu edo garbileta lanak egingo nituzke. Juan. 666 75 73 21

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatzan. Egunez edo gau ez. Legezko paperak dauzkat. Marta. 649 59 86 04

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke orduka zein etxean bertan bizi izanda. 669 02 91 30

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu umeak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko. 600 82 84 60

**Debagoiena.** Neska gertu garbitasun lanak egin edo nagusiak zaintzeko egun osoz, orduka, gau ez edota etxean bertan bizi izaten. 600 85 56 86

**Eibar.** Emakume euskalduna, arduratsua eta esperientziarekin, nagusiak eta umeak zaintzeko eskaintzen da.

**Eibar.** Lehen Hezkuntza duen eta Haur Hezkuntza ikasten ari den neska, umeak zaindu edo klase partikularrak emateko prest.

**Elgoibar.** Asesore nutrizionista batek bere zerbitzuak eskaintzen ditu, hobetu elikatu edota pisua jaisteko. Inolako konpromisorik gabe. 687 07 73 98.

**Elgoibar.** Emakumea lanerako prest, garbiketa lanak edo haurrak eta nagusiak zaintzen. 636 12 04 25.

**Elgoibar.** Emakumea garbiketa lanak, haurrak eta nagusiak

zaintzeko prest edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko prest. 618 16 30 61.

**Elgoibar.** Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Arratsaldez. 943 74 32 51.

**Elgoibar.** Neska lanerako prest, umeak edo nagusiak zaintzen eta etxeak garbitzen. Goizez. 943 74 00 65.

**Elgoibar.** Emakumea sukaldean laguntzeko, garbiketa lanetarako edo nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan. 671 34 36 12.

**Elgoibar.** Emakumea garbiketa lanetarako edo nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan. Harremanetarako deitu: 943 74 53 19 eta 669 31 13 85

**Elgoibar.** Neska gaztea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Deitu:657 14 23 76.

**Elgoibar.** Klase partikularrak emango nituzke, ingelesez eta frantsesez, biak ama hizkuntza dira. Mintza praktikak egiteko. 688 68 32 74.

**Goierri.** Erreferentzia onak dituen neska arduratsua naiz. Umeak edo adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan lan egingo nuke. Orduka edo egun osoz. (Interna edo externa). Deitu: 606 72 28 76

**Lasarte-Oria.** Emakume arduratsua eskaintzen da, garbiketak egin, haurrak edo pertsona helduak zaintzeko. Egun osorako eta erreferentziekin. Harremanetarako zenbakia, 629 94 67 94.

**Lasarte-Oria.** Hemengo emakume bat eskaintzen da ordu batzutan lana egiteko Lasarte-Orian edo inguruan. Tel.: 943 36 43 10.

**Oñati.** Uztaillean haurrak zaintzeko prest nago. Ikasketak eta esperientzia handia. 651 70 85 13

**Pasai Antxo.** 17 urteko neska euskalduna naiz. Oarsoaldean edo Donostialdean ekainean eta uztaillean goizetan umeak zaindu edo klase partikularrak emateko prest nago. EGA dut eta gaztelera eta Ingelesa menperatzen ditut. Umeekin 2 urteko esperientzia. Interesatuta dagoenak deitu 696 21 59 39ra edo e-mail 1 bidali *etxebe\_2@hotmail.com* era.

**Pasaia.** Autonomoa eskaintzen da astean 2 edo 3 egunetarako. Esperientzia handia lorazaintzan. Kamioi karnetarekin eta furgonetarekin aukeran. Informazio gehiago *lorazain@ozu.es* edo 679 60 04 44 telefonoaon

**Sakana.** Era guztietako eraikuntzei zuzendutako eraberritze lanak egiten ditut (etxebizitzak, lokal komertzialak, ofizinak, etab .). Azulejoak, baldosak, pladurra. Nafar Gobernuak eraberritze lanetarako ematen duen diru laguntzaren gestioa eginen dizut doan. Interesatuei deitu telefono zenbaki honetara: 669 58 55 02

**Tolosaldea.** Neska gazte euskalduna lanerako prest. Goi mailako delineaatzaile titulua daukat, baina edozertan lan egingo nuke. Harremanetan jartzeko deitu: 627 65 34 33

**Usurbil.** Ingurumenarekin loturiko goi mailako ikasketak egin ditut. Halere, hontan edo beste edozein lan egiteko prest nago udan. Harremanetarako telefono zenbakia:608 56 66 83

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak ematen dituen norbait behar dut. 675 70 10 63

### 502. EMAN

**Azpeitia.** Ingeniari teknikoa LH eta DBH mailako eskola partikularrak emateko prest, Azpeitian. Informazio gehiagorako

deitu telefono zenbaki honetara: 637 11 39 09

**Bergara.** Azterketak gainditzeko eskolak ematen ditu. 616 12 56 29

**Bergara.** Ingeleseko ahozko eskola eta eskola partikularrak ematen dira. 654 94 87 26

**Debagoiena.** Klase partikularrak eskola partikularrak ematen ditut Lehen Hezkuntzako umeei. Irakasle ikasketak ditut. 650 23 34 98

**Eibar.** Lehen Hezkuntza duen eta Haur Hezkuntza ikasten ari den neska, klase partikularrak edo umeak zaintzeko prest

**Oñati.** Arkitektureko ikaslea gertu Lehen Hezkuntza, DBH eta batxilergoko ikasle talde txikiei laguntza eskolak emateko. 665 70 38 33

**Zarautz.** Ingeniaritza teknikaria: matematika eta fisikako klaseak emango nituzke DBH eta batxilerr mailan edo Mekanika, Materialen Erresistentzia eta Egituren kalkulua Ingeniaritza teknikorako. Etxera zuzenean (Zarautz). Haritz. 679 13 44 44.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Furgoneta salgai.** Fiat Scudo 2.0 110 zaldi. Ohearekin ekipatua, aire egokitu eta extra ugari. Egoera oso onean. Deitu: 653 73 75 70.

**Kawasaki 2750 salgai.** 2007koa. Kolore beltza. Oso egoera onean. 12.000km, errebisio denak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro. Harremanetan jartzeko deitu: 660 33 77 16.

**Peugeot 206 autoa salgai.** Peugeot 206 XRD 1.9 3p autoa salgai. 210.000 km, irratik berria lpod konexioarekin, egoera onean. 3.000 euro. Deitu 649 42 78 27 telefonora.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Astakumea.** Urtebeteko astakumea salgai. Arra da. Beltza. Deitu 655 71 39 27 telefonora.

**Peruko untxiak.** Peruko untxi txikiak saltzen dira. Oso politik, kolore desberdinetakoak. 8 euroan bakoitza. Deitu 943 76 07 47 telefonora.

**Pottokak.** 2 pottoka salgai. Harremanetarako telefono zenbakia: 669 92 86 78

**Txakurkumea salgai.** Norbanako batek *Labrador Retriever* arrazako txakurume arka saltzen du. Kolore horixka. Deitu 18:00etatik aurrera 637 92 99 62 telefono zenbakira.

### 702. EROSI

**Basurdeak erosi.** Basurde ar handiak erosiko nituzke. 678 72 75 72

### 703. EMAN

**Artzain-baxkurra.** Mendiolako artzain-bxakurra eskaintzen dut. Urte eta erdi dauka eta jabearen alboan joaten ikasitakoa da. 19:00etatik atzera deitu. 677 78 37 72

### 704. BESTELAKOAK

**Loroa** galdu dut San Josepe kalean, Arrasaten. Kurro izena dauka eta hitz egiten du. Yako gorriada, gris kolorekoa eta buztan gorria dauka. Deitu 943 79 77 32 telefono zenbakira.

### 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Altzariak** oso merke. Zaharberritzea behar dute. Oso merke. 615 74 13 47

**Bizikletak eramatekoa.** Thule markako bizikleta euskarria saltzen dut. Bi bizikleta eramateko euskarriak ditu eta gehiago jartzeko aukera du. Gutxi erabili da. 250 euro. Deitu 605 75 39 66 edo 943 78 12 77 telefono zenbakira.

**Disko gogorra.** 750 GBko Philips disko gogorra (750.000 argazki, 150 film, 1.150 CD). Egoera onean. 7 hilabetez erabiliita. Deitu 667 95 73 16 telefono zenbakira.

**Errepideko bizikleta.** Bianchi etxekoa, Chorus modelo. 54 neurrikoa. Deitu 687 05 14 94 telefono zenbakira

**Errepideko bizikleta salgai.** 54 neurrikoa. Deitu 628 00 76 62 telefono zenbakira.

**Eskanerra salgai.** Ordenagailuarendako eskanerra salgai. Eggera onean. 10 euro. Deitu 679 74 00 61 telefono zenbakira.

**Jatebeko tresneria salgai.** Jate-txeko tresneria. Mahaia, aulkiak, lanparak, aplikesak, ontzi garbigailua... Deitu 649 84 67 09 telefonora.

**Jaunartzeko sonekoa salgai.** Merke. Deitu 635 75 54 30 telefono zenbakira.

**Josteko makinak industrialak salgai.** Josteko makinak. Jack eta Refrey markako bistekoko makinak salgai. Bat automatikoa da eta puntada zuzenak ematen ditu; bestea, erremateak egiteko makina da. Mahai eta gutzi saltzen ditu. Deitu 677 04 26 73 telefono zenbakira.

**Kanpin denda.** Salewa markako iglu familiarra. Behin erabili-ta. 150 euro. 605 72 72 39

**Karabana berria salgai.** Behin erabilitakoa. 2008ko uztaillekoa. Sterckeman 420 CP evolution modelo. 850 kiloko tara eta matrikulatua. 10.000 euro negoziagarri. Joseba. 666 45 21 02

**Karro denda.** Comanche Arizona. 1.50eko bi logela. Bat jangela bilakatzen da, mahai eta bijarleku luzez osatuta. Barruan gauzak gordetzeko tokia. Egoetako beste gune bat ere badauk. Karro gaiean ekipajea eramateko aukera. 850 euro. 635 20 77 80

**Marinel jantzia salgai.** 1112 neurrikoa. Berri berria. 90 euro. Larruzko oinetakoak barne. 679 74 00 61



gazte zerbitzua

BEKAK

> **Enpresen zuzendaritza.**

La Caixa Fundazioa; Casa Asia. La Caixa Fundazioak eta Casa Asiak 3 bekarako deialdia egin dute lizentziatu eta tituludunek Hyderabadeko Indian School of Business (ISB) ikastegian Post Graduate Programme in Management (PGP) ikasketak burutzeko. Epea: abuztuaren 31a.

LANA

> **Udaltzainak**

Urretxuko Udala. Urretxuko Udalean 3 udaltzain-lanpostu lehiaketa-oposizio bidez betetzeko deialdia. Epea: maiatzaren 21a.

> **Udaltzainak.** Lezoko Udala. 2 udaltzain-lanpostu lehiaketa-oposizio bidez betetzeko deialdia. Epea: maiatzaren 28a.

> **Administraria.** Astigarragako Udala. Administrari batentzako oposizio bidez betetzeko deialdia. Epea: maiatzaren 27a.

> **Eginkizun anitzeko langilea.** Beizamako Udala. Beizamako Udalean eginkizun anitzeko langile-postua betetzeko oposizio-deialdia. Epea: maiatzaren 29a.

> **Gizarte hezitzailea.** Lorratz elkarteak. Lorratz elkarteak gizarte hezitzailea behar du Tolosaldearako. Epea: maiatzaren 20a.

EKINTZAK

> **Musika.** Andra Mari Abesbatza; Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboa. Musikaste 37. Euskal Musikaren Astea. Maiatzaren 16tik 23ra Errenterian musika garaikidea, folka, funkya, flamenkoa, eta beste hainbat estilo entzuteko aukera.

IKASTAROKAK

> **Sorospena.** Gipuzkoako DYA. DEA ekipoen erabilerako ikastaroa Donostian. Ikastaroa maiatzaren 25ean hasiko da. Epea: plazak bete arte.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:  
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65  
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:  
Kultura etxea • 943 77 91 57  
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:  
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57  
gazteinformazioa@oinati.net

astea GOITBn

Astelehena, 18



> **Aramaioko ondarea berreskuratuz**  
19:45

Aramaioko ondarea berreskuratze-ko lanetan diharduen elkar- tea eza- gutzeko aukera izango dugu Txomin Madinarekin.

- 13:15 Marrazki bizidunak
- 13:45 Eskozia mendi bizikletan.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 mugaz kanpo.
- 15:45 Erreportajea.
- 16:15 28 Klip.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:45 Wasemak
- 18:15 Musikantoi
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 Solaskide.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Harmailatik.
- 23:00 Erreportajea.
- 23:30 Goiena Magazinea.
- 00:30 Emisio amaiera.

Martitzena, 19



> **Hurrengo eguneko pilulak mintzagai**  
19:45

Eskualdeko ospitaleko ginekologo Alaitz Pagaldaireren eskutik, hurrengo eguneko pilulen onurak eta arriskuak GOITBn.

- 13:15 Marrazki bizidunak
- 13:45 Ikusten.
- 14:15 Eltze beroa: Kipula zopa.
- 14:45 Berriak.
- 15:10 Harmailatik.
- 15:50 Solaskide.
- 16:20 Eskozia mendi bizikletan.
- 16:45 Berriak.
- 17:10 Marrazki bizidunak.
- 17:35 Erreportajea.
- 18:05 Harmailatik.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 Wazemak.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Ilunpean.
- 23:00 Euskal Herria lau Haizeetara: Goierrri
- 23:30 Goiena Magazinea.
- 00:30 Emisio amaiera.

Eguaztena, 20



> **Nagusiei eskainitako tartea Goiena Telebistan**  
19:45

Kutxaren Urrezko Zerbitzuak babestuta, nagusiei eskainitako tartea eskainiko dute eguaztenero *Goiena magazinea*-n.

- 13:15 Marrazki bizidunak
- 13:45 Ikusmira: Gernika-Lumo duathloia.
- 14:15 Jazz
- 14:45 Berriak.
- 15:10 Ilunpean.
- 15:50 Golb tb.
- 16:20 28 Klip.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:45 Solaskide.
- 18:15 Ur eta lur.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 Mugaz kanpo.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Erreportajea: Pedro Salegi Hargiña.
- 22:45 28 Klip.
- 23:15 Goiena Magazinea.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 21



> **Jousilouli taldearen azken kontzertua**  
20:45

Jousilouli taldeak Donostiako guardetxean eskainitako kontzertua emango dute Goiena Telebistako *Musikantoi* saioan.

- 13:15 Marrazki bizidunak
- 13:45 Euskal herria lau haizetara.
- 14:15 Eltze beroa: Brotxetak.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Ikusmira.
- 15:45 Mugaz kanpo.
- 16:15 28 Klip.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 18:00 Erreportajea.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 Musikantoi.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Berbaire.
- 23:15 Elkartasunaren bidean.
- 23:45 Goiena Magazinea.
- 00:45 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 22



> **Asteburuko kultur hitzorduak, egubakoitzero**  
19:45

Asteburuan Debagoienean izango diren kultur hitzorduak ekarriko dituzte, egubakoitzero moduan, *Magazinea*-ra.

- 13:15 Marrazki bizidunak
- 13:45 Ur eta lur.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Berbaire.
- 16:15 Ikusten.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 18:00 Ilunpean.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 Jazz.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Solaskide.
- 22:45 Musikantoi.
- 23:45 Goiena Magazinea.
- 00:45 Emisio amaiera.

arrasate irrata

FM 107.7

> **'Txanobarragorro' antzerkirako sarrerak zozketatuko dituzte**  
10:30

Politika gaiak landuko dituzte maiatzaren 24an izango den *Txanobarragorro* izeneko antzezlanean, Arrasateko Amaia Antzokian. Horrekin batera, egubakoitzean 3.60 aretoan egongo diren kontzertuetarako sarrerak ere zozketatuko dituzte, guztia, 943 25 05 05 telefonoan.

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera!  
Albistegia  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)  
Astelehenetan Kiroiak  
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)  
Zaharrak Berri (pertsona nagusiendako)  
Udal Gazte Bulegoa  
Sexologia Zerbitzua  
Astearen erreposoa (Goienkariarekin)  
Eguneko eta asteo protagonistekin, elkarrizketak  
Zozketak (egubakoitzean)  
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com edo goiena.net atarian, irratiko bloga)  
11:55 Arrasateko albistek, labur.  
12:05 Euskadi Irratiko albistegia  
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Igo Autobusera! (errep.)  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

telealbistek

TELEBISTA > 'SENSACIÓN DE VIVIR'

1990eko hamarkadan nerabeen artean arrakasta izan zuen telesaila bueltan da

'Sensación de vivir' telesail ospetsua pertsonaia eta istorio berriekin bueltatuko da Tele5 Espainiako telebista katera

MIREN ARREGI > ARRASATE  
Nork ez du gogoan 1990eko hamarkadan ospetsu egin zen *Sensación de vivir* telesail ospetsua? Nerabeen artean izugarritzko arrakasta lortu zuten Brenda, Kelly, Brandon eta gainontzeko protagonisten istorioak kontatzen zituen telesailak. Bada, orain, Tele5 katea Ameriketako Estatu Batuetan ekoiztutako *remake* ospetsuena eskaintzen hasiko da, edo, hobe

esanda, hasi da; izan ere, atzo, domeka, eskaini zuten lehen kapituluak. Beverly Hills luxuzko auzoa izango da oraingoan ere telesail-eko protagonisten eszenatoki, nahiz eta pertsonaia gehienak eta istorioak ere desberdinak izango diren. Edozelan ere, telesail-eko jarraitu egingo dute amodiozko istorioek zein institutuko arazok protagonista izaten.

Oraingoan, baina, Annie eta haren neba Dixon izango dira protagonistak. Hain justu, euren familia Beverly Hillsera iritsi berria da, eta toki berrira egokitu behar du familiak.

LEHENGO PERTSONAIK ERE BAI  
Kelly eta Brenda pertsonaiak istorio berrietan agertuko dira; oraingoan, baina, irakasle papera izango dute biek ala biek.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimendu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

PLANETARIUM BERRIA

**Kupula osoan proiektatzen diren erresoluzio handi-ko irudi ikusgarriak.** Asteartetik ostiralera, 18tan.  
Maiatzak 19, asteartea:  
**Eboluzioa (Berria!):** Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu

Maiatzak 20, asteazkena:  
**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sistemaren zehar bidaia

Maiatzak 21, osteguna:  
**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa. Ikas ezazu gurekin zeruko objektuak ezagutzen eta disfruta ezazu Astronomiaz.

Maiatzak 22, ostirala:  
**Kartoizko Suziriaren sekretua:** Haurrei zuzenduta.

ASTEBURU ETA JAI-EGUNETAN

**Elektrizitate ikuskizuna:** lleak puntan jarriko dizkizun esperientzia.  
**Planetarium Txikia:** 4-8 urte bitartekoek ere izarrak ikus ditzaten.  
**Simulagailuak:** Errusiar mendia eta tranbia gidatzailearekin disfrutatze-ko aukera.  
**Eta gainera:** Segway-a, Fakirren ohea, 1,2,3...matemagia!!, sumendiak, esperimenduak, etab.



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA  
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA  
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78  
www.miramong.org

## zorion agurrak



BERGARA

**Maider Oregi**

Apirilaren 26an, 8 urte. Zorionak etxeko partetik.



ARETXABALETA

**Asier Ortiz de Mendibil Jausoro**

Maiatzaren 10ean, 10 urte. Zorionak eta laztan handi bat etxeko guztion partetik.



OÑATI

**Maite Kortazar**

Maiatzaren 10ean, 32 urte. Zorionak, tia Maite! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu pila pila eta egin zuk patata tortila. Zure ilobak: June, Garazi eta loritz.



OÑATI

**Josune Kortazar**

Maiatzaren 10ean, 32 urte. Aupa Amatxo! Zorionak eta ondo pasatu zure urtebetetzia. Muxu potolo potolo bat Ainhoa, Aitaxo, Garazi eta loritz.



ARETXABALETA

**Marilu Zubizarreta**

Maiatzaren 12an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako! Patxo eta besarkada handi bana etxeko danen partetik eta handixaua ondionkan Araitz eta Doltzaren partetik. Ondo pasatu eguna!



OÑATI

**Itsaso Guridi**

Maiatzaren 13an, 12 urte. Itsaso, wapi-xima, zorionak! Ond pasatu eguna 12 urte eziala egunero itten! Eta patxo handi-handi bat kuadrila osuan partetik, potxola!



ARETXABALETA

**Deiane Bengoa**

Maiatzaren 13an, 28 urte. Abixauta zazen, hemendik aurrera urtero. Zorionak, guape-tona! Egongo gatzik, kafia zure kontura doie! Besarkada handi bat! Zure lagunak. Je, je, je.



OÑATI

**Maider Madariaga**

Maiatzaren 13an, 16 urte. Zorionak, pre-xioxa! Ondo-ondo pasatu eguna eta hemen eongo gara pasteltxon baten zaiñ! Muxu handi-handi bat etxekuen partetik.



BERGARA

**Manex Linazisoro Llodio**

Maiatzaren 14ean, eguenien, etxeko printziak 5 urte. Zorionak, txapel-dun! Patxo handi bat etxeko danon partetik. Zapatuen txituek be, abestuko dotsue!



OÑATI

**Juani Natividad**


Maiatzaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak, izeba! Zure anai-arreba eta Aitorren partetik.



OÑATI

**Aitor Altolagirre**

Maiatzaren 16an, 4 urte. Zorionak, potto! Ondo pasatu zure eguna eta kontuz lehoiekini!



ESKORIATZA

**Alazne Urkia Agirregabiria**


Maiatzaren 16an, 2 urte. Zorionak, sorgintxo! Muxu handi bat etxeko guzti-guztien partetik.



ARRASATE

**Sergio Canales**

Maiatzaren 16an, urtebetetzea. Zorionak, aitatxo!



BERGARA

**Andoni Gonzalez**

Maiatzaren 17an, 4 urte. Ondo-ondo pasatu eguna. Zorionak eta patxo handi bat zure lagun partetik. Hugo, Iago, Naia, Iker, Ander eta Nora.



ARRASATE

**Ane Iria Arana**

Maiatzaren 18an, 6 urte betetzen ditu. Zorionak eta larroxa koloreko muxu pila-pila bat denon partetik.



ARRASATE

**Josu Etxagibel Iria**

Maiatzaren 18an, 15 urte betetzen ditu. Zorionak eta ondo pasatu Zirolako jai-xak, denon partetik!



ARRASATE

**Lara Hernandez Estrella**

Maiatzaren 18an, 24 urte betetzen ditu. Zorionak eta patxo handia kuadrilako partetik!



ARRASATE

**Unai Lopez Ormaetxea**

Maiatzaren 18an, urtebetetzea. Zorionak, aitatxo! Oraingoan ere tranpa egiten eh! Ez bat, askoz gehiago betetzen dituzu! Muxutxo pilo bat. Uxue eta amatxo.



ARRASATE

**Maialen Hernandez Alkorta**

Hilaren 18an, 5 urte. Zorionak! Ama, aita eta aita-ta-amamak.



ARRASATE

**Julene Idigoras Amado**

Maiatzaren 18an, 2 urte betetzen ditu. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Txokolatezko muxuak!



OÑATI

**Naiara Apaolaza Igartua**

Maiatzaren 19an, 5 urte betetzen ditu. Zorionak, printzesa! Egun zoriontsua izan dezazula.



ESKORIATZA

**Goizane Pagaldai**

Maiatzaren 19an, urtebetetzea. Zorionak eta patxo handia familiaren partetik.



ARRASATE

**Beñat Alonso Lopez**

Maiatzaren 19an, 6 urte betetzen ditu. Zorionak, txapel-dun! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo handi bat familia eta lagun partetik!



BERGARA

**Amair Gallastegi**

Maiatzaren 19an, urtebete. Zorionak, sorgintxo! Muxu handi bat etxeko partetik.



ARETXABALETA

**Enara Zumarraga**

Maiatzaren 20an, etxeko poxpolinak 4 urte! Muxu handi bat, maittia Oier, Eñaut, aitatxo eta amatxoren partetik.



ARRASATE

**Jon Anduaga**

Maiatzaren 20an, 10 urte betetzen ditu. Zorionak eta patxo handia etxeko partetik!



OÑATI

**Asier Zubiagirre Ugarte**

Maiatzaren 20an, 5 urte. Zorionak Potxolo, ondo pasatu eguna eta patxo handi bat etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA

**Ander Uribarren Lasagabaster**

Maiatzaren 20an, 5 urte. Zorionak eta patxo handi bat familia guztien partetik.



OÑATI

**Imanol Illarramendi**


Maiatzaren 21ean, 45 urte betetzen ditu. Zorionak! Ondo pasatu zure eguna, senide eta lagun partetik. Patxo handi bat!



BERGARA

**Markel Eguren**


Maiatzaren 21ean, urtebetetzea. Zorionak potxolo eta patxo handi bat Liharren partetik.



OÑATI

**Aitor Lasagabaster**

Maiatzaren 22an, 10 urte betetzen ditu. Zorionak amama, aitatxo eta amatxoren partetik.



OÑATI

**Ibai Saiz Carbonell**


Maiatzaren 22an, urtebete. Zorionak eta patxo handia familiaren partetik!



ESKORIATZA

**Aimar Segura**

Maiatzaren 22an, 2 urte betetzen ditu. Zorionak, Eskoitzako eta Zigarralako etxeko partetik. Ondo pasatu eta etorri Eskoitzako Mundumirara, ederto pasatuko dogu.



OÑATI

**Eñaut Zubia Fernandez**

Maiatzaren 23an, 6 urte betetzen ditu. Zorionak familia danan partetik zure seigarren urtebetetzean.



SORALUZE

**Ubane Madera**


Maiatzaren 24an urtebetetzea. Zorionak irrati esatari! Egun bategatik txistua guk jo beharko dugu zuretzat. Itxi koaderno etxean gaurkoz, eta lasai hartu, little terremot!



DEBAGOIENA

**Igor Kerejeta**

Maiatzaren 18an, 2 urte betetzen ditu. Zorionak! Aita, ama eta Unairen partetik bereziki.



ARETXABALETA

**Luken Okarantza**

Maiatzaren 21ean, urtebete. Zorionak! Familiaren partetik.

**ZORIONAK!**

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Asteleheneko Goienkariaren bidez!  
Hiru bide dituzu zorion agurrak jartzeko:

**Internet bidez**  
Goiena.net atariko Zorion agurren tarrean sartu.  
Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

**e-postaz**  
Mezu bat bidali [sailkatuak@goiena.com](mailto:sailkatuak@goiena.com) helbidera.  
Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noliz betetzen dituen, zenbat urte betetzen dituen eta nahi duzun mezua.

**Edo etor zaitez Goienako ordezkartza batera.**

## kuxkuxeroa



Mainer Arregi

## Gizakiak akats bera bittan egitten dauela

Television Españolak aste honetan hanka sartze bera bi bider in dau. Lehenengua **Athletic ta Barçaren** aurkako partiduan. Espainiako himnua momentua zuzenian emun biharrian, **aldaketatxo** batzuzkin ostian emun ebein. Ta klaro, horrek bere ondorixua ekarri dau eta kirol zuzendarixa kargutik kendu daue. Ba ez daue ikasi zuzeneko programekin ezin dala jokatu eta **Eurovisionekin** berdiña in daue. Kontua da semifinala ordubete beranduau eskaini ebela TVEk. Europa osuak botua emun eta

## "Noruegako aingeru aurpegixa dakon gaztetxuak eskuratu dau Eurovisioneko botuen errekorra"

sailkatuak zeintzuk zian jakinda, espanolak jokoz kanpo geratu zian. Horrek arriskuan jarri dau **Sorayan** parte hartzia ze Eurovisioneko batzordia Espanak akats larrixa in dauela esan eben. Baña bueno, Eurovisionekuak pozik ze egixa esan aspaldi etzeukan ohiartzuna eta audientzia izan dau. Sustatun **Luistxok, Goioek** eta **Anak** antolatutako **Euskovisioneko liveblogin**ak bai euki dauela arrakastata! Zorionak!

Ta eskerrak ez dauela Islandiak edo Espanak irabazi ze bizi dauein **krisis**akin aer nundik atarako ebein dirua holako montajia itteko.

Bukatzeko, Elgetan **Araztarren** topaketa ingo daueila-eta nik hemendik **Arregitarren** afaixan aldeko deialdixa itten dot!

## PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle.**

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera:  
[astelehena@goiena.com](mailto:astelehena@goiena.com)

**Ezkontza aurreko agurra.** Neska koadrila goizean goizetik Bergarako kaleetan barrena ibili zen jai giroan. Barre algarra edarrak bota zituzten ASTELEHENEN GOIENKARIAko kazetaria argazkia ateratzera joan zitzairenean. Gustura eta *katxonde-oarekin*, neskek kamera aurrean posatu zuten modeloen antzera. Olatz emaztegiari adarra dezente jo zioten eta megafono batekin iragartzen zuten ezkondu egingo zela.



## asteburuko albuma

**Clown antzerkia Bergaran.** Bariku gauean Zabalotegi aretora gerturatu zirenek *Oraingoan bai* antzezlanaz gozatzeko aukera izan zuten. Clown taldearen antzezlanak suizidioa dauka gai nagusizat. Gai serioa eta gogorra da suizidioarena, baina Clown taldeak beste ikuspegi bat ematen dio. Gaia, umore ukituaz lantzen dute eta badakite nola erakarri ikuslea. Izan ere, Peio Arnaezek zuzendutako lana komedia bat da.



## jaiotakoak



**Ibai Torrez Altube**  
Aramaio > 3,460 kilo. Maiatzaren 9an. Gurasoak: Olatz (Aramaio) eta Eduardo (Nikaragua). Argazkian, Ibai jaioberria, amama Karmenekin.



**Xabier Carmona Sanchez**  
Aretxabaleta > 3,180 kilo. Maiatzaren 11n. Gurasoak: Vito (Aretxabaleta) eta Iñaki (Aretxabaleta). Argazkian, Xabier jaioberria, anaiarekin eta amarekin.



**Ane Calzon Perea**  
Aretxabaleta > 3,490 kilo. Maiatzaren 15ean. Gurasoak: Eider (Eskoriatza) eta Jon (Eskoriatza). Argazkian, Aner jaioberria, aitarekin.



**Oihana Iriondo eta Paula Iriondo**  
Arrasate > Oihanak, 2,000 kilo eta Paulak, 1,900 kilo. Maiatzak 6an. Gurasoak: Santos (Arrasate) eta Begoña (Logroño). Argazkian, sehaskan lo.



**Jone Orbegozo Martin**  
Elorrio > 4,080 kilo. Maiatzaren 9an. Gurasoak: Marijo (Elorrio) eta Eduardo (Elorrio). Argazkian, Jone jaioberria, amarekin.



**Naia Martinez Oruna**  
Arrasate > 3,640 kilo. Maiatzaren 9an. Gurasoak: Eneitz (Arrasate) eta Josean (Arrasate). Argazkian, Naia jaioberria, amatxorekin.



**Julen Estevez Rodriguez**  
Eskoriatza > 3,400 kilo. Maiatzaren 11n. Gurasoak: Marijo (Eskoriatza) eta Edu (Eskoriatza). Argazkian, Julen jaioberria, sehaskan.



**Markel Bachiller Hernandez**  
Arrasate > 3,620 kilo. Maiatzaren 12an. Gurasoak: Nuria (Arrasate) eta Jorge (Arrasate). Argazkian, Markel jaioberria, Aitona Robertorekin.



**Garazi Kortabarria Larrañaga**  
Aramaio > 3,880 kilo. Maiatzaren 11n. Gurasoak: Olatz (Aramaio) eta Oier (Aramaio). Argazkian, Garazi jaioberria, sehaskan lo.



**Raul Garcia Aguado**  
Arrasate > 3,800 kilo. Maiatzaren 11n. Gurasoak: Maria (Arrasate) eta Jose (Arrasate). Argazkian, Raul jaioberria, Laura arrebarekin lotan.



**Uxue Arenaza Bergaretxe**  
Bergara > 3,290 kilo. Maiatzaren 13an. Gurasoak: Irune (Arrasate) eta Asier (Arrasate). Argazkian, Uxue jaioberria, sehaskan lo.



**Harkaitz Ilarduia Arteaga**  
Bergara > 3,360 kilo. Maiatzaren 14an. Gurasoak: Olatz (Bergara) eta Aitor (Bergara). Argazkian, Harkaitz jaioberria, lotan.

BABESLEA

# IKUSI MAKUSI

Umeen  
paradisua

Lazarraga 4 OIATI 943 08 23 32

AIMAR OLAIZOLA > Pilotaria

# "Ohitura onei eutsi behar zaie, tradizionala naiz"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

Pilotarik ez badauka, antza, zail egingen zaio Olaizolari eskuak geldi edukitzea eta elkarrizketan batera eta bestera ibili ditu pilotariak eskutzarrak. Maila ezin hobea frontoian eta afizio "tradizionalduna", herri-giroa omen du gustuko. Armairu baten dauzka gordeta garaikurrak. Lehertzeare egongo da seguru armairu hori.

**Garaikurrak amak armairu baten gordetzen ei dizkizu. Geratzen da tokirik?**

Ni, egia esan, gauza horietarako oso despistatua naiz, beraz, hobe amak gorde ditzala. Horregatik, garaikurrak edo txapelak irabazterakoan zuzenean poltsan sartu eta arropa zikinekin amari ematen dizkiot. Irabaziz gero, egia da txapela hartu eta afaltzera joaten naizela ze lagunek eta osabak jantzi ohi dute txapela ospakizunean. Gero, baina, beti amak hartzen du. Egun horretatik aparte, nik ia ikusi ere ez ditut egiten txapelak gero.

**Kartetan egitea, ehiza, pilota... oso tradizionala zara. Af-**

**zio arrarorik edo ezkuturik ez duzu hortik?**

Zentzu horretan pertsona xaloa naiz. Herriko giroa gustatzen zait eta horko lasaitasuna dut gogoko. Horiek ohitura onak dira eta eutsi egin behar zaie.

**Sagardoa atsegin ez baina sagardotegia daukazue zuk eta anaiaik.**

Pilotarena behin amaituta zer egin pentsatzen jardun genuen eta aukera suertatu zitzaigun. Inolako esperientzia-

rik gabe hasi ginen, baina dagoeneko badaramagu bost urte horretan eta hasiera baten araroa egiten bazitzaigun ere - guztia zen berria-, orain benetan gustura dihardugu.

**Jende asko zeuek ikustera joango da sagardotegira, ala?**

Sarri egoten gara han anaia bat edo beste, eta askok eskatzen digute argazki bat eurekin ateratzeko. Hori ere polita da. Anaia sagardoaren kontua eramaten du gehiago eta ni tabernaz-eta arduratzen naiz. Bestela, langileak eta baditugu, noski. Gustura gabiltzala esan daiteke.

**Esaten dute kafe benetan goxoa egiten duzula.**

Ez dakit ba! Kafea ere ez dut oso gustuko. Hala ere, saiatzen naiz. Eskuak badauka zerikusia, baina baita ere kafea nolakoa den hartu behar da kontuan. Nik, behintzat, ahal dudan onena egiten saiatzen naiz. Hala ere, uste dut nahikoa erraza dela kafea ondo egitea ze azkenean makina bat da eta guztia makinak berak egiten du.



KIROLA Pilotaz gain, oro har, kirola egitea ere gustuko du Olaizolak. JON BEREZIBAR

## TEST-A

**Herria:** Goizueta (Nafarroa). **Adina:** 29 urte. **Txikitako idoloa:** Julian Retegi. **Ohitura bat:** Astelehenean elkartean ehizako lagunekin afaltzea eta asteazkenean koadrilakoekin. **Euskal mutilik sexyena 2006an!:** Blog baten izan zen..., zaintzen naiz apur bat. **Zaletasunak:** Zakurrak eta ehiza. **Arrantzaren ere, denbora baldin badut.** **Deskonektatzeko:** Mendira zakurrekin irtetea. Partidu garrantzitsuen aurretik egin izan dut.

## ai, ene!



### Teklatu gozoa

Teklatuan pasatzen dugu eguna, eta askotan ahazten zaigu, gosez amorratzen egon arren, ezin dugula bertan jan, teklatura izorra dezakegulako. Irtenbidea asmakizun honetan: gosez ez akabatzeko, jateko moduko teklatura egin dute. <http://www.sarda.es>

## biharamuna

Oier Bolibar

### Herschel eta Planck

**H**erschel eta Planck-ek espazioan zehar hasten dute beren bidaia" irakurri dut aste honetan. Jatorriz, bata ingelesa eta bestea alemaniarra. Bata, VIII. mendean jaioa eta bestea XIXan. Bata nahiz bestea, bere garaian egindako ikerketek baliaz, gaurko gizartearen bizi garenon bizitza ulergarriagoa eta errazagoa izateko lan egindakoak. Bata matematikaria eta bestea fisikaria.

Biak orbitan jarri dituzte. Hemendik ez dakusaguna ikusi, aztertu eta espazioaren jatorriak ulertzen lagunduko digutelako biek; biak ere teleskopioak, 3 urte eta 15 hilabete irauteko diseinatuak




hurrenez hurren. Hemendik hura ikuskatu eta hau, zein hura ulertzen saiatzen lagunduko omen digute. Hala ere, harantz begira jarri behar, nahiago nuke honantz begira jarriko balituzte, hemengo bataratu eta ulertzen saiatze aldera.

Batzuek orbitan pasa dute aste osoa, eguneroko errealitateatik at, amestutako garaikur baten handiespen eta gehiegikeria batean murgilduak.

Besteek ere orbitan pasako dituzte gutxienez lau urte, gizartea ikusi arren, entzun zein ulertu nahi ezean, errealitate zein gehien-go nagusi batetik urrun.

## eguraldia



MAXIMOA

**+18**

MINIMOA

**+08**

Hodei batzuk ageriko diren arren, eguzkia nagusituko da eta eguraldiak hobera egingo du. Haizea aldakor eta tenperaturak gora.

[www.euskalmet.net](http://www.euskalmet.net)

**PREST**

**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

**UNIBERTSITATEA BIZITZEKO PREST!**

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

## ATE IREKIAK

etorriko zarela jakinarazi!

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**

**MAIATZAK 28 - 17:30** osteguna **2.zikloa**

**ARRASATE-MONDRAGÓN** AULA MAGNA Tel.: 943 73 96 29 // [bguerenu@eps.mondragon.edu](mailto:bguerenu@eps.mondragon.edu)

**ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

**MAIATZAK 28 - 18:00** osteguna

**IRUN** AULA MAGNA Tel.: 943 63 91 29 // [ioiartzabal@bidasoae.teo.mondragon.edu](mailto:ioiartzabal@bidasoae.teo.mondragon.edu)

**izena emateko epea zabalik ekainaren 19ra arte**